


GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA (2018-2021)

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA (2018-2021)

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Argitaratzailea: Iruñeko Udala
Gizarte Ekintzako Alorra
Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetza Programa
Aholkularitza-taldea: Pedro Surja eta Nerea Lopetegui
Argazkiak: Nafarroako GGKEak eta Iruñeko Udala
Itzulpena: CCI eta Iruñeko Udaleko Euskara zerbitzua
Diseinua eta maketazioa: Heda Comunicación
Argitalpena: Eurolan
ISBN: 978-84-95930-85-9
LG: NA 899-2018
Plan zuzentzaile hau 2018ko apirilean argitaratu da
Plan zuzentzaile hau aho batez onartu zen
2018ko martxoaren 1eko Osoko Bilkuran: PLE 01/03/2018 (4AS)

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 9
AKRONIMOAK 10
1. SARRERA ETA PLAN ZUZENTZAILE HONEN IRISMENA 11
2. UDALEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA PROGRAMA 13
2.1 Aurrekariak, egitura eta helburuak 13
2.2 Zenbait mugarri 13
2.3 Tresnak eta modalitateak 14
3. ZERGATIK LANKIDETZAKO PLAN ZUZENTZAILE BAT ORAIN? 17
4. NOLA PRESTATU DUGU PLAN ZUZENTZAILE HAU? 19
5. NONDIK ATERA DITUGU PLAN HONETARAKO IDEIAK? 21
5.1 Zer gertatzen ari da gure inguruan? 21
5.2 Zer diote gure estatistikek edo erregistroek? 23
5.3 Zer esaten digute Iruñeko GGKE-ek? 25
5.4 Zer iritzi dute lankidetzako beste eragile batzuek? 27
5.5 Zer iradoki dute Iruñeko beste eragile garrantzitsu batzuek? 29
6. NOREKIN BATERA LAN EGIN NAHI DUGU? 31
7. ZERK BIHURTZEN GAITU EZBERDIN? 35
7.1 Zer egin nahi dugu? 35
7.2 Zer asmo dugu? 35
7.3 Zer alderdik definitzen gaituzte? 35
8. ZER NAHI DUGU LORTU DATOZEN URTEOTAN? 37
8.1 Hegoaldeko ekintza iraunkorrak, koherenteaak, eta enfasia tokian tokikoan 37
8.2 Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa indartzea 37
8.3 UGLPk babesten dituen ekintzen kalitatea handitzea 37
8.4 UGLP beste erakunde eta ekimen batzuekin koordinatzea 37
8.5 UGLPren gaineko ezagutza eta gardentasuna handitzea 37
8.6 GLUK berraktibatzea foro garrantzitsuena den aldetik 38
9. HELBURU ESTRATEGIKOAK ZEHAZTEA: JOMUGAK ETA ADIERAZLEAK 40
10. PLANA EGIA BIHURTZEN: MODALITATEAK ETA TRESNAK 49
10.1 Urteko plan operatiboak 49
10.2 Modalitateak 49
10.3 Tresnak 51
11. EGINDAKOA BERRIKUSTEN: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA 57
11.1 Plan Zuzentzailearen jarraipena 57
11.2 Plan Zuzentzailearen ebaluazioa 57
ERANSKINAK 59
A. Plan Zuzentzailea egiteko metodologia 59
B. Informazioa eman duten pertsona eta erakundeen zerrenda 60
C. UGLPko erregistro historikoen analisi kuantitatiboa 61
D. GGKE eta kideentzako galdetegien ereduak 66
E. GGKE eta kideentzako galdetegiaren sistematizazioa 71
F. Diagnostikoa egiteko elkarrizketa eta lantegien gidoiak 74
G. Kontsultatu diren dokumentuak 81
H. UPOen egitura eta edukia 82
I. Urteko memorien egitura eta edukia 83
J. Argazkien iturriak 84



AURKEZPENA

Iruñeko Udalak 20 urte baino gehiago daramatza (1996tik aurrera) herritarren elkartasuna sustatzen eta bideratzen behar handiena duten herrialdeekiko, Hegoaldeko herrialde esaten zaien horiekiko. Elkartasun hori, nagusiki, herrialde horietan egindako lankidetzako proiektuen bitartez gauzatu da, udalerrian aktibo dauden GGKE ugariek eta tokian tokiko kideek bultzatuta eta kudeatuta. Halaber, azken bi hamarkadetan, Iruñeko Udalak laguntza eman du herritarrak munduan pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten egiturazko kausei buruz sentsibilizatu eta hezteko, baita guk horretan dugun erantzukizunari buruz ere, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela.

Iruñeko Udalak konpromisoa du nazioarteko lankidetzarekin eta garapenerako hezkuntzarekin, udal-politika egonkorra eta epe luzekoa izan dadin. Hori bideratzeko, Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetza Programa (UGLP) sortu zen hasieran bertan; hartan, helburu eta lehentasun zehatzak jaso dira, gardenak eta ongi definituak, eta urteetan zehar konstante izan direnak. Horrezaz gain, eta hau oso adierazgarria da, Iruñeko Udala urteko aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara bideratzeko konpromisoa bete duten eta aldatu gabe eutsi dioten Espainiako erakunde publiko gutxietako bat izan da, baita duela gutxiko krisi ekonomikoan zehar ere, nahiz eta batzuek zalantzan ipini izan zuten lankidetza deszentralizatuak aurrera jarraitu behar ote zuen.

Haatik, indargune horiek guztiak izanda ere, ordukoa baino esparru estrategiko sistematikoagoa, zabalagoa eta sakonagoa behar genuen garapenaren aldeko lankidetzan, gainerako erakundeen aldean ditugun abantailak, printzipio bereizgarriak, erronkak, lehentasunak eta epe luzerako helburuak aztertuko zituena. Aurkezten ari garen dokumentu honen helburua gabezia horri erantzutea da.

Gure eskarmentuari jarraikiz, Iruñeko garapenaren aldeko lankidetzari buruzko iritzia oso ona da, batik bat gurekin lan egiten duten GGKE-en iritzia. Hori dela eta, Plan Zuzentzaile honek orain arte egindakoarekin jarraitu behar du ezinbestez. Nolanahi ere, erronka berriak finkatu eta garapenaren aldeko lankidetzako esparru berriak, eztabaidak eta ikuspegiak txertatu nahi izan ditugu, maila deszentralizatuan nagusiki (herritartasun globala eraikitzea, koordinazioa eta osagarritasuna, GIHak, tokian tokiko prozesuak babestea, etab.).

Ziur nago I. Plan Zuzentzaile hau (2018-2021) funtsezko tresna izango dela garapenaren aldeko lankidetzako eta hezkuntzako Iruñeko politikak ezaugarri bereizgarriak izan ditzan: kalitatea, koherentzia, osagarritasuna, partaidetza eta gardentasuna.

Edurne Eguino

Zinegotzi ordezkaria

Garapenaren Aldeko Lankidetza

AKRONIMOAK

- AECID: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia
- LGL: Larrialdietarako eta gizaldeko laguntza
- USJ: Unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak
- CAD: Garapenaren aldeko Laguntza-batzordea
- GLUK: Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua (Iruñekoa)
- NGGKEK: Nafarroako GGKE-en Koordinakundea
- GE: Giza Eskubideak
- GEI: Giza Eskubideak Oinarri dituen Ikuspegia
- GHS: Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa
- TE: Toki-erakundeak (Hegoaldekoak)
- GH: Garapenerako Hezkuntza
- FEMP: Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa
- LNTK: Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsa
- NUKF: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- NG: Nafarroako Gobernua
- IHH: Iruñea Harrera-Hiria
- GGI: Giza Garapeneko Indizea
- LGTBI: Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Kolektiboa
- MGH: Milurtekoko Garapen Helburuak
- GIH: Garapen Iraunkorrerako Helburuak
- UGP: Udalaren Garapen-planak
- GEP: Gizarte Erakundeen Plataforma
- UGLP: Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetza Programa
- UPO: Urteko Plan Operatiboa
- UPNA: Nafarroako Unibertsitate Publikoa



1. SARRERA ETA PLAN ZUZENTZAILE HONEN IRISMENA

Garapenaren aldeko Lankidetzaren I. Plan Zuzentzaile honetan (aurrerantzean, Plan Zuzentzailea), Iruñeko Udalak **garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan finkatu dituen ildo nagusiak** jaso nahi dira era zehatz eta sistematiko batean.

Plan Zuzentzaile hau ez da asmoen adierazpen hutsa izango, programako alderdiei, balioei eta printzipio generikoei baino begiratzen ez diena; aitzitik, bat etorri nahi du lankidetza publikoko politiketan sortu diren eraginkortasuneko, gardentasuneko eta kudeaketa oneko paradigma berriekin. Hartara, Plan Zuzentzaile hau **barne-kudeaketako benetako tresna bihurtzea nahi dugu, helburu, emaitza, estrategia eta adierazle** zehatzak izango dituena, eta horiek Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetza Programako (aurrerantzean, UGLP) talde teknikoarentzat egiazko *aginte-koadro* bat izatea nahi dugu, bai eta Iruñean lankidetzaren alorrean diharduten gainerako eragileentzat ere. Hala, asmoa da horiek gerora ebaluatzea, gardentasuna ziurtatzeko eta herritarrei kontuak emateko.

Plan Zuzentzaile berri hau prestatzeko, **partaidetza handia** izan da, dokumentu honetako 4. atalean xehe-xehe azaldu den bezalaxe. Hala ere, gogora ekarri behar da Plan Zuzentzailea Udalak lankidetzaren esparruan dituen lehentasun politikoak zehazteko tresna ere badela. Horri jarraituz, Iruñeko Udalak berak finkatu ditu ildo nagusiak, bere ikuspegia eta lehentasunak oinarri, eta horiek bat etorri behar dute Udalaren gainerako politikekin. Udalak iritzi guztiak entzun ditu, baina ez du bazter utzi berea dela Plan Zuzentzaileari buruzko erabaki garrantzitsuen gaineko azken erantzukizun politikoa, hari baitagokio.

Asmoa da Plan Zuzentzaile hau **osoa eta zehatza** izatea. Horrek esan nahi du Udalak garatzen dituen lankidetzako modalitate eta tresna guztien helburuak eta estrategiak arautzen eta finkatzen dituela; alegia, honako hauen helburuak eta estrategiak: nazioarteko lankidetzako proiektuak, toki-erakundeekin Hegoaldean egiten diren zuzeneko ekintzak babestea, larrialdi humanitarioko ekintzak babestea, unean uneko sentsibilizazio-jarduerak, GHSko proiektuak babestea, Iruñeko Udalaren beraren zuzeneko lankidetzako ekintzak, lankidetza-arloaren kudeatzea, unean uneko beste ekintza batzuk, etab.

Garapenaren aldeko lankidetzaren egungo testuingurua kontuan hartuta, Plan Zuzentzaile honek **lau urte iraungo du**. Iraupena lau urtetik gorakoa izango balitz, Planak aldaketa handiak beharko lituzke kanpoan eta barnean; horrek oinarri duen diagnostikoaren zenbait alderdi baliogabetu litzake, eta ondorioz, helburuak ere bai. Iraupena lau urtetik beherakoa izango balitz, aldiz, ezingo lirateke asmo handiko estrategiak planteatu, denbora behar dutenak garatu ahal izateko. Gainera, beste erakunde publiko batzuen plan zuzentzaileen iraupen ohikoena lau urtekoa izaten da.

Dokumentu hau **bost bloke edo zati handitan egituratu da**:

- **Lehenengo zatian**, lehenetik laugarren atalerainoko edukia dago; sarrera moduan, UGLPren aurrekariak eta jarduketak azaltzen dira bertan, Plan Zuzentzaileari orain heltzeko justifikazioa, hura prestatzeko prozesua, eta irismena.
- **Bigarren zatian**, bosgarren eta seigarren atalak daude, eta horietan Iruñeko orain arteko lankidetzaren diagnostikoa egiten da, eta lorpenak, erronkak eta beste batzuk aztertzen dira, hala barnean nola egungo testuinguruari begira. Halaber, Iruñean garapenaren aldeko lankidetzan eta hezkuntzan diharduten beste eragile batzuk identifikatzen dira, eta haietako bakoitzarekin nola egin nahi dugun lan deskribatzen da.
- **Hirugarren zatia** zazpigarren eta zortzigarren ataletan jaso da, eta hartan, Plan Zuzentzaile honen alderdi estrategiko edo pragmatikoenetan ipini da arreta; besteak beste, han bildu ditugu nahi dugun lankidetza-eredua (misioa, ikuspegia eta printzipio identifikatzaileak) eta datozen lau urteotarako finkatu ditugun ildo nagusiak eta helburu estrategikoak, aurreko zatiko diagnostikoa oinarritzat hartuta.
- **Laugarren zatia** bederatzigarrenetik hamaikagarrenerainoko atalek osatzen dute; zati horretan, Plan Zuzentzailearen alderdi zehatz, praktiko eta operatiboenak jaso dira hura benetako kudeaketa-tresna izan dadin, aurreko atalean adierazi den moduan. Hartan, zenbait gai jorratzen dira: aldez aurretik finkatutako helburu estrategikoak lehenestea; urtez urte zer jomuga zehatzetan, ekintzetan eta adierazletan ipini arreta; erabili beharreko modalitateak eta tresnak; eta UGLPk martxan jarri beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistemak, bide onetik goazela ziurtatze aldera.
- Azkenik, Plan Zuzentzaile hau osatzeko, eranskin ugari jaso ditugu amaieran; **eranskin** horietan, informazio interesgarri asko bildu da, xehetasunez eta sakon, Plan Zuzentzaile honetarako ideiak nondik atera diren ulertzeko, Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesua nolakoa izan den, nork parte hartu duen, eta zer tresna erabili diren prozesuan zehar.

Eranskin honetan argi geratu da Plan Zuzentzaile hau prestatzean partaidetza eta babesa handiak izan direla; hala eta guztiz ere, inoiz ez dago sobera hainbeste pertsonari eskerrak ematea, beren lanagatik, ekarpenengatik eta bidelagun izateagatik. GGKEak, Hegoaldeko tokian tokiko kideak, GGKE-en Koordinakundea, Nafarroako Gobernua, NUKF, UPNA, Udaleko alorrak... Haiekiko guztiekiko elkarlana oparoa eta emankorra izan da oso, baita ezinbestekoa ere. Eta sinergia horien artean, Nerea Lopeteguik eta Pedro Surjak osatutako aholkularitzako taldearen lana nabarmendu behar da; ez alferrik, haien ezagutza, trebetasuna, prestasuna eta gogo bizia tarteko, funtsezkoak izan dira Plan Zuzentzaile hau gauzatzeko.



2. UDALEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA PROGRAMA (UGLP)

2.1 AURREKARIAK, EGITURA ETA HELBURUAK[1]

Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Lankidetzako Programa (UGLP) dauka, 1996tik aurrera, behar handiena duten herrialdeetako –Hegoaldeko herrialde esaten zaien horietako– komunitateei laguntze aldera.

Urtero, kontu-sail bat bideratzen da UGLPra, eta 2018an, 1.557.526 €-koa izan da; hots, Iruñeko Udalaren hasierako **aurrekontu osoaren % 0,76**. Horrek esan nahi du lortu egin dela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, **7,66 euroko ekarpena** egin da **hiriko biztanle bakoitzeko**.

Gaur egun, Iruñeko UGLP Gizarte Ekintzako Alorraren egituran sartuta dago, eta Alorraren Zuzendaritzaren mendean zuzenean.

Orain arte, hiru profesional aritu izan dira UGLP kudeatzen: batek administrazio-lanak egiten ditu, eta beste biek zeregin teknikoak gauzatzen dituzte garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparruan.

UGLP gauzatzeko, hiru bulego egonkor daude Gizarte Ekintzako Alorraren egoitzan, Iruñeko erdigunean; izan ere, kokapen hori hurbilekoa eta irisgarria da hirian garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparruan diharduten erakundeentzat.

Gaur egun, honela zehaztuta daude UGLPren helburuak:

a. Garapenari eta nazioarteko elkartasunari laguntza emateko udal-politika garatzea.
b. Behar handiena duten herrialde eta komunitateen egoeraren berri ematea, eta horiek egoera hori gainditzeko egiten dituzten ahaleginak jakinaraztea (Garapenaren aldeko Sentsibilizazioa eta Hezkuntza Iruñean).
c. Laguntza ematea, Hegoaldeko herrialdeetan giza garapenerako programak egiteko.
d. Hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako larrialdi humanitarioko egoeretatik edo laster gertatu beharreko arrisku batetik datozen ondorioak arintzeko jarduketak sustatzea.
e. Egiten diren jarduketak ebaluatzeko lerro bat bultzatzea, programaren berariazko atal baten gisara.
f. Komunikazio eta partaidetzarako bideak sustatzea, Iruñeko Udalaren eta Iruñean garapenaren aldeko lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren esparruan, etengabean lan egiten duten GGKEen, taldeen eta erakundeen artean.

2.2 ZENBAIT MUGARRI

Horrela, kontu-sail bateratu bat finkatzea, eta Diru-laguntzetarako Deialdi bat garatzea izan ziren lehen urratsak, 1995. eta 1996. urteetan. Gerora, lehen lankidetza-hitzarmenak 1996an eta 1997an sinatu ziren; zuzeneko lankidetzako beste jarduketa batzuk egin ziren, sentsibilizazio-proiektuak 1997an finantzatu ziren, larrialdi humanitarioko jarduketei babesa eman zitzaien 1998an eta 1999an, langile espezifikoak atxiki ziren 1998an eta 2000n, Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluaren Erregelamendua 1999an onartu zen, eta martxan jarri zen 2000n. Horiek guztiak UGLPren oinarrizko edukia osatzen duten jarduketak sendotzen joan dira denboran zehar.

2003. urtean, bi berritasun egon ziren: batetik, unean uneko sentsibilizazio-jarduketetarako diru-laguntzak, era horretako proiektuak diruz laguntzeko urteko deialdiaren barnean, eta bestetik, larrialdi humanitarioetarako laguntzak finkatu izana, lan-ildo hori diruz laguntzeko urteko deialdi publikoa sortuz.

Unean uneko sentsibilizazio-jarduketek deialdi berezia osatu zuten 2006an, horrelako diru-laguntzak emateko prozedura argitze aldera. Laguntza horiek, lehenago, garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak diruz laguntzeko deialdian zeuden sartuta, haren modalitate bat bezala.

Halaber 2006. urtean, proposamen tekniko berria egin zen, zenbait urtetarako diru-laguntzen deialdi bat egiteko Hegoaldeko toki-erakundeekiko proiektuetarako. Proposamenaren xedea izan zen Hegoaldeko erakunde sozialek edo udalek bultzaturiko garapenerako proiektuak sustatzea, udal bakoitzaren garapen-planen (UGP) barruan. Deialdi hori behin betiko formalizatu, eta huraxe egitea onetsi zen 2006-2008 urteetarako, garapen-bidean zeuden herrialdeetako toki-erakundeak sendotzeko proiektuak aukeratze aldera.

Esperientzia hori 2013ra arte egin zen, urte hartan finantzatu baitziren 2011-13 deialdiko azken bi proiektuak. 2014-2016 bitartean, deialdiak aurrekoen espirituari eutsi dio; hau da, lana Hegoaldeko toki-erakundeekin egitea, UGLPen barruko proiektuak sustatzea, eta hiru urtez jarraitzeko asmoa duen lan-proposamena, baina deialdiak urtealdietan bereizita planteatuta.

2010ean, lan-ildo berri bat abiarazi zen, ebaluazioa bultzatze aldera, UGLPko jarduketei berariaz datxekien osagai gisa. Urte hartan, zenbait urtetarako proiektu baten kanpo-ebaluazioa egin zen Nikaraguan. 2011n, jarduketa-ildo horri eman zitzaion jarraipena, eta bi prestakuntza-ikastaro antolatu ziren, garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduketak ebaluatzeko metodologia erakuste aldera.

Azkenik, 2000. urteaz geroztik, Udalak Nafarroako GGKE-en Koordinakundeari (NGGKEK) babesa ematen dio herritarrak garapenerako lankidetza eta hezkuntzaren esparruan

1. Sortu zenetik gaur egun arte UGLP zer den ikusteko azterketa zehatz eta baloratua ikus daiteke 5.2 zenbakian, bai eta C eranskinean.

sentsibilizatzeko eta informazioa emateko ekintzetan; babes horri beti eutsi zaio, etenik gabe.

2.3 TRESNAK ETA MODALITATEAK

Gaur egun, UGLPko jarduketak tresna edo modalitate hauen bitartez gauzatzen dira:

a. **Garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuetarako deialdia**

Deialdiaren araubidea lehiaketa da. Martxan da 1997tik aurrera, baina hasieran garapenaren aldeko lankidetzako proiektuen deialdiaren barruan zegoen. 2001etik aurrera, ordea, beste deialdi bat da.

Hegoaldeko herrialdeen egoerari, egoera horren kausei eta egoera horretan bizi diren komunitateak egoera hori gainditzeko egiten ari diren ahaleginei buruz sentsibilizatzea eta prestakuntza ematea helburu duen deialdi bat da. Konpromiso solidarioko jarrera sustatu nahi da herritarren artean Ipar-Hego harreman bidezkoagoen eta berdintasunezkoagoen alde, oraingoekin erkatuta.

Zenbaitetan, proiektuak GGKE-en partzuergoek edo multzoek aurkezten dituzte eta ikastetxeek parte hartzen dute; horren eraginez, parte hartzen duten erakundeen kopurua nabarmen handitzen da, hala deialdian oro har nola proiektuetako bakoitzean.

b. **Unean uneko sentsibilizazio-jarduketetarako deialdia (USJ)**

Martxan da 2003tik aurrera, eta deialdiaren araubidean jarduketak banaka ebaluatzen dira. Horren bidez, GGKE-en eskariari erantzuten saiatu gara era desberdinduan eta arin; hots, laguntza eskatzea unean uneko sentsibilizazio-jarduketetarako, haien ezaugarriengatik erraz kudeatzen eta azkar ebazten baitira, eta gastu-zenbateko txikiagoa eragiten baitute.

Deialdiaren xedea aurrekoaren antzekoa da; Hegoaldeko herrialdeek bizi duten egoera, aurrez aurre izaten dituzten zailtasunak eta egoera hobetzeko egiten dituzten ahaleginak ulergarriago egiten laguntzea. Hartara, Iruñeko herritarrak sentsibilizatzea sustatzen da, eta herrietatik oraingoa baino mundu bidezkoago eta berdintasunezkoagoa lortzeko egin daitekeena nabarmentzen.

c. **Lankidetza-hitzarmena NGGKEKrekin**

Lankidetza-hitzarmen hau abian da 2001etik aurrera, eta UGLPko jarduketen ildo osagarri bat da.

Proiektua urte osokoa da, eta hauxe du helburu orokor: Iruñeko herritarrei garapenaren aldeko lankidetzara eta hezkuntzara bideratutako gaiei buruzko informazioa zabaldu, hobetu, hurbildu eta ematea; eta horrekin batera, GGKEak, elkarteak eta erakundeak hurbildu eta koordina daitezen sustatzea, eta komunikaziorako zein elkarlanerako bide eta modu berriak bilatzea.

Horra hor babesten diren jarduketak zertan dautzan, zehazki: a) *Informazio Bulegoa* mantentzea, herritarrentzat oro har, eta GGKE-ek egiten duten lanari eta garapenaren aldeko lankidetzari buruzko informazioa eta aholkuak eskatzen dituzten Iruñeko pertsona eta erakunde guztientzat; eta b) GGKEak *koordinatzea* jardueren, intereseko informazioaren eta kanpainen jarraipenaren inguruan; hartara, erabiltzen diren bitartekoak areagotzea, eta elkarrekin lan egitea dakarten jarduerak indartzea eta erraztea.

d. **Garapenaren aldeko lankidetzako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia**

Deialdia urtero ateratzen da lehiaketako araubidearen pean, eta 1996tik aurrera dago abian. Proiektuek Hegoaldeko komunitateetan giza garapena sustatzera bideraturik egon behar dute honako arlo hauetan: hezkuntza, prestakuntza, osasuna, etxebizitza, giza eskubideen defentsa, garapen ekonomikoa eta azpiegiturak. Hartara, onuragarriak izan behar dute hirietako nahiz landako komunitateentzat, eta berekin ekarri behar dute komunitate edo udalerrien eta beren ordezkarien parte-hartze aktiboa, proiektu horiek proposatu, kudeatu eta gauzatzean.

Deialdi hori UGLPko elementu nagusia da, bai Udaleko talde teknikoak izandako dedikazioari (aurreko deialdietako proiektuak jarraitzea eta martxan jartzea, eta aurtengo deialdiak ebaztea) bai bideratu zaizkion baliabide ekonomikoei begira.

e. **Diru-laguntzen deialdia, Hegoaldeko herrialdeetako toki-erakundeekin lankidetzako proiektuak gauzatzeko**

Deialdi hau ere urtero ateratzen da lehiaketako araubidean, eta martxan da 2006tik aurrera, zenbait formatutan. Horren bidez, Hegoaldeko toki-erakundeen giza garapen iraunkorraren alde egin nahi da, eta horretarako gauzatu nahi diren proiektuek herrien autogestioa eta autosufizientzia sustatu behar dituzte, baita udaletan partaidetza aktiboa izatea ere.

Lan-ildo horren helburua udal bakoitzaren garapen-planetan jasota dauden proiektuak zenbait urtetan batera finantzatzea da, azken hartzaileak Hegoaldeko toki-erakundeak izanik (udalak eta mankomunitateak). Aurkeztutako proiektuek diseinatuta egon behar dute epe ertain eta luzerako eraginak lortzeko, eta beraz, jarraitasun-programazioa izan behar dute hurrengo hiru urteetan zehar, urtebeteko fase independenteetan banagarriak. Bestalde, UGLPren bidez babestu egiten dira deialdian hautatzen diren proiektuak, udal-funtsak hiru urtetan emanez.

f. **Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Lankidetzako Toki Funtsean parte hartzea**

Iruñeko Udala lehen ediziotik atxiki izan zaio Funtsari, 1998tik aurrera. Horren bitartez, Nafarroako toki-erakunde guztiei ahaleginak batzeko aukera eman nahi zaie, garapenaren aldeko lankidetzaren esparruan egiten dituzten

ekarpenak handiagoak eta eraginkorragoak izan daitezen, batik bat toki-administrazioen eskumenetan sartu ohi diren sektoreei begira: edateko uraren hornikuntza, saneamendua, hezkuntza, lehen mailako osasun-arreta, eta herrien edo etxebizitzen oinarrizko garapen ekonomikoa.

Ildo horretan, gure Komunitateko gainerako toki-erakundeekin sarean lan egiteko ahalegina dakar, eta laguntza ekonomikoaz gain, beste jarduera batzuk egiten dira koordinatzeko, prestakuntza emateko eta tokian tokiko giza garapena bultzatzeko.

g. **Larrialdi humanitarioko jarduketetan laguntzea**

Deialdia urtero ateratzen da banakako ebaluazio-araubidearen pean, eta 1999tik aurrera dago abian. Hasiera batean, GGKE-en unean uneko eskaerei erantzuteko tresna bat izan zen. 2003tik aurrera, ordea, diru-laguntzen deialdi espezifiko bihurtu zen.

Deialdi honen helburua jarduketa humanitarioak babestea da, hondamendi naturalen edo gizakiok sortutako gatazken ondorioz larrialdi-egoeran edo horren arrisku larri eta berehalakoan dauden herriei laguntzeko, edo horiek birgaitzeko.

Aintzat harturik ere larrialdietan edo premia humanitario handien aurrean toki-erakunde batek erantzuteko gaitasuna mugatua duela, Iruñeko Udalak garrantzitsu deritzo alor honetan sortzen diren ekimenetan laguntzeari.

h. **Bultzatu diren jarduketen ebaluazioa**

Tresna hau ez da behar beste garatu, nahiz eta ekimenen bat gauzatu den. Nolanahi ere, gehiago sustatu nahi da Plan Zuzentzailea abian jartzen denetik aurrera.

Esan bezala, ebaluatzeko ekimenen bat egin da. Esate baterako, zenbait urtetarako proiektu baten[2] kanpo-ebaluazioa egin zen 2010ean, eta *garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduketak ebaluatzeko* bi lantegi egin ziren 2011n, UGLPko deialdietan parte hartu zuten GGKE-entzat.

i. **Partaidetza, informazioa eta erakundeen arteko harremanak**

Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua (GLUK) 2000. urtean jarri zen martxan, eta zinegotziek eta GGKE-etako ordezkariek osatzen dute, UGLPko zuzendariaz eta teknikariez gain. Bertan, hainbat gairi buruzko informazioa eman eta eztabaidatzen da maiztasun jakin batekin: urteko lan-planak, aurreko urteetako deialdien jarraipena, deialdien ebazpena, eta oro har, garapenaren aldeko lankidetzako udal-funtsak nora doazen.

UGLPk beretzat jotzen du laguntza- eta informazio-gune bat, lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren munduarekin lotutako informazioa eskatzen duten pertsona, talde eta GGKE-entzat. Gehienetan, informazioa eskatzen da Programako diru-laguntzen deialdiei buruz. Beste batzuetan, informazioa eskatzen da boluntariotzako ekimenak, prestakuntza eta kolaborazioak aurkezteari buruz, besteak beste; halakoetan, NGGKEKrekin batera sustatutako Informazio Bulegoarekin koordinatuta erantzuten da.

Horrez gain, zenbait erakunde edo pertsonari egindako harrerekin zerikusia duten jarduerak ere egiten dira (Hegoaldeko erakundeak, erakunde onuradunak, etab.), eta UGLPk erakundeak ordezkatzeko ekitaldietan ere parte hartu izan du.

j. **Koordinazio teknikoa**

UGLPren bidez garatu beharreko ildoen artean, planteatu izan da garapenaren aldeko lankidetzan diharduten eragileen arteko koordinazio egokia eta informazio-trukea finkatu behar direla. Hona hemen zer ildo diren horiek, besteak beste: koordinazio egokia deialdietan diru-laguntza eman zaien erakundeekin (oinarriak aurkezteko bilerak, finantzatutako proiektuak teknikoki eta ekonomikoki justifikatzeko bilerak, garapenaren aldeko sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren esparruan izandako esperientziak trukatzeko bilerak urtero, etab.), ekimenak koordinatzea NGGKEKrekin, Iruñeko Udaleko beste alor batzuekin koordinatzea, eta beharrezkoa denean, beste toki-erakunde batzuekin koordinatzea lankidetzaren harira.

k. **Beste jarduketa batzuk**

UGLPk bestelako zereginak ere baditu: jardunaldietan, biltzarretan eta lantegietan parte hartzea; garapenaren aldeko lankidetzari buruzko baliabideak gordetzen diren liburutegi txiki bat kudeatzea; udalerriko eta udalerritik kanpoko beste eragile garrantzitsu batzuekin elkarlanean aritzea; UGLP hedatzea; materialak prestatzea, memoriak barne; eta hedabideei arreta ematea.

2. Hondakinak deuseztatu eta abereak hiltzeko zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea hobetzea, Esquipulas eta Muy Muy udalerrietan (2006-2008ko finantzazioa izan zuen etan 2007-2010ean gauzatu zen).



3. ZERGATIK LANKIDETZAKO PLAN ZUZENTZAILE BAT ORAIN

Azken 20 urteotan, Iruñeko Udaleko garapenaren aldeko lankidetza sendotuz joan da eta **lan-prozesu etengabea** ekarri du, bi hamarkada horietan sortutako **testuinguruetara egokituta**. Ibilbide hori eta nazioartean gertatzen ari diren aldaketak aintzat hartuta, egokitzat jotzen da 20 urte horietan lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren esparruan **egindakoari buruzko gogoeta** egitea orain, eta **egitura, ildo estrategiko**, lan-ekintza, eta jarraipen- nahiz ebaluazio-metodologia jakin batzuen **proposamen sistematikoa, zehatza eta formala** egitea ere bai.

Zehazki, **Plan Zuzentzaile hau prestatzeak honako hau egiteko aukera eman du**:

- Datozen lau urteotan jarraitu beharreko ildoa finkatzea, garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan Udalaren ibilbide-orri eta erreferentzia-esparru izan dadin udalerriko eragile garrantzitsu guztientzat, batik bat egungo testuinguru aldakorrean, erronka asko baitakarzkio lankidetza deszentralizatuari.
- Jarraitu beharreko ildoei, helburuei eta garapenerako lankidetzako eta hezkuntzako baliabideei buruzko konpromiso politikoak biltzea eta indartzea, jarraituak eta egonkorrak izan daitezen epe ertainera.
- Ezberdin bihurtzen gaituzten UGLPko planteamendu, ikuspegi, lehentasun eta ezaugarrietan sakontzea eta horien gainean gogoeta egitea, eta abantailak eta balio erantsia dakarzkiguten alderdiak indartzea.
- Epe ertainera lortu nahi dugunarekin zerikusia duten helburu eta adierazle zehatz eta neurgarriak prestatzea; hartara, gure jarduna, eraginkortasuna eta inpaktua ebaluatu ahal izango ditugu aurrerago, eta beharrezkoak ditugun gardentasuna eta kontuak ematea bermatu.
- Kontuan hartuta Plan Zuzentzaile honek nolako ikuspegi praktiko eta operatiboa duen, kudeaketako eta barne-plangintzako egiazko tresna tekniko izatea nahi dugu, eta nahi genuke UGLPko langileei laguntzea urte bakoitzean finkatutako jomugak antolatzen, egituratzen, bultzatzen eta horien jarraipena egiten.
- Plan Zuzentzailearen bitartez, Iruñeko Udalak garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparruan egiten duen lana jakitera eman daiteke argi, gardentasunez eta modu sistematikoan, hala Udaletik kanpo (herritarrak, GGKEak, etab.) nola Udalaren barruan (gainerako alorrak).
- Amaitzeko, Plan Zuzentzaile hau parte hartzeko ikuspegiarekin prestatu denez, uste dugu mesedegarria izango dela Iruñeko GGKE-ek Plana bera eta garapenerako lankidetzako eta hezkuntzako politikak bere egiteko.



4. NOLA PRESTATU DUGU PLAN ZUZENTZAILE HAU

Plan Zuzentzaile hau UGLPk duen lehena da, martxan jarri zenetik duela 20 urte baino gehiago. Horrexegatik erabaki genuen **Plana egiteko metodologia** arretaz prestatzea, **partaidetza handikoa** izatea nahi baikenuen, eta ziurtatu dugu tresna egokiak erabiltzen direla diagnostikoa egiteko eta helburuak zehazteko. Horretarako, plangintzan aditua den kanpoko talde batek parte hartu du; prozesu osoan zehar gidatu gaitu, eta Plan Zuzentzaile honetan ideia baliotsuekin lagundu diguten talde guztien ekarpenak koordinatu eta dinamizatu ditu.

Zehazki, UGLPko taldeaz gain, bistakoa denez, honako hauek ere **Plana prestatzeko fase guztietan parte hartu dute zuzenean**: Iruñeko GGKEak, NGGKEK, Hegoaldeko tokian tokiko kideak, Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua (GLUK), Iruñeko Udaleko beste alor batzuk, NGGKEKren Informazio Bulegoa, Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzua, plataforma sozialak (adibidez, Iruñea Harrera Hiria eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea), sektore akademikoa (esate baterako, Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Garapenaren aldeko Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsa, eta lankidetzako plan zuzentzaileak aspalditik dituzten beste udal-erakunde batzuk.

Informazioa biltzeko, **iturri kuantitatiboak** eta **kualitatiboak erabili dira**. Horra hor kuantitatiboak zein izan diren: UGLPko erregistroak, estatistikak, inkesta masiboak, iturri dokumentalak... Eta kualitatiboak: funtsean, elkarrizketa erdi-egituratuak eta taldeekin eztabaidan aritzeko lantegiak; adibidez, NGGKEKrekin.

Iruñeko Udalaren Lankidetzaren I. Plan Zuzentzaile hau prestatzeko prozesua **bost fasetan antolatu da**. Jarraian deskribatuko dira, bakoitzaren mugarri eta emaitza nagusiekin batera:

PRESTATZEKO FASEA

Fase honetan, prozesua, ikuspegia, metodologia, irismena eta lan egiteko tresnak definitu ziren, kanpoko taldearekin batera. Orobat, barnean (UGLPn) eta kanpoan eskuragarri zegoen informazio guztia bildu zen, eta Plana egiteko prozesuan parte hartu behar zuten edo kontsulta egin behar zitzaien pertsona edo talde guztiak identifikatu ziren. Batzorde bat eratu zen Plan Zuzentzailea prestatzeko lanak koordinatzeko eta jarraipena egiteko, UGLPko zenbait teknikarik eta kanpoko laguntza-taldeko kide batzuek osatuta. Azkenik, prozesua, faseak eta metodologia NGGKEKri aurkeztu zitzaizkion, GGKE-en ordezkaria den aldetik.

KABINETE- ETA DISEINU-FASEA

Fase honetan, UGLPn eskuragarri zegoen informazio historiko guztia (estatistikak, oinarriak, deialdiak, materialak, ebaluazioak, etab.) xehe aztertu eta sistematizatu zen, baita beste arlo batzuetako jarduketa-esparruak ere: garapenerako lankidetza eta hezkuntza, lankidetza deszentralizatua, lankidetzaren beste plan zuzentzaile batzuen ereduak... Halaber, diagnostikoa egiteko bideratu behar zen prozesuko tresnak ere definitu ziren: galdetegiak GGKE-ei eta beren kideei, NGGKEKrekin egin beharreko lantegien dinamikak, eta beste eragile garrantzitsu batzuei egin beharreko elkarrizketa erdi-egituratuen gidoiak. Horren guztiaren emaitza aurretiko hipotesien atariko lehen txostena izan zen; hala, gure asmoa zen hipotesi horiek berrestea edo gezurtatzea diagnostikoaren fasean.

PARTAIDETZA-DIAGNOSTIKOAREN FASEA

Fase hau Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesu osoko benetako giltza izan zen, ezbairik gabe, eta horrexegatik, hartan eman behar izan genuen denbora luzeena. Jardun nagusia izan zen lehen fasean identifikatutako eragile garrantzitsuek emandako informazioa biltzea zuzenean, batik bat UGLPri buruz zuten iritziaren, ahulguneen, indarguneen eta etorkizuneko ildo estrategikoen harira.

Zehatz-mehatz, inkesta masiboa Iruñeko GGKE-ei eta haien tokian tokiko kideei egin zitzaien online. Azkenean, oso tresna garrantzitsua izan zen diagnostikoa egiteko, adierazitako iritziak kalitate handikoak eta sakon-sakonak izan zirelako, eta partaidetza ere handia izan zelako. Galdetegiari erantzuteko gonbidapena Iruñeko 71 GGKEri helarazi zitzaien, eta horietatik 52k erantzun zuten (% 73), oso ehuneko handia horrelako inkestetako ohiko estandarrekin alderatuta. Horrek agerian ipintzen du GGKE-ek zenbaterainoko konpromisoa, inplikazioa eta motibazioa erakutsi zituzten prozesuan. Tokian tokiko kideen harira (Iruñeko GGKE-en bidez, elkarlanean aritzen baitira sarritan), gonbidapena horietako 20ri bidali zitzaien, eta 10ek erantzun zuten (% 50).

Bestalde, lantegi bat egin zen NGGKEKrekin, prozesua GLUKen aurkeztu zen, eta elkarrizketak egin ziren aurretiaz identifikatutako intereseko talde guztien ordezkari diren 14 eragile garrantzitsurekin. Jarduera guztien laburpena jasotzeko fitxak prestatu ziren, eta horietan, Plan Zuzentzailea gerora prestatzeko garrantzitsuen suertatu ziren alderdiak adierazi ziren.

Fase honetako azken jarduera eztabaida-lantegi bat izan zen, eta UGLPko langileek eta kanpoko laguntza-taldeak parte hartu zuten. Lantegiaren helburua inkestak, elkarrizketak eta lantegiak direla-eta sortutako ideia nagusiak adieraztea izan zen, eta geroko Plan Zuzentzailearen oinarri nagusiak (ildo eta helburu estrategikoak) definitzen saiatzea.

ZIRRIBORROAK IDAZTEKO ETA EZTABAIDATZEKO FASEA

Fase honetan, Plan Zuzentzailearen lehen zirriborroa idatzi zen diagnostikoaren fasean bildutako informazio guztia oinarri hartuta, baita UGLPrekin eginiko lantegian eztabaidatutako atariko ideiak ere. Zirriborroa UGLP barruan eztabaidatu zen, eta gero, diagnostikoaren fasean kontsulta egindako eragile garrantzitsuei helarazi zitzaien.

Zehazki, lehen zirriborroa NGGKEKri eta Udaleko beste alor batzuei helarazi zitzaien, eta GLUKen aurkeztu zen. Horiek guztiek ekarpenak, iradokizunak eta iruzkinak egin ahal izan zituzten dokumentuaren gainean, eta lehen zirriborroaren kalitatea nabarmen hobetzen lagundu zuten.

Ekarpen horiek guztiak aztertu ostean, Plan Zuzentzailearen behin betiko zirriborroa idatzi zen, eta hori ere eragile garrantzitsu guztiei bidali zitzaien ontzat eman zezaten.

ONARTZEKO ETA HEDATZEKO FASEA

Plan Zuzentzailearen behin betiko testua GLUKen aurkeztu zen; ondoren, euskarara itzuli zen, eta Udalaren Osoko Bilkurak izapidetu eta onartu zuen era formalean.

Plan Zuzentzailea era formalean onartu ondoren, Iruñeko GGKE-en artean hedatzeko prozesuari ekin zitzaion, Udalaren web-orriaren bidez, UGLPk horretarako propio egindako jardueren bidez eta NGGKEKren bidez. Era berean, Udaleko gainerako alorren artean ere hedatzeko kanpaina abiarazi zen, eta dokumentua zuzenean helarazi zitzaien. Horretarako, laburpen txiki bat prestatu zen triptiko moduan, oso bisuala, aukera ematen duena Planaren orientabide eta ildo estrategiko nagusiak begiratu batean ulertzeko. Amaitzeko, zenbait jarduera egin ziren Planaren berri emateko eta hura era masiboan hedatzeko herritarren artean, tokiko hedabideen bitartez (prentsa idatzia, irratia eta Internet).

Deskribatu berri den prozesu osoak zortzi hilabete iraun zuen (2017ko ekainetik 2018ko urtarrilera bitarte), sekuentzia honi jarraituz:

SEKUENTZIA

FASEA / Mugarri nagusiak	Eka. 2017	Uzt. 2017	Abu. 2017	Ira. 2017	Urr. 2017	Aza. 2017	Abe. 2017	Urt. 2018
1. FASEA. Prestatzea	■							
2. FASEA. Kabinetea eta diseinua		■						
3. FASEA. Partaidetza-diagnostikoa				■	■	■		
4. FASEA. Zirriborroak eta eztabaida						■	■	
5. FASEA. Behin betikoa eta hedatzea								■



5. NONDIK ATERA DITUGU PLAN HONETARAKO IDEIAK

5.1 ZER GERTATZEN ARI DA GURE INGURUAN[3]

5.1.1 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK (GIH)

Milurtekoko Garapen Helburuekin (MGH) jarraitzeko, nazioarteak (NBEko estatu-kideak) garapen iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen 2015ean. Hartan, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu (GIH) edo Munduko Helburu esaten zaienak jaso dira[4].

GIHak erdiesteko, udalerrietan jardun behar da ezinbestez, hori baita herritarrak bizi diren eremua, eta hantxe eragiten baitie zuzenean pobreziak eta iraunkortasun txikia duen hazkuntzak; orobat, hantxe abiarazi behar dira horri guztiari aurre egiteko neurriak. Gainera, udalerriak oso aproposak dira herritarrek modu aktiboan parte hartzeko eta GIHen garapenaren protagonista izateko; aproposak dira, halaber, baliabideak eta inbertsioak ohi baino era bidezkoagoan banatzeko, eta hainbat eragile elkarlanean aritzeko, Garapenerako Agenda *lokalizatze* aldera.

Bestalde, pertsona askok uste dute GIHak aukera paregabea direla **ohituraz garapenaren aldeko lankidetzaren esku utzi den jarduna zeharkako bilakatzeko**, udalerrietan behintzat. Hartara, sustatu egiten dute politikak koherenteak izatea eta erakunde publiko deszentralizatuetako alor eta sail guztiek harremana izatea, GIHetan bildutako jomugak betetzeko.

Haatik, badira kritiko direnak ere, hala GIHen definizioari berari begira (oso orokorrak omen dira, lausoak eta ez-lotesleak, MGHak bezala) nola, batez ere, GIHak **zeharkako bilakatzea benetan bideragarria eta eraginkorra** izateari begira, horiek garatu behar dituzten erakunde publikoetako gobernu-alor guztietan (politikak koherenteak izatea), epe laburrean bidenabar. Egiaz, zenbaitek uste dute lankidetzako eragileei (publikoak nahiz pribatuak) esleitu ohi zaizkien zereginak, politikak eta helburuak gehiegi deszentralizatzeak eta eskuordetzeak, teorian garrantzitsua den arren, horiek ahultzea ekar dezaketela, beste eragile batzuek ez baitituzte beharrezkoak diren baliabideak, ezagutzak eta gaitasunak, oraingoz behintzat.

5.1.2 LAGUNTZAREN ERAGINKORTASUNA ETA LANKIDETZA DESZENTRALIZATUA

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetza-sistema esparru bat da, zeinaren barruan eragile ugari baitaude maila guztietan: munduan, eskualdeetan, estatuetan eta herrietan. Esparru horretan, **eragile horien guztien arteko koordinazioak** egokia izan behar du eta haiek elkarren osagarri izan behar dute laguntza eraginkorra izan dadin; hori gauzatzeko, lana behar bezala banatu behar da, eta dohaintza-emaile bakoitzaren kontzentrazio geografikoa eta sektoriala indartu. Gure inguruan, Europar Batasunak (EB) bere gain hartu du prozesu horren lidergoa, batik bat Parisko (2005), Akkrako (2008) eta Busango (2011) adierazpenen ostean.

Toki-erakundeek prozesu horren berri eman behar dute, besteen aldean dituzten abantailak baliatzen saiatu, eta ez bikoiztu beste eragile batzuen ahalegin eta jarduketak, herrietan, estatuetan eta munduan zehar. Horren ondorioz, toki-erakunde askok beren lehentasun geografiko eta sektorialak indartu dituzte; hartara, erabaki dute baliabideak eta horien jomuga diren proiektuak herrialde- eta gai-kopuru mugatu batean kontzentratzea. Toki-erakundeek laguntzaren eraginkortasunaren agenda beren gain hartu dutenez gero, badira zuzeneko beste ondorio batzuk; esate baterako, beste eragileekin koordinatzeko eta elkarren osagarri izateko mekanismoak indartzea, batik bat herrietan, eta **babestutako esku-hartzeak ebaluatzea**, eraginkortasuna eta inpaktua bermatze aldera.

Hala ere, badago beste joera bat; alegia, ea kontzentrazio geografiko eta sektoriala modurik onena ote den lankidetza deszentralizatuko erakundeen abantailak baliatzeko eta eraginkortasuna nahiz inpaktua areagotzeko, herrietako esku-hartzeetan. Izan ere, batzuek iradokitzen dute abantaila eta elkarren osagarri izate horiek tokian tokiko ehun soziala babestea dakartela batik bat, eta horrenbestez, tokian tokiko GGKEak finantzatzeko aukera gehiago beharko lirateke, eskuarki ezin dituztelako eskuratu eskakizun zorrotzagoak eta lehentasun geografiko edo sektorial zurrunagoak dituzten beste dohaintza-emaile batzuen funtsak.

Gainera, horiek diotenez, herrialdeak estatuen arabera lehenesten badira Giza Garapeneko Indizea (GGI) oinarri hartuta, baliteke inekitate larriak egotea herrietan (adibidez, gerta daiteke GGI ertain-altua duen herrialde batean muturreko pobrezia egotea lurraldeko toki jakin batzuetan). Horiei berdin-berdin heldu behar zaie eta babesa eman; hain zuzen ere, estatu bakoitzeko GGI alde batera utzita, herrietako pobrezia da erakunde deszentralizatuen lan-eremu naturala.

5.1.3 LA DUELA GUTXIKO KRISI EKONOMIKO GLOBALA ETA HORREN ONDORIOAK

Lankidetza deszentralizatuak zuzenean pairatu du duela gutxiko krisi ekonomiko eta finantzario globalaren inpaktu negatiboa. Baiki, toki-erakundeek lankidetzara bideratzen zituzten zenbatekoak nabarmen murriztu dira azken urteotan,

3. Testuinguruari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo eranskinetan jasotako bibliografiara.

4. GIHei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo hona: www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/

eta gertatu izan da erakunde deszentralizatuek garapenerako lankidetza eta hezkuntzara bideratutako aurrekontua ia-ia desagertzea. Testuinguru horretan, Iruñeko Udala nabarmendu da Hegoaldearekin duen konpromisoari eustea erabaki duelako, eta horrek frogatzen du mundu garaikidearen egiturazko arazoen gainean duen ikuspegiak epe luzeagorako jotzen duela eta globalizatuagoa dela.

Aurrekontuak murrizteaz gain, azken urteotako benetako arazoa da (nahiz eta krisi ekonomikoa piztu aurretik ere bazegoen) zenbait ahots kritikok zalantzan jarri dutela lankidetza deszentralizatuak existitu behar ote duen; aitzakia moduan diote aurrekontuak murritzak direla, eraginkortasunari eta inpaktuari begiratu behar zaiela, eta gero eta modu globalagoan jardun behar dugula erronka globalei heltzeko.

Haatik, nazioarteko eragile gehienek uste dute lankidetza deszentralizatua, tokiko eragileen bidezkoa (Iparraldekoak eta Hegoaldekoak), indarraldi bete-betean dagoen estrategia bat dela. Horixe adierazi du Europar Batasunak zenbait aldiz 2008tik hona[5]. Are gehiago, gaur egun **lankidetza deszentralizatua indartzen ari da** nolabait, eta horren arabera, helburua da lankidetza deszentralizatuak dituen abantailei ahalik eta etekin handiena ateratzea herrietatik abiatuta, garapen iraunkorra sortzeko eta ehun soziala indartzeko, hala Iparraldean nola Hegoaldean. Hona hemen abantaila horietako batzuk:

- Herritarrengandik gertu egotea.
- Hegoaldeko toki-erakundeen interes, ikuspegi eta planteamendu berdinak izatea; horrek *parekoen arteko* harremanak izateko aukera ematen du.
- Sortzen dituzten gardentasun eta konfiantza handiagoak, goragoko mailetan zenbaitetan ikusten diren interes politiko-ekonomikoen zamarik gabe.
- Toki-erakundeek beren garapenaren alderdietan duten eskarmentua, haien ohiko eskumenak dira eta (hirigintza, hezkuntza, gizarteratzea, asiloa, segurtasuna, ura eta saneamendua, etab.).

Krisi ekonomikoak migrazio-ereduei ere eragin die. Iparraldean laguntza sozialek behera egin zutenez eta merkatuetako lan-itxaropenak txikiagoak zirenez, Hegoaldetik Iparralderainoko migrazio-fluxuak ere nabarmen murriztu dira. Iruñean, zehazki, atzerritarrak diren herritarren ehunekoa % 11,5ekoa zen 2018ko hasieran, eta horrek 2011tik gaurdaino gertatutako beherakada berresten du, orduan % 17,4 ziren eta.

5.1.4 HEZKUNTZA, HERRITAR GLOBALEN SORTZAILE

Aurreko atalean adierazi da lankidetza deszentralizatuak badituela hainbat abantaila beste eredu batzuen aldean, eta horien artean aipatzekoa da toki-erakundeak herritar globalak sortzeko gai direla, garapen iraunkorrarekin konprometituak eta arduratsuak bai Iparraldean bai Hegoaldean, garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez (GHS).

Ildo horretan, GHSren gaineko ikuspegia aldatu egin da: lehen, Hegoaldean garapenaren alde egin ohi ziren lankidetzako proiektuei laguntzeko tresna bat **baino** ez zen (edota GGKEek dirua biltzeko tresna bat ere bai); orain, ordea, GHSren ikuspegia (edo zenbaiten arabera, herritartasun globalerako hezkuntza) **ardatz nagusi eta garapenerako estrategien zati oso bihurtu da**, hala erakunde deszentralizatuen nola GGKEen aldetik. Berriz ere, toki-erakundeek badituzte hainbat abantaila GHSko ekimenak babesteko: herritarrengandik gertu egotea, hezkuntza-arloan eskarmentua izatea, espazio publikoak erabili ahal izatea, eta oinarrizko plataformak zein mugimendu sozialak egotea.

GHSren ikuspegi berri hori dohaintza-emaileek eta plataformek modu irekian aitortu dute; esate baterako, Europar Batasunak[6] eta DAREk (CONCORD GGKE-en Europako federazioa da, eta DARE GHSri buruzko CONCORDeko foro espezifikoa da). Erakunde horiek eta beste batzuek berariaz defendatu dute toki-erakundeek oso zeregin garrantzitsua dutela eta erakunde deszentralizatuek politika eta estrategia espezifikoak prestatu behar dituztela; horrenbestez, toki-funts gehiago bideratu dira horretara.

5.1.5 GENEROAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Azken urteotan, aurrerapauso handiak eman dira munduan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari begira. Hala ere, oraindik badira inekitateak ia sektore guztietan, bereziki Hegoaldeko garapenarekin zuzeneko lotura dutenetan: osasuna, hezkuntza, eskubide sozial eta politikoak, lanbaldintzak, komunitateko kontuetan parte hartzea, indarkeria matxista, etab.

Munduan, genero-ekitateari eta emakumeen eskubideei zein ahalduntzeari begira, Pekingo gailurrean (1995) finkatutako printzipioak eta konpromisoak 2015ean berrikusi eta eguneratu ziren, Beijing+20 delakoan; hartan, ekimen hau onartu zen: "2030ean mundua 50-50 izan dadin: Eman

5. EBko komunikazioak: 2008an (Autoridades locales: agentes de desarrollo), 2011n (Incremento de la política de desarrollo: Programa para el Cambio), eta 2013an (Capacitación de autoridades locales en países socios); Carta Europea de la Cooperación en Apoyo a la Gobernanza Local (2008).

6. Europako Batzordeak garapenerako hezkuntzari eta sentsibilizazioari buruz 2012/12/20an kaleratutako komunikazioa.

dezagun genero-berdintasunerako urratsa". Funtsean, erabaki zuten konpromiso politikoa berritzea, gai horri buruzko eztabaida eta sentsibilizazio soziala suspertzea, ebidentzietan oinarritutako ikasketak hedatzea, eta aurreko guztia egiteko eskura dauden baliabideak areagotzea.

Gurera etorrita, Iruñeko Udala duela zenbait urte hasi zen berdintasunerako planak abian jartzen. Horietatik berriena Berdintasunerako Iruñeko III. Plana (2016-2019) da, 2015ean sortutako Berdintasun eta LGTBIQko Alorraren eskutik sortua, hiri horretan dauden gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei heltzeko eta alderantzikatzeko, azterketa eta ekintza feministatik abiatuta.

5.2 ZER DIOTE GURE ESTATISTIKEK EDO ERREGISTROEK[7]

Jarraian adieraziko den analisia egiteko, UGLPko estatistikak, erregistroak eta memoriak erabili dira oinarri moduan, 1996an abian jarri zenetik gaurdaino.

5.2.1 UGLP-REN BABESARI BURUZKO ZENBAIT DATU OROKOR

Garapenaren aldeko lankidetzako Iruñeko Udaleko aurrekontuak gora egin zuen etengabe 1996tik 2008ra bitarte (urte horretan, ia 2,5 milioi euro izan ziren). Ordutik aurrera, behera egin zuen 2016ra arte, orduan gora egiteko joera berreskuratu zuen eta, lehenbizikoz. Edonola ere, lankidetzara bideratutako aurrekontuaren zenbatekoa alde batera utzita, Udalak bideratutako funtsen ehunekoa **beti izan da aurrekontu osoaren % 0,7 inguru**, eta ehuneko hori ere gainditu izan zen 2004tik 2012ra arteko aldian.

Gutxi gorabehera, UGLPk babesa eman die lankidetzako urteko deialdietara aurkeztutako 10 proiektutatik seiri (% 61), eta denboran zehar, joera gero eta proiektu gehiago babestea izan da (lehen urteetan, % 50etik behera, eta azken deialdietan, % 65-70).

GGKE-ei begira, lankidetzako urteko deialdietan eskaera egin duten 10 erakundetatik zazpik (% 70) UGLPren babesa izan dute. Kasu honetan, joera ez da argia, aldaketak gertatu dira urterik urte (adibidez, % 56 1997an, eta % 87 2001ean).

GHSko urteko deialdietara aurkeztu diren 10 proiektutatik zazpik baino gehiagok (% 72) UGLPren babesa izan dute. Proportzio hori egonkor samarra izan da denboran zehar, eta lankidetzako proiektuena baino ehuneko nabarmen handiagoa da.

GGKE-en harira, GHSko urteko deialdietan laguntzak eskatu dituzten lau erakundetatik hiruk (% 74) diru-laguntza jaso dute; dena den, gertatu izan da 10 erakunde eskatzailetatik bederatziri baino gehiagori ematea babesa, 2015ean bezala. Berriro ere, GHSko deialdietan babesa ematen zaien erakundeen proportzioa handiagoa da lankidetzako deialdietan baino.

UGLPk babesa ematen dien lankidetzako proiektuen artean, bakoitzak jasotzen duen batez besteko diru-laguntza bikoiztu egin da: 1996an, 15.000 € inguru ziren, eta 2015ean, berriz, ia 30.000 €. Neurri handi batean, horrek islatzen du Iruñeko GGKEak gero eta ahalegin handiagoa egiten ari direla proiektu sakonagoak, garapen handikoak eta konplexuak gauzatzeko, eta beraz, hasieran laguntzeko egiten zituzten unean uneko ekintzak baino harago joan dira. Alabaina, arrazoi tekniko horiez gain, badirudi UGLPn urteko deialdietara bideratzen diren aurrekontuek ere baldintzatu egiten dutela proiektu bakoitzeko onartzen diren funtsen batez besteko munta; hala, gailurra 2007tik 2010era arteko aldian jo zen (ia 40.000 € proiektuko), deialdiek inoiz baino funts gehiago izan zituztenean.

Bestalde, zenbait urtetarako lankidetzako proiektuen deialdia (gerora, tokian tokiko garapenerako proiektuak Hegoaldeko toki-erakundeekin) 2006an abiarazi zen, eta horren barruan, proiektu bakoitzerako batez besteko funtsak handiagoak ziren besteetan baino (60.000 €/urte, gutxi gorabehera), deialdi horretan planteatu ziren ekimenek irismen eta inpaktu handiagoak zituzten eta.

GHSko proiektu bakoitzak jasotzen duen batez besteko diru-laguntzari begira, konstante samarra izan da urteetan zehar, eta 3.000-5.000 € ingurukoa izan da ekintzako; berriro, zenbatekoak 6.000 €-koak eta handiagoak ere izan ziren 2006-2008 aldian, GHSrako Udaleko kontu-sailak ohi baino handiagoak izan baitziren orduan.

Unean uneko sentsibilizazio-jardueren (USJ) batez besteko zenbatekoa (1.000 € inguru ekintza bakoitzeko) txikiagoa izan zen GHSko proiektuena baino, eta hori koherentea da, jarduera horien irismena eta konplexutasuna txikiagoak baitira.

5.2.2 BANAKETA GEOGRAFIKOA

Begiratzen badiegu 1996tik 2016ra bitarte eman diren diru-laguntzen zenbatekoei, GGI txikieneko Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako herrialdeak dira (Peru, El Salvador, Nikaragua, Guatemala, Kolonbia, Bolivia eta Ekuador) gehien jaso dutenak. Diruz lagundu zaien GGKE kopurua aztertuz gero, ikusten da emaitzak antzekoak direla baina aldaketa txikiak daudela (El Salvador gehien jasotzen zuen bigarrena zen, eta gero zortzigarrena; Bolivia, aldiz, seigarrena zen hasieran, eta gero, bigarrena).

Zenbateko handiena jasotzen duten 10 herrialdeen artean, Kongo (DR) da Latinoamerikakoa ez den herrialde bakarra,

7. Alderdi bakoitzari buruzko informazio xehea jaso da C eranskinean.

hala diruz lagundutako funtsei nola babestutako GGKE kopuruari begira. Halaber, Palestinar Lurralde Okupatuak, India, Ghana, Ruanda, Uganda, Brasil, saharar kanpamenduak, Boli Kosta, Kamerun eta Angola ere nabarmentzekoak dira Latinoamerikakoak ez diren herrialdeen artean, bai diru-laguntzen zenbatekoagatik bai babestutako GGKE kopuruagatik.

Bestalde, UGLPk 1996-2016 aldian babestutako proiektuen banaketa geografikoa aztertzen bada, ikusten da banaketa ia antzekoa dela hiru eskualde handiren artean, herenetan banatuta: 1) Hego Amerika (beste biek baino babes zertxobait handiagoa jasotzen du, % 37, nahiz eta proportzioa pixka bat murriztu den azken urteotan); 2) Mexiko, Erdialdeko Amerika eta Karibea (% 30); eta 3) Afrika (% 28, baina azken urteotan joera gorantz doa, % 42 izan baitzen 2016an). Aitzitik, Asian (eskuarki, India eta Filipinak soilik), Ekialde Ertainean (Palestinar Lurralde Okupatuak soilik, eta azken urteotan, Irak, Jordania eta Siria) eta beste eskualde batzuetan (Europa, adibidez) egiten diren proiektuen babesa sinbolikoa da, guztien % 5 eskasa baita.

5.2.3 BANAKETA SEKTORIALA

UGLPk babestu ohi dituen jarduketa-sektoreei begira, onartutako proiektu-kopuruaren arabera, argi nabarmentzen da **oinarrizko premiei erantzuteko beharra** (funtsean, hezkuntza eta osasuna, biztanleria eta ugalketa-osasuna barne, CADeko 11., 12. eta 13. epigrafeak, horietan baitaude jasota diruz lagundutako proiektuen % 40, gutxi gorabehera). Horiez gain, aipatzekoak dira urarekin eta saneamenduarekin lotutako proiektuak (CADeko 14. epigrafea), elikaduran laguntzearekin lotutakoak, eta beste zerbitzu eta azpiegitura sozial batzuk (CADeko 16. epigrafea), guztien % 20 dira eta.

Oinarrizko beharrei erantzuteaz gain, produkzioarekin eta garapen ekonomikoarekin lotutako proiektuak ere badaude, nahiz eta ez duten horrenbesteko pisua. Aipatu proiektuetan, sektore hauetan egiten da lan, batik bat: nekazaritza (CADeko 31. epigrafea, % 8), landa-garapen osoa (CADeko 43. epigrafea, % 7), eta besteak baino neurri txikiagoan, industria (CADeko 32. kodea), energia (CADeko 23. kodea) eta komunikazioak (CADeko 22. kodea); azken horiek kopuru osoaren % 3,5 besterik ez da.

Amaitzeko, UGLPk beste bi sektoreri eman die babesa, besteak baino zeharkakotasun handiagokoak direnak baina garapenaren aldeko lankidetzan garrantzitsuak direnak: gizarte zibila indartzea (CADeko 15. eta 92. sektorea, gobernantza, giza eskubideak eta GKE-en babesa), onartutako proiektu guztien % 13 dena; eta emakumea eta garapena (CADeko 42. sektorea), proiektuen % 8 dena. Zeharkakoak diren beste sektore batzuk, bereziki ingurumenarekin zuzenean lotutako proiektu espezifikoak (CADeko 41. kodea) kopuru osoaren % 0,3 baino ez dira; nolanahi ere, sarritan, ingurumenarekin lotutako alderdiak txertatu dira beste sektore batzuetara bideratutako proiektuetan.

5.2.4 BANAKETA, TRESNEN EDO MODALITATEEN ARABERA

UGLPko aurrekontuaren zatirik handiena (% 70 inguru) udalerriko GGKE-ek aurkeztutako lankidetzako proiektuak diruz laguntzera bideratu ohi da. Salbuespen moduan, Udalaren eta beste erakunde batzuen (eskuarki, GGKEak eta Hegoaldeko udalak) arteko zuzeneko lankidetzako hitzarmenetan diru-kopuru handi samarra bideratu zen 1998tik 2000ra, eta ondorioz, proiektuetarako diru-laguntzen pisua % 50-60ra murriztu zen. Aitzitik, 2011tik aurrera, zuzeneko lankidetzarako udal-hitzarmenek oso pisu txikia izan dute lankidetzako aurrekontuetan.

GHSko proiektu eta ekintzetarako diru-laguntzen joera egonkor samarra izan da, % 6-8koa, eta pixka bat egin zuen behera krisiaren garaian, 2009-2011 aldian. GHSrako zuzeneko hitzarmenak ere erregular samarrak izan dira, aurrekontu osoaren % 2koak, gutxi gorabehera, eta NGGKEKren bitartez bideratu dira, nagusiki.

Larrialdietarako eta gizaldeko laguntza aurrekontu osoaren % 5-6 izan da, egonkor samarra.

Iruñeko Udalak UGLPko aurrekontuaren % 3 inguruko ekarpenak egin dizkio aldizka Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Garapenaren aldeko Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsaren esparruan batera eginiko lankidetzako ekintzetarako.

UGLPren barruan, beste jarduera batzuk ere babestu dira; besteak beste, zenbait ebaluazio eta Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailea prestatzea. Horretarako, UGLPko aurrekontuaren % 1,5 bideratu da. Kontu-sail horretara ez zen funtsik bideratu 2012tik 2015era artean.

Bukatzeko, UGLPko kudeaketa-gastuak nahiko zentzudunak izan dira: aurrekontuaren % 6-7. Dena den, zertxobait igo ziren 2012-2016 aldian, lankidetzako aurrekontu orokorrak murriztu egin zirelako (logikoa denez, kudeaketa-gastuak ez ziren aldatu, ordea).

5.3 ZER ESATEN DIGUTE IRUÑEKO GGKE-EK[8]

5.3.1 ZERGATIK DA GARRANTZITSUA PLAN ZUZENTZAILEA EDUKITZEA

Kontsulta egin zaien GGKE-en ustez, **gaur egun oso garrantzitsua da Garapenaren aldeko Lankidetzaren I. Plan**

8. Iruñeko GGKE-ei bidalitako inkesta masiboaren emaitzei buruzko informazio xehea jaso da E eranskinean.

Zuzentzailea izatea Iruñeko Udalean, eta horregatik, txalotu egin dute Plan Zuzentzailea prestatzeko ekimena. Zehazki, inkesta bete duten erakundeen % 83k garrantzitsutzat edo oso garrantzitsutzat jo du Plana prestatzea. Horra hor zergatik, GGKE-en arabera:

- Jarduteko ildo edo esparru argiak edukitzeko beharra
- Arlo politikoan, garapenerako lankidetzarekiko eta hezkuntzarekiko konpromisoa indartzea
- Aldaketak gertatzen ari diren testuinguru honetan, planteamenduetan eta ikuspegietan sakontzea, eta lankidetza deszentralizatuaren erronketan ere bai
- Finkatutako helburuen geroko ebaluazioa erraztea
- GGKE-ek Plan Zuzentzailea bere egitea orain baino neurri handiagoan
- UGLPko lanaren berri emateko eta hedatzeko tresna bat izatea hala Udalean, beste alor batzuekin, nola kanpoan, herritarrekin

5.3.2 GURE JARDUNA, GURE INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

Oro har, Iruñeko GGKE-ek iritzi on samarra dute UGLPren jardunari buruz, orain arte. Hain zuzen, inkesta bete duten erakundeen % 87k ona edo oso ona dela pentsatzen dute. GGKE-en aburuz, honako hauek dira **indargune nagusiak**:

- Udal-aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara bideratzeko konpromisoa eta ahalegina, duela gutxiko krisiaren garaian ere bai.
- UGLPko talde teknikoa malgua, hurbila eta profesionala izatea, eta haiekin harremanetan jartzea erraza izatea.
- Ildoak eta tresnak argiak, gardenak eta egonkorrak izatea.
- Ikuspegia errealista eta praktikoa izatea, eta bat etortzea Iruñeko errealitatearekin eta testuinguruarekin (aurrekontua mugatua da eta GGKEak txikiak dira).
- Jarduten den herrialdeak eta sektoreak irekiak eta malguak izatea, nahiz eta enfasia oinarrizko behar sozialetan jarri
- Elkarrizketarako eta informazioa emateko zenbait espazio egotea: oinarriak aurkezteko bilerak GHSren barruan finantzatutako erakundeekin edo GLUKekin; nolanahi ere, adierazi dute batzuetan ez zaiola behar beste etekin ateratzen Kontseiluari.

Hona hemen GGKE-ek zer dioten orain arte UGLPk **erakutsitako ahulguneei** buruz:

- Proiektu bakoitzeko zenbatekoak zertxobait txikiak izatea, batez ere GHSren esparruan (hala ere, badakite Iruñeko Udalak, toki-erakunde bat izanik, nolako mugak dituen aurrekontuari begira, eta jakitun dira babesa ahalik eta erakunde gehieni eman behar zaiela).
- Deialdi batzuk ebazteko epe luzeak, administrazioko burokrazia dela eta (dena den, adierazi dute behintzat badakitela deialdiek zer data dituzten, urterik urte berberak baitira).
- Ebaluazio gutxi egitea (orain arte, bakarra egin da), eta prestakuntza zein laguntza tekniko txikia egotea GGKE-entzat eta Hegoaldeko kideentzat.
- UGLPko baliabideak eta langile-kopurua mugatua izatea; horrek balio erantsia ematea eta asmo handiagoko ekimen berriak prestatzea eragozten du.
- Epe ertainerako proiektuen aldeko apustu urria, batik bat zailtasun burokratikoak eta administratiboak direla bide.
- UGLP ez da oso ezaguna herritarren artean GGKE-en sektoretik kanpo, ezta Udalean bertan ere; ondorioz, Udaleko beste alor batzuekiko koordinazioa txikia da.

5.3.3 UGLP ZER PLAN ETA POLITIKEN BARRUAN KOKATU

Kontsulta egin zaien GGKE gehienen iritziz, Iruñeko Udaleko lankidetzako politika eskubideen aldarrikapen nagusien barruan kokatu beharko litzateke, eta **giza eskubideen ikuspegi (GEI) nabarmena** erabili. Era berean, GGKE askok uste dute Udaleko lankidetzak bat etorri beharko lukeela **berdintasunerako eta emakumeak ahalduntzeko adierazpenekin** (Berdintasunerako Iruñeko III. Plana barne), eta beraz, genero-ikuspegia indartu.

Bigarrenik, GGKE dezenteren iritziz, **GIHak** esparru unibertsal bat dira eta UGLPk aintzat hartu beharko lituzke, haietan finkatzen diren jomugak nazioartean adostu direlako nolabait; nolanahi ere, erakunde batzuek zalantzan jartzen dute ea GIHak ezinbestez bete behar diren, behar bezain zehatzak diren edo garrantzitsuak diren ere.

Hirugarrenik, besteetan baino enfasi txikiagoa jartzen bada ere, GGKE-ek beste esparru global batzuk aipatu dituzte; adibidez, hauek: a) Europako Agenda (aldaketarako agenda, laguntzaren eraginkortasuna); b) lankidetzako beste plan batzuk (esate baterako, Nafarroako Gobernuarena edo AECIDena); c) Hegoaldeko tokian tokiko garapenerako planak; d) hezkuntza eraldatzaileari buruzko esparru eta ikuspegi berriak, herritartasun globalerako bidean; eta e) bidezko merkataritzari, ekonomia solidarioari eta kontsumo arduratsuari buruzko munduko adierazpenak eta ekimenak.

5.3.4 UGLP-RAKO GARRANTZITSUAK DIREN TALDEAK ETA ERAGILEAK

GGKE-en arabera, Iruñeko Udaleko lankidetzarako sektorerik garrantzitsuena GGKE-en sektorea da. Hartara, GGKE-ek pentsatzen dute beren sektorea, NGGKEK eta GLUK direla orain baino zeregin garrantzitsuagoa izan behar duten hiru eragileak, batik bat garapenerako lankidetzako eta hezkuntzako Iruñeko Udalaren politika zehaztu eta abiarazteko, datozen urteei begira.

Bigarrenik, GGKE-ek adierazi dute Hegoaldeko toki-erakundeek eta kideek ere zeregin garrantzitsua izan beharko luketela Iruñeko Udalaren lankidetza eraikitzeko eta gauzatzeko.

Halaber, nabarmendu dute Nafarroako Gobernuaren eta Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsaren lankidetzako politikarekin koordinatu beharra dagoela eta horrekiko izaera osagarria indartu behar dela. Ildo horretan, GGKE-ek aitortzen dute horiek guztiak badirela jada elkarren osagarri neurri batean; hala da, adibidez, garapenerako hezkuntzan, Nafarroako Gobernuko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetza Zerbitzuaren eta UGLPren artean. Haatik, osagarritasun hori indartzeko eta beste modalitate batzuetara hedatzeko eskatzen dute; esate baterako, sentsibilizazioan edo Hegoaldeko lankidetzako programetan.

Iruñeko Udaleko gainerako alorren harira, GGKE-ek uste dute Gardentasuneko Alorra, Herritarren Partaidetzako Alorra eta Berdintasuneko Alorra direla datozen urteotan garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan pisu eta inplikazio handiena izan beharko lituzketen alorrak.

5.3.5 UGLP-REN PRINTZIPIOAK ETA BALIOAK

GGKE-ek uste dute honako hauek izan behar direla UGLPren etorkizuneko jardunaren printzipio nagusiak: elkartasuna, hurbiltasuna, malgutasuna, konpromisoa, koordinazioa/osagarritasuna eta gardentasuna. Ororen gainetik, UGLPk orain arte erakutsitako izaera praktiko, errealista, hurbil eta malguaren ildotik jarraitu behar dela uste dute.

5.3.6 KONTZENTRAZIO GEOGRAFIKO ETA SEKTORIALA

Ez dago adostasun argi eta aho batekoa honi buruz, baina inkesta bete duten GGKE gehienen iritzi, UGLPk **ez luke herrialde- eta sektore-kopuru mugatu batean kontzentratzeko joera izan behar**. Zehatz-mehatz, GGKE-en % 48k hori pentsatzen dute; % 37k, kontrakoa uste dute; eta % 15ek ez dute iritzi argirik. GGKE gehienek aipatu iritzia dute, funtsean, osagarri eta malgu izatearen aldeko apustuagatik, eta GGKE-en prozesuetan bidelagun izateko ikuspegiagatik, lan egiteko herrialde-kopuru mugatu bat inposatu gabe.

Horren harira, GGKE askok diote UGLPk **GGI txikiko edo oso txikiko herriei babesa emateko** joera izan beharko lukeela, nahiz eta pobrezia-multzo horiek GGI ertaineko edo ertain-altuko herrialdeetan egon. Hori bai, argitu dute ezen, kasu horietan, lankidetzak gobernantzako elementuak zein gizarte zibila indartzera jo beharko lukeela, gobernuei aberastasun nazionala hobeto banatu dezaten exijitzeko, eta ez hainbeste behar handiak dituzten herriei zuzeneko laguntza ematera bideratu.

Jarduteko sektoreei begira, GGKE-ek ikuspegi irekia eta malgua eskatzen dute; haatik, jabetzen dira UGLPk gero eta gehiago bideratu duela bere jarduna oinarrizko beharrei erantzutera, eta kontsulta egin zaien GGKE gehienek egoki deritzote ikuspegi horri.

Nolanahi ere, oinarrizko beharrez gain, zenbait GGKE-ek uste dute, beren eskarmentuari jarraituz, **UGLPk nolabaiteko balio erantsia duen sektoreak** sustatu behar direla; adibidez, berdintasuna, ingurumena, ura eta saneamendua, hondakinen kudeaketa, eta tokiko gobernantza. Haien iritziz, horrela jokatu beharko litzateke Hegoaldeko toki-erakundeekin elkarlanean gauzatzen diren zenbait urtetarako proiektuak babesten direnean.

5.3.7 HELBURU ESTRATEGIKO POSIBLEAK

Inkesta egin zaien GGKEak ados samar daude **etorkizunean GHS indartzearen garrantziari buruz**, UGLPren **elementu bereizgarria eta abantaila den aldetik**. Horren harira, zenbait GGKE-ek eztabaida interesgarria planteatu dute GHS mugimendu *sozialekin* lantzearen garrantziari buruz, ez soilik mugimendu *sozialentzat*; hartara, kontua da mugimendu horiek jada garatzen ari diren ekimenak ez bikoiztea.

Edonola ere, denek uste dute garapenerako hezkuntza sustatzeko ekintzek orain baino ibilbide luzeagoa izan behar dutela Iruñean; esate baterako, GGKE-ek planteatu dute Hegoaldean egiten diren zenbait urtetarako proiektuen tresnaren antzekoa erabiltzea. GGKE-en iritziz, garapenerako hezkuntzako zenbait urtetarako ekintza horietan partzuergoak sustatu beharko lirateke, hala GGKE-en artekoak nola GGKE-en eta mugimendu sozialen nahiz Hegoaldeko erakundeen artekoak.

Ildo estrategiko nagusi horrezaz landa, **GGKE-ek beste helburu batzuk planteatu dituzte**. Horra batzuk:

- Iruñeko Udalak lankidetzara bideratzen dituen funtsak mantentzea, edo pixkanaka handitzea hurrengo urteetan; eta UGLPko baliabideak, trebakuntza eta langile-kopurua hobetzea, bere zereginei heltzeko.
- Ekintzak orain baino epe luzeagorako bultzatzea, eta inpaktua, kalitatea eta ikasketa hobetzea.
- Beste eragile batzuekiko koordinazioa hobetzea, eta hartara, elkarren osagarri izatea eta politikak koherenteak izatea.
- Gardentasunaren alde egiten jarraitzea, eta beraz, izapideak sinplifikatzea eta egungo tresnak eta modalitateak berrikustea, are eraginkorragoak izateko eta Iruñeko GGKE-en beharretara eta testuingurura are gehiago egokitzeko.
- NGGKEKrekiko elkarlana indartzea, GGKEak ordezkatzeko plataforma eta GHSko eragile garrantzitsua den aldetik.
- UGLP orain baino ikusgaiago bihurtzea eta ezagunagoa izatea, bai Iruñeko Udalean bertan bai herritarren artean.

5.3.8 UGLP-KO TRESNAK ETA MODALITATEAK

UGLPko tresna eta modalitateen harira, GGKE-ek balio handiena ematen diete **Hegoaldean epe ertainera**

(urtebete baino gehiago) gauzatzen diren **lankidetzako proiektuetarako** diru-laguntzei, eta Iruñean bertan abiatzen diren **garapenerako hezkuntzako programa sendo eta egonkorretarako** diru-laguntzei.

Aldiz, epe laburrerako ekintzei ez zaie hainbesteko balioa ematen, izan Hegoaldean gauzatzeko lankidetzako ekintzak izan Iruñean herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren unean uneko ekintzak. GGKE-ek iritzi bera dute UGLPren eta Hegoaldeko eragileen arteko zuzeneko hitzarmenei buruz, eta iraganean huts egindako esperientzia batzuk aipatu dituzte, bai eta Udalak ez duela horrelako esperientziak gauzatzeko balio erantsia ere.

Bestalde, unean uneko sentsibilizazio-jarduerei (USJ) buruz adierazi dute azken urteotan gutxi egin direla, eta haien aburuz, arrazoia ez da ez dela tresna erabilgarritzat jotzen, baizik eta alde batera utzi direla nolabait, lanez gainezka egon direlako eta baliabide gutxi daudelako. Hala ere, jarduerekin jarraitzeko iradokizuna egin dute, eta horietara bideratutako aurrekontua bukatuz gero, jarduerena baino pisu handiagoko beste ekintza batzuekin lotu litezke, edo GHSko beste tresna batzuetara bideratzea.

Larrialdietarako eta gizaldeko laguntza eztabaidagaia da GGKE-en artean, eta erakunde batzuek iritzi ezberdinak dituzte: batzuek defendatu egiten dute eta indartu behar dela deritzote (eskuarki, beren misioa, nagusiki, gizaldeko laguntza hori den GGKEak); eta beste batzuek, berriz, ez dute ikusten erakunde txiki samar batek (Iruñeko Udala, alegia) zer balio erantsi izan dezakeen arlo horretan, eta laguntzak txikia izan beharko lukeela diote, modu sinbolikoan batik bat.

5.4 ZER IRITZI DUTE LANKIDETZAKO BESTE ERAGILE BATZUEK

5.4.1 HEGOALDEKO TOKIAN TOKIKO KIDEAK[9]

Oro har, kontsulta egin zaien **Hegoaldeko erakunde kideek eta Iruñeko GGKE-ek oso iritzi antzekoak dituzte**, batez ere Plan Zuzentzailea edukitzearen garrantziari dagokionez (inkesta bete duten erakundeen % 100ek garrantzitsutzat edo oso garrantzitsutzat jotzen dute) eta UGLPri buruzko iritzi onari dagokionez (erakundeen % 80k ona edo oso ona dela uste dute, eta funtsean, UGLPk denboran zehar emandako babes jarraitua eta konstantea, komunikazio erraza eta agindutako funtsak dagokion unean bideratzea nabarmentzen dute, horren ondorioz aldaketa garrantzitsuak lortu dira eta).

Orobat, tokian tokiko kideen ustez, honako hauek dira UGLPk bere jarduna kokatu behar duen esparru eta politikarik garrantzitsuenak: giza eskubideen aldarrikapenak, berdintasunerako eta emakumeak ahalduntzeko konpromisoak, eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak. Halaber, GGKEak eta tokian tokiko kideak bat datoz UGLPk bere politikak garatzean kontuan hartu beharko lituzkeen eragile garrantzitsuenei buruz; dena den, jakina, tokian tokiko kideek beren zeregina eta UGLPrena nabarmentzen dute besteenen aldean (Iruñeko GGKEak, NGGKEK eta GLUK).

Iruñeko Udalaren lankidetzako politikan gailendu beharko liratekeen printzipioen eta balioen harira, hala tokian tokiko kideek nola GGKE-ek, batik bat, partaidetza, gardentasuna, malgutasuna, hurbiltasuna eta koherentzia azpimarratzen dituzte.

Bestalde, tokian tokiko kideek uste dute ez direla lehentasunezko herrialdeak eta sektoreak mugatu behar UGLPren barruan, baina ez dute Iruñeko GGKE-ek bezain argi ikusten. Zehazki, kideen % 50ek ikuspegi irekia nahiago du; kideen % 40k, berriz, kontzentrazioaren alde egiten du; eta % 10ek ez du iritzi zehatzik gai horri buruz.

UGLPk etorkizunerako gogoan hartu beharko lituzkeen helburu estrategiko posibleak direla eta, harrigarria izan da tokian tokiko kideek Iruñean GHSren alde egitea, nahiz eta tresna horretan beren zuzeneko partaidetza ez den beste batzuetan bezain handia (adibidez, lankidetzako proiektuak Hegoaldean). Iritzi horrek are gehiago indartzen du GHS bultzatu behar delako adostasuna, UGLPren balio erantsia eta abantailak baliatze aldera.

Helburu estrategiko horretaz gain, tokian tokiko kideek uste dute UGLPko baliabideak handitu behar direla, epe luzerako ekintzak bultzatu, proiektuak eskatzeko eta justifikatzeko izapideak sinplifikatu, gardentasuna sustatu, eta tresna batzuk berrikusi. Iruñeko GGKE-ek lehenetsitako helburuen aldean, ezberdintasun bakarra da tokian tokiko kideek Udalaren eta Hegoaldeko erakundeen arteko zuzeneko lankidetzako hitzarmenen alde egiten dutela; izan ere, tokian tokiko kideek nabarmendu egiten dute, eta GGKE-ek ez dute ia-ia aipatzen.

Azkenik, UGLPk etorkizunean lehenetsi beharko lituzkeen tresnei eta modalitateei buruz, tokian tokiko kideak eta GGKEak epe ertainerako eta luzerako programen alde agertu dira, Hegoaldeko lankidetzan zein garapenerako hezkuntzan. GGKEak ez bezala, tokian tokiko kideen iritzia da zuzeneko lankidetzako hitzarmenak eta gizaldeko laguntza bultzatu behar direla.

5.4.2 GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO UDAL KONTSEILUKO KIDEAK

Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua (GLUK) osatzen duten ia kide gehienen aburuz (egungoak eta kide

9. Tokian tokiko kideei bidalitako inkestaren emaitzei buruzko informazio xehea E eranskinean jaso da.

ohiak), Kontseilua **foro interesgarri eta garrantzitsu bat da Udalaren lankidetzako politikarako**, batez ere bertan soilik biltzen direlako GGKEak, UGLPko talde teknikoa eta ordezkari politikoak. Zehazkiago, politiken koherentziaren alderdiak, koordinazioa eta UGLPk jarraitu beharreko ildo estrategikoak jorratzeko aukera paregabea dela uste da, eta garrantzitsuak diren eragile guztiak ados daude horretan.

Alabaina, elkarrizketa egin zaien pertsona gehienek uste dute indar horri guztiari ez zaiola ahal bezainbateko etekina ateratzen, zoritxarrez, eta azkenean deialdien alderdi formalei buruzko informazioa emateko espazioa baino ez da izaten GLUK (zenbatekoak, datak, onarpenak, justifikazioak...). Ahulgune hori azken bi edo hiru urteotan areagotu da, lehen urteetan GLUKen azken aldian baino dinamismo eta barne-eztabaida handiagoak egon baitziren.

GLUKeko kideen arabera, bai ordezkari politikoak bai GGKE-etako ordezkariak gehiago inplikatu beharko lirateke egoera hori leheneratzeko; hartara, oraingoak baino eztabaida-bilera dinamikoagoak prestatu beharko lirateke egungo benetako kasuei buruz, bai baliteke horiek arreta piztea eta motibazioa sortzea; hala, erabilgarri izango lirateke gai garrantzitsu orokorragoak bideratzeko, aurkezteko eta eztabaidatzeko. Bestalde, kideek diote beste eragile garrantzitsu batzuk (Udaleko beste alor batzuetako ordezkariak, plataforma sozialak, Hegoaldeko kideak, hedabideak, etab.) GLUKen bileretara aldizka gonbidatzea ere estrategia posiblea izan liteke foro garrantzitsu hori suspertzeko.

5.4.3 NAFARROAKO GOBERNUKO LANKIDETZA ZERBITZUA

Oro har, **Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzuak eta UGLPk ildo, ikuspegi, erronka eta jarduteko oinarrizko printzipio berak dituzte**. Bi erakunde horietan, politiken koherentzia oso garrantzitsutzat jotzen da, baina eragozpen handiak dituzte era erreal eta eraginkorrean gauzatzeko; batik bat, beste alor eta departamentu batzuek lankidetzan duten inplikazio txikia.

Beharbada, bi erakundeak bereizten dituen ezaugarri nagusia da Nafarroako Gobernuak pixkanakako kontzentrazio geografiko eta sektorialera jotzen duela, eta UGLPk, berriz, nahiago izan du malgutasun handiagoz eta modu irekiagoan jokatu. Gainera, GHSri begira, Nafarroako Gobernuak hezkuntza formalean jartzen du arreta batez ere (horren gaineko eskumenak ditu); UGLPk, aldiz, hezkuntza ez-formalean ipini du arreta handiena, espazio horretan abantailak ditu eta.

Edonola ere, UGLPrekiko harremana ona dela uste da, baina bi erakundeen arteko koordinazioan eta osagarritasunean sakontzea garrantzitsua dela aitortzen da, lan teknikoari eta erakundeei begiratuta nagusiki, azken batean biak ala biak lanean ibiltzen baitira GGKE eta tokian tokiko kide berberekin. Ildo horretan, hona hemen zenbait ekimen posible:

- Deialdien datak adostea.
- Hezkuntza formala eta ez-formala elkarren osagarri izan daitezen sustatzea.
- Proiektuak aurkezteko eta justifikatzeko bi erakundeek darabiltzaten inprimakiak ahal den neurrian bateratzea.
- Erakunde horietako baten unean uneko ekintzak eta bestearen epe luzerako programak koordinatzea eta sinergiak sortzea horien artean.
- GGKE-entzako ebaluazioak edo trebakuntza-jarduketak elkarrekin antolatzeko aukera aztertzea.

5.4.4 LANKIDETZARAKO NAFARROAKO TOKI FUNTSA

Iruñeko Udalak ekarpen handia egiten dio Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsari (aurrekontu osoaren % 25-30). Laguntza ekonomikoaz gain, **elkarren arteko koordinazioa eta ezagutza** indartzeko balio du; nolanahi ere, alderdi hori hobetu egin daiteke.

Bestalde, sinergiak sortzeko etorkizunean azter daitezkeen bideen harira, GHSko ekimenetarako elkarlana areagotu daitekeela azpimarratu da (Funtsak baliabide eta gaitasun gutxiago ditu esparru horretan besteetan baino); bigarrenik, koordinazioa hobetu daiteke NGGKEKren zer alderdi finantzatu zehazten denean (Funtsak zein UGLPk hitzarmenak dituzte erakunde horrekin); eta azkenik, informazio gehiago truka daiteke Funtsak babesten dituen hiru urteko programei buruz, programa horiek eta UGLPk babesten dituen proiektuak eta programak elkarren osagarri izan daitezen. Halaber, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) erakundeetan duen eragina erabiltzea ere iradoki da, lana ikusgai egiteko eta erakundeen babesa izateko UGLPk antolatzen dituen ekitaldi publikoetan (batez ere GHSrekin lotuta daudenak).

5.5 ZER IRADOKI DUTE IRUÑEKO BESTE ERAGILE GARRANTZITSU BATZUEK

5.5.1 UDALEKO BESTE ALOR BATZUK

Azken urteotan, unean uneko harremanak egon dira UGLPren (Gizarte Ekintzako Alorraren barruan) eta Udaleko beste alor batzuen artean. Alor horiek lankidetzako ekimenen bat gauzatu izan dute, baina gehienetan ez da modu sistematikoan izan, ezta denboran zehar jarraitua eta estrategikoa ere. Horra hor ekintzarik garrantzitsuenak:

- Kulturako Alorraren pean dagoen **Iruñeko Udaleko Joaquín Maya Musika Eskola** UGLPrekin harremanetan jarri da, Hegoaldeko antzeko eskolekin (Haitin, zehazki) loturak finkatzeko eta elkarlanean aritzeko.
- **Haur Eskolak** ere Kulturako Alorraren pean daude, eta haietan Hegoaldeko ikasle batzuk egon izan dira praktikak egiten; horrez gain, zenbait GGKErekin elkarlanean jarduten dute kontsumo arduratsuari buruz sentsibilizatzeko ekintzetan (menu osasungarria).

- **Berdintasuneko Alorrak** zeharkako genero-ikuspegia sustatzen du Udaleko alor guztietan, eta Berdintasunerako Plana ere badu. Noiz edo noiz, Iruñeko GGKE-ekin elkarlanean jardun du berdintasunarekin eta emakumeak ahalduntzearekin lotutako GHSko ekintzetan.
- **Komunitate Garapeneko Alorraren** baliabideetako bat Gaztediaren Etxea da, eta han elkarteen, GGKE-en eta boluntariotzaren gaineko argibideak ematen zaizkie gazteei. Era berean, aniztasuna sustatzeko programak ere badituzte (zurrumurruen aurkako programa).
- **Partaidetzako Alorrak** elkarteen jarduna, gobernantza eta herritarren partaidetza sustatzen ditu; horrenbestez, lantzen diren gaiek zuzeneko edo zeharkako zerikusia dute herritartasun global arduratsu eta konprometitua sortzearekin.
- **Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorrak** Geltoki deritzon udal-espazioa lagatzen dio ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareari (REAS), ekonomia solidarioari, kontsumo arduratsuari eta bidezko merkataritzari buruz sentsibilizatzeko jardueretarako. Horrezaz gain, 2016an "Tokiko Produktuen Astea" antolatu zen, Artisau-elikagaien Egileen Elkarteak, NNPEK-k eta INTIAk antolatuta.

Edozein kasutan ere, UGLPren eta Udaleko alor horien guztien arteko ezagutza oso txikia da eta oso estrategia gutxi garatzen dituzte elkarrekin, arduradunek berek diotenez. Gehienetan, denek dute UGLPrekiko elkarlana areagotzeko eta etorkizunean ekimenak elkarrekin antolatzeko borondatea eta asmoa, baina eragozpenak daude: baliabideak falta dira, lanez gainezka ibiltzen dira denak, eta nolabaiteko estankotasuna dago Udaleko alorretan. Hortaz, zail samarra da orain baino asmo handiagoko elkarlanei heltzea etorkizunean.

5.5.2 BESTE ERAGILE, MUGIMENDU ETA PLATAFORMA SOZIAL BATZUK

Iruñeko plataforma sozial nagusietako batzuk (esate baterako, Iruñea Harrera Hiria eta REAS) lanean aritzen dira UGLPrekin eskuarki, GHSko eta intzidentziako gaietan, funtsean. GGKE-ek bezalaxe, hona hemen UGLPren zer ezaugarri jotzen dituzten positibotzat: malgua, hurbila, praktikoa eta errealista izatea, eta bat etortzea udalerriko erakunde sozialen testuinguruarekin eta beharrekin. Zehatz-mehatz, oso iritzi positiboa dute UGLP irisgarria delako erakunde sozial txikientzat, zenbaitetan baliabide gutxi eta gaitasun tekniko txikia izaten baitituzte, baina oso dinamikoak izaten dira Iruñeko kaleetan, ordezkaritza handia izaten dute eta jarduera ugari antolatzen dituzte intzidentziako eta ehun soziala indartzeko gaiak jorratze aldera.

Horregatik, hain zuzen ere, plataforma horiek gomendatzen dute UGLPren eta beste dohaintza-emaile batzuen arteko koordinazioa eta elkarren arteko izaera osagarria indartzea GHSko kontuetan batik bat, eta Nafarroako Gobernuarekin bereziki. Halaber, ohartu dira herritarrek eta mugimendu sozialek ez dutela UGLP ezagutzen; alegia, ez dela ezaguna GGKE-en sektoretik kanpo. Hori dela bide, UGLPren ikusgaitasuna eta horren gaineko komunikazioa bultzatzearen alde agertu dira.

Bestalde, lankidetzako programak dituzten Iruñeko beste erakunde batzuek ere (adibidez, **Nafarroako Unibertsitate Publikoa**) nabarmendu dute UGLPren ekintzekin ongi koordinatu eta elkarren osagarri izateko beharra dagoela, GHSko esparruan nagusiki (bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, etab.), sinergia handienak hor sor baitaitezke.



6. NOREKIN BATERA LAN EGIN NAHI DUGU

Aurreko ataletan zehar, Iruñeko Udaleko garapenerako lankidetza eta hezkuntzako politika planifikatzeko ez ezik, hura gauzatu eta errealitate bihurtzeko talde garrantzitsu batzuk aipatu dira, UGLPrekin batera dihardutenak. Jarraian, lehen baino modu sistematikoago batean zerrendatuko dira, eta horrekin batera, gure ustez bakoitzak Plan honen garapenean nolako zeregina izan beharko lukeen ere azalduko da.

6.1 IRUÑEKO GGKE-AK

Haiek dira, ezbairik gabe, Iruñeko garapenerako lankidetza eta hezkuntzako eragile nagusia, dela haien bitartez bideratzen den diruagatik dela haien zeregin, balio erantsi eta abantailengatik, batik bat Hegoaldeko kideekin eta toki-erakundeekin harremanetan egoteari begira. Gainera, oso kontuan izan behar dugu ezinbestekoak direla GHSko esparruan, intzidentzia politikoko lanak egiten dituztela eta ehun sozial indartsu eta kohesionatua sortzen laguntzen dutela.

Horregatik guztiagatik, GGKE-ek gure bidelagunik hurbilena izaten jarraituko dute Plan Zuzentzaile honek iraungo duen aldian; hartara, udalerrian aktiboak diren eta bertako zein Hegoaldeko beste erakunde batzuekin loturak dituzten Iruñeko toki-erakundeei babesa ematen jarraituko dugu dirulaguntzen bitartez. Bestalde, erakunde gisa sendotzen lagundu nahi diegu, ebaluazioak eginez, laguntza teknikoa emanez, trebakuntza eskainiz eta haiekin koordinatuz.

6.2 NGGKEK

NGGKEK ere eragile garrantzitsu bat da, eta zeregin bikoitza du: batetik, GGKEak ordezkatzen dituen plataforma nagusia da gure udalerrian; eta bestetik, oso eragile garrantzitsua da GHSko esparruan eta herritarrei lankidetzako gaiei buruzko informazioa emateko. Horren harira, UGLPren eta NGGKEKren arteko lotura indartu egin nahi dugu Plan Zuzentzaile honek irauten duen aldian, eta babesa ematen jarraituko dugu Lankidetzako Tokiko Bulegoa mantentzeko eta Iruñean GHSren inguruan antolatzen diren beste ekimen batzuk gauzatzeko.

6.3 GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO UDAL KONTSEILUA (GLUK)

Esan bezala, foro honek sekulako indarra izan dezake GGKE-en ahotsak, UGLPko talde teknikoa eta talde politikoak bateratzeko, eta beraz, erakundeen arteko koordinazioa eta politiken koherentzia sustatzeko. Alabaina, organo garrantzitsu hori suspertu egin behar da eta orain baino dinamikoago eta operatiboago bihurtu; hartara, informazioa emateko zeregin hutsa izan beharrean, eztabaidarako eta proposamenak egiteko gunea izango litzateke berriro, kide guztiek era aktiboan parte hartuta.

6.4 HEGOALDEKO KIDEAK ETA TOKI-ERAKUNDEAK

UGLPk Hegoaldeko kideekin eta toki-erakundeekin harremanak ezartzean, ikuspegi jakin batetik abiatu nahi du; horren arabera, Hegoaldeko kideak eta toki-erakundeak ez dira laguntzaren hartzaile soilak, baizik eta Hegoaldeko beren komunitateetan garapena bultzatzeko benetako motorrak. Hala, lagungarri izango ginateke bertako ehun soziala indartzeko, baita gobernantzako eta eskubideak exijitzeko elementuak eraikitzeko ere. Gure abantailak baliatzeko, Hegoaldeko tokian tokiko erakundeak lehenetsiko ditugu, eskualdeetako edo estatuetako beste erakunde batzuen aldean. Oro har, programaren barruan babesa ematen zaien GGKE-en bidez jarriko gara haiekin harremanetan, GGKE horiekin dute-eta zuzeneko harremana.

6.5 IRUÑEKO PLATAFORMA SOZIALAK

Iruñeko plataforma sozialen ehuna oso aktiboa eta askotarikoa da. Identifikatu diren plataforma sozial nagusiak ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea (REAS) eta Iruñea Harrera Hiria (IHH) dira. Eragile horiek guztiak eta etorkizunean sor daitezkeenak oso garrantzitsuak dira Iruñean GHS lantzeko, eta hori da, hain zuzen, Plan Zuzentzaile honetan sustatu nahi den alderdietako bat. Era berean, ehun soziala bai Iruñean bai Hegoaldean eraikitzea UGLPren zereginaren funtsezko alderdi bat da. Erronka da lankidetza plataforma eta mugimendu sozialekin lantzea, ez haientzat soilik. Eskuarki, erakunde sozial askok bat egiten dute plataforma horien barruan, eta horrek esan nahi du bide ezin hobea direla herritarrekin konektatzeko eta eragin biderkatzaile handia izateko.

6.6 NAFARROAKO GOBERNUKO LANKIDETZA ZERBITZUA

Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzuak eta UGLPk lurralde-eremu berean eta GGKE berberekin lan egiten dute. Arrazoi hori tarteko, ezinbestekoa da Zerbitzu horrekin koordinazio estua edukitzea eta elkarren osagarri izatea, Plan Zuzentzaile hau prestatzean kontsulta egin zaien GGKE-ek eskatu duten bezala. Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzua bere III. Plan Zuzentzailea prestatzen ari da, eta hori aukera bikaina da bi erakundeen arteko sinergiak indartzeko.

6.7 LANKIDETZARAKO NAFARROAKO TOKI-FUNTSA

UGLPk Funtsari babesa ematen jarraituko du, eta haren ekarpena baliabideak maiztasun jakin batekin ematea izango da. Baina babes horretaz gain, Funtsaren arduradunekiko koordinazioa, osagarritasuna eta esperientzien trukea indartuko dira, batez ere GHSren esparruan eta Iruñeko zein Hegoaldeko toki-erakundeak sakon inplikatzen diren lankidetzako proiektuetan.

6.8 UNIBERTSITATEAK

Iruñeko unibertsitate-ehuna zabala eta askotarikoa da, hirian hiru unibertsitate daude eta (UPNA, UNAV eta UNED). UGLPren asmoetako bat, hain zuzen ere, ehun horrekiko harremanean eta elkarlanean sakontzea da. Duela zenbait urtetatik aurrera, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (UPNA) topo egin izan dugu elkarlaneko espazio batzuetan, bertako udako ikastaroak eta GHSko zenbait ekintza direla medio; hala, hori bultzatu nahi da etorkizunean. Bestalde, UPNAk lankidetzako programa bat du, eta saiatuko gara horren baitan sinergiak bilatzen eta elkarren osagarri izaten. Nolanahi ere, gaur egun ez dirudi oso errealista izango litzatekeenik unibertsitateko sektorea asmo handiagoko ekimenetan inplikatzea lankidetzako alderdietan (proiektuei aplikatutako ikerketa, eredu pilotu berritzaileak garatzea Hegoaldean, etab.); alabaina, horren inguruan sortzen diren aukerak esploratzen jarraituko dugu.

6.9 HEDABIDEAK

Hedabideak, batik bat Iruñean daudenak, aliatu ezin hobea dira elkartasuneko eta erantzunkidetasuneko mezuak eta balioak hedatzeko; hartara, lagungarri dira herritarrek informazioa izan dezaten, eta arduratsuak zein konprometituak izan daitezen. Orobat, oso bide ona dira UGLPk egiten duen lanaren berri emateko, eta horrek gizartearen babesa handitzen eta Udalaren gardentasuna nahiz kontuak ematea areagotzen laguntzen du lankidetzaren esparruan. Edonola ere, errealistagoa dirudi UGLPk hedabideekin duen harremana GGKE-en (haien artean harremana baitago jada) eta NGGKEKren bitartez bideratzea, Informazio Bulegoa baliatuz. Dena den, ez dugu baztertzen UGLPk hedabideekin unean uneko ekimenak gauzatzea, testuingurua aproposa denean.

6.10 UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN ESPAINIAKO FEDERAZIOA

UGLP elkarlanean aritzen da estatuan FEMPko lankidetzako alorrarekin; izan ere, foro interesgarria da Espainiako lankidetza deszentralizatuari buruzko bizipenak eta jardunbide egokiak partekatzeko. Etorkizunean, elkarlan horri eutsi ez ezik, saiatuko gara UGLPk orain baino zeregin aktiboagoa ere izan dezan gogoeta estrategikoak eta Iruñeko lankidetza-eredu propioa hedatzen direnean, batez ere Plan Zuzentzaile honen ondorioz.

6.11 GIZARTE EKINTZAKO UDAL-ALORRA

UGLP Gizarte Ekintzako Alorraren baitan dago, eta bistan denez, alor hori oso garrantzitsua da Programarako. Alorrak UGLP politikoki eta erakunde moduan babestea eta konpromisoa agertzea funtsezkoa izango da finkatu diren helburuak erdiesteko, gerta baitaiteke, gainera, baliabide gehiago bideratu behar izatea noiz edo noiz. Bestalde, lankidetzako politiken eta Iruñeko beste programa sozial eta komunitario batzuen arteko sinergiak identifikatzen saiatuko gara (pobrezia, adinekoak, haurrak...), eta garapenaren aldeko politiken koherentzia areagotzea sustatuko da.

6.12 GARAPEN KOMUNITARIO, GAZTEDIA ETA KIROLEKO UDAL-ALORRA

Alor hori duela gutxi sortu zen (lehen, Gizarte Ekintzaren barnean zegoen), eta hasiera batean, elkarlanean aritzeko indar gehien izan dezaketen alorretako bat da. Garapen Komunitarioko Alorrak UGLPrekin elkarlanean aritzeko zenbait aukera proposatu ditu: a) lan-ildoetan, proiektuetan eta jardueretan koordinatzea (Gaztediako jarduerak barne, Gaztediaren Etxekoak, adibidez; boluntariotza, kirola, prebentzioan diharduten taldeak, elkarteak sustatzea...); b) Alorrak lankidetzarekin eta GHSrekin zerikusia duten alderdiak txertatzea diru-laguntzen deialdietan; eta c) informazioa eta trebakuntza emateko ekintzak Alorreko langileentzat, lankidetzaren harira.

6.13 HIRI-EKOLOGIA ETA MUGIKORTASUNEKO ALORRA

Orain arte, ez da elkarlan esanguratsurik sortu Alor honen eta UGLPren artean; alabaina, aukera interesgarriak daude etorkizunari begira, batik bat Garapen Iraunkorrerako Helburuak indarrean sartu zirenetik aurrera. Izan ere, helburu horiek dakarten esparrutik abiatuta, Hiri Ekologia eta Mugikortasuneko Alorrak eta UGLPk esperientziak trukatu eta politika bateratu eta koherenteak finka ditzakete iraunkortasunari buruz, hala Iruñean nola UGLPk Hegoaldean babesten dituen lankidetzako ekintzetan.

6.14 GARDENTASUN, BERRIKUNTZA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO ALORRA

Alor hau ezinbestekoa da UGLPren lana herritarren artean ikusgai egiteko, eta hala, lagungarri da kontuak ematea areagotzeko. Alor honen esperientziak, bideek, mekanismoek eta komunikazio-tresnek funtsezko oinarri izan behar dute UGLPren Plan Zuzentzaile hau, urteko plan operatiboak, memoriak, ebaluazioak eta beste batzuk elebitan hedatzeko. Europako gaietarako bulegoa Alor honen barruan dago, eta bide hori ere aztertu beharko litzateke UGLPk ekimenen bat garatu nahi izango balu Europan.

6.15 HERRITARREN PARTAIDETZAKO UDAL-ALORRA

Alor hau berria da, legealdi honetan sortua, eta orain arte ez da elkarlan handia gertatu. Haatik, Alor honek Iruñean gauzatzen dituen ekimen askok eta UGLPk Hegoaldean dituen helburuek zein ikuspegiek antzekotasun handiak dituzte (gobernantza sustatzea, partaidetza eta ehun soziala indartzea). Hori dela eta, interesgarria dirudi komunikazio-bideak aztertzea esperientziak trukatzeko eta politikak koherenteak izan daitezen bultzatzeko, oinarria GGKE-ei babesa ematea izanik, Iruñean sentsibilizatzeko eta partaidetza sozialerako eragile garrantzitsu diren aldetik.

6.16 BERDINTASUNEKO UDAL-ALORRA

Genero-ikuspegia garapenerako lankidetza eta hezkuntzako zein sentsibilizazioko esku-hartzeen eta programen oinarrietako bat da, ia definizioz. Hori dela bide, ezinbestekoa da Alor honekin aholkularitza-lana sustatzea, informazioa trukatzeko bideak finkatzea, eta bietan jorratzen ditugun gaiei buruzko programetan elkarlanean jardutea. Berdintasunerako politiken harira, UGLP Alor honen berezko aliatua izan daiteke Udaleko beste alor batzuetan eta herritarren artean hedatzeko, lankidetzan eta GHSren esparruan berdintasunaren gainean egindako bidea eta esperientziak aintzat hartuta.

6.17 KULTURA ETA HEZKUNTZAKO UDAL-ALORRA

Beharbada, gaurdaino Alor honekin izan dugu harreman handiena eta gauzatu ditugu ekimenik zehatzenak garapenerako lankidetza eta hezkuntzaren esparruan (Musika Eskola, CIVIVOX eta Haur Eskolak). Hartara, ekimen horiek mantentzen eta sustatzen saiatuko gara etorkizunari begira, batik bat Alor honek haurren eta gazteen GHSrekin izan dezakeen zereginarekin zerikusia dutenean.

6.18 TOKIKO EKONOMIA JASANGARRIKO ALORRA

Alor honekin elkarlanean aritzeko espazio garrantzitsuak daude; funtsean, Geltoki espazioa GHSko jardueretan erabiltze aldera, ekonomia solidarioa, kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza tarteko. Alabaina, Alor honekiko elkarlana urri samarra izan da orain arte, eta ez dirudi oso errealista denik oso asmo handiko ekimenak antolatu nahi izatea Alor honen eta UGLPren artean.

6.19 HIRI BIZIGARRI ETA ETXEBIZITZAKO UDAL-ALORRA

Alor honen barruan, arreta Iruñeko etxebizitzetan eta hirigintzan ipintzen dute; hortaz, elkarlana gai horiei buruzko aholkularitza espezifikoa izan liteke, edo aldian behin elkarlanean aritu UGLPk eta Alor honek bat egin dezaketen programetan.

6.20 HERRITARREN SEGURTASUN ETA ELKARBIZITZAKO UDAL-ALORRA

Alor honek, bere ohiko jardueren barruan, oinarrizko zeregina du gure hirian garapenerako hezkuntzarekin eta sentsibilizazioarekin lotutako ekitaldiak antolatzen laguntzeko. Ekitaldiei buruz ematen duen informazioa (kokapena, edukiera, baimenak, etab.) eta sor daitekeen elkarlana ezinbestekoa da, eta ez da baztertzekoa UGLPk laguntza eta aholkuak eskatzea hari dagozkion arloetan.



7. ZERK BIHURTZEN GAITU EZBERDIN

7.1 ZER EGIN NAHI DUGU

UGLPren helburua **Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea** da, udalerriko GGKE-ek bideratzen dutena bereziki; horretarako, lankidetzako ekintzak gauzatzen dira behar handiena duten Hegoaldeko herri eta komunitateekin.

Gainera, Iruñeko herritarrengandik hurbil gaudenez, eta haiekin konfiantza zein zuzeneko harremana dugunez, elkartasun eta lankidetza horiek gure gizartearen erantzukizuna direla uler dadin lagundu nahi dugu, ez laguntza asistentzial huts moduan, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela.

Azkenik, nahiz eta badakigun zer zailtasun dakartzan, UGLPren barnean lagundu nahi dugu, ahal den neurrian, Iruñeko Udaleko beste alor batzuek garapenaren aldeko lankidetza ezagutu eta kontuan har dezaten beren ekintzak zehazten dituztenean, Udaleko politiken arteko koherentzia ahalik eta handiena izan dadin.

7.2 ZER ASMO DUGU

Nahi genuke Hegoaldean babesa ematen diegun lankidetzako ekintzak behar bezain kalitatezkoak eta sakonak izatea **aldaketa ikusgaiak lortzeko talderik ahulenetan, eskala txikian bada ere**; halaber, nahi genuke lan egiten dugun **komunitateak eta tokian tokiko agintariak indartzeko** lagungarri izatea, lorpenak garatzen jarrai dezaten elkarrekin, baita gure babesa amaitzen denean ere.

Bestalde, nahi genuke gure **herritarrek informazioa izatea eta jakitea** zein diren egun eragiten diguten arazo globalak, eta modu aktiboan inplikatzea horiek konpontzeko, **hirian bertan keinu txikiak eginez**, jakinik mundua aldatzeko behetik hasi behar dugula, zehatzenetik.

Azkenik, nahi genuke garapenerako lankidetza eta hezkuntza **egiturazko politika egonkor eta sendotzat** jotzea Iruñeko Udalean, eta beste alor batzuei ekarpenak egin eta partekatu ahal izatea eskarmentu handia dugun hori: elkartasuna, iraunkortasuna, ekitatea, ahalduntzea, partaidetza, boluntariotza, elkarteak, etab.

7.3 ZER ALDERDIK DEFINITZEN GAITUZTE

7.3.1 MALGUTASUNA, JARRAITUTASUNA ETA IKUSPEGI ERREALISTA

Badakigu gure mugak zein diren, eta badakigu gure baliabideekin ezin ditugula oso asmo handiko erronkak planteatu edo tresna eta modalitate ugari garatu; guk ez, baina jarduteko eremu handiagoa duten beste dohaintza-emaile batzuek aukera hori dute, ordea. Hori dela eta, nahiago dugu **ekintza zehatz, praktiko eta errealistak** gauzatu eta babestu, Iruñeko GGKE-en testuinguruarekin eta profilarekin bat datozenak; izan ere, GGKE horiek ertainak edo txikiak dira, eta **tresna erraz eta malguak** behar dituzte beren jarduna eta kudeaketak errazteko.

Bestalde, horrek ere esan nahi du egonkortasun handia mantendu nahi dugula lankidetzako gure politikako lehentasunei, helburuei edo tresnei begira; ez alferrik, lankidetzako politika pixkana hobetzeko prozesu baten moduan ulertzen dugu, sorpresarik eta bat-bateko aldaketarik gabe, poliki-poliki lortzen denaren gainean eraikitzen joateko, lan egiten dugun GGKE-en testuinguruarekin eta beharrekin bat.

Hala, gure ikuspegia malgua eta errealista izatea nahi dugu, gure GGKE-en beharrekin eta interesekin bat datorrena, haiek sustatzen ez dituzten eta protagonista ez diren ekintzak era artifizialean behartu gabe. Horren ondorio da gure lankidetzarako lehentasun geografiko oso zorrotz eta mugatuak ez zehazteko erabakia, edota **oinarrizko beharrei erantzuteko babesaren** alde egitea, **modu zabalean**.

Nahiz eta malguak izan nahi dugun, jarraituko dugu **babesa behar handiena duten** eta Giza Garapeneko (GGI) zein eskubide-urraketen indize kezkagarrienak dituzten **eremu geografikoetara bideratzen**, orain arte bezala. Eremuez mintzatzen gara, ez herrialdeez, bai baitakigu pobrezia-multzoak egon daitezkeela GGI ertaina edo ertain-altua duten herrialdeetan. Hala ere, azken kasu horretan, gure babesa gizarte zibileko erakundeak indartzera bideratuko dugu batik bat, tokian tokiko gobernuekin lan egin dezaten aberastasuna birbanatzeko eta behar handiena duten taldeengana heltzeko.

7.3.2 OSAGARRITASUNA

Aurrez esandakoarekin lotuta, eta gure mugak direla eta, hain zuzen, are garrantzitsuagoa da **gure ahaleginak beste eragile eta dohaintza-emaile batzuen ahaleginekin koordinatzea**, helburu bateratuak erdieste aldera. Gure iritziz, lankidetzaren arloan badago tokia dohaintza-emaile handi eta txikientzat; denek dute zeregin garrantzitsua eta elkarren osagarri dira.

Zehatz-mehatz, Iruñeko GGKE askok ezin izaten dituzte dohaintza-emaile handien funtsak eskuratu beren neurriak direla eta, baina UGLPren babesa ezinbestekoa zaie Iruñeko ehun soziala indartzeko edo Hegoaldean tokian tokiko lankidetzako ekintzak modu jarraituan babesteko, gu baino irismen handiagoko dohaintza-emaileen esku-hartze handietatik kanpo gelditzen diren eremuetan nagusiki.

Bereziki, gure Komunitateak probintzia bakarra duela eta hiriburua Iruñea dela aintzat hartuta, funtsezko estrategiak dira UGLP eta Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzua koordinatzea eta elkarren osagarri izatea.

7.3.3 HURBILTASUNA ETA GARDENTASUNA

Beste dohaintza-emaile batzuen aldean, txiki samarrak gara, baina horrek baditu abantailak ere. Zehazki, lan egiten dugun GGKE-en ekintzak, beharrak eta testuingurua zuzenean

ezagutzeko aukera dugu, baita Iruñean diharduten talde eta mugimendu sozialena ere. Hartara, tratu eta komunikazio hurbil eta errazak ditugu haiekin guztiekin, beste kasu askotan gailentzen diren formalismo eta protokolo inpertsonalen gainetik.

Bestalde, hurbil egoteak **haiek eskaerak egitea eta gu gardenak izatea** dakar, eta areagotu egiten dira GGKE eta udalerriko elkartasun-mugimenduentzako informazio- eta komunikazio-ekimenak (oinarriak aurkezteko bilerak, proiektuak koordinatzeko eta jarraipena egiteko bilerak, urteko memoria prestatzea eta bidaltzea, etab.).

7.3.4 GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN GARRANTZIA

Eskuarki, gure aurrekontuaren zatirik handiena Hegoaldeko lankidetzako ekintzetara bideratzen da; hortaz, hori da gure jardunaren nukleo nagusia. Hala eta guztiz ere, badakigu **GHS dela gurea bezalako toki-erakunde batek besteen aldean duen abantaila handienetako bat.** Eta hori hala da, funtsean herritarrengandik hurbil gaudelako eta horretarako baliabideak erabil ditzakegulako (guztion espazioak; esate baterako, gizarte-etxeak). Gainera, ez da aurrekontu handia behar GHS kalitatezkoa izateko (zenbaitetan, hala izaten baita Hegoaldeko lankidetzako proiektuetan), eta bideragarriagoa da baliabide mugatuak dituzten erakundeentzat, gure kasuan bezala. Azkenik, dohaintza-emaile askok Hegoaldeko proiektu handiak finantzatzean ipintzen dute arreta, baina ez dute lan egiten Iparraldeko pentsamoldeak, jarrerak eta jardun arduratsuak alda daitezen; horrenbestez, gurearen tankerako toki-erakunde batean lan hori egitea oso osagarri aproposa da.

7.3.5 HERRIEN ALDEKO APUSTUA

Hegoaldeko udalerriak indartzeko espazioan (gobernantza, deszentralizazio-prozesuetan laguntzea, udalerriak indartzea), bestalde, bistan da Iruñeko Udalaren tankerako toki-erakundeek abantaila ugari dituztela, nork bere esperientziatik abiatuta eta parekoen ikuspegiarekin lan egiten delako bertako toki-erakundeekin. Horrezaz gain, beste erakunde batzuek ez diote espazio horri heldu hainbesteko dedikazioz, eta berriz ere, osagarri izatea oso balio garrantzitsua da.

Hori jakinik, azken urteotan tokian tokiko lanaren aldeko apustua **funtsezko lan-ildo bihurtu da UGLPrentzat** (zenbait urtetarako proiektuen deialdiak Hegoaldeko toki-erakundeekin), baita gure lankidetzaren bereizgarri ere.



8. ZER NAHI DUGU LORTU DATOZEN URTEOTAN

Orain arte egindako analisiaren zuzeneko ondorio moduan, eta egin nahi dugunaren nahiz gure gain hartu ditugun balioen esparrutik abiatuta, **6 ildo estrategiko handi eta 31 helburu estrategiko** zehaztu ditugu plan estrategiko honen 2018-2021 aldirako. Jarraian emango dugu horien berri.

8.1 HEGOALDEKO EKINTZAK ORAIN BAINO IRAUNKORTASUN HANDIAGOKOAK ETA KOHERENTEAGOAK IZATEA, ETA ENFASIA TOKIAN TOKIKO LANEAN ETA ESKUBIDEEN IKUSPEGIAN JARTZEA.

8.1.1 Hegoaldeko lankidetzako zenbait urtetarako programen pisua handitzea UGLPren esparruan.

8.1.2 Zenbait urtetarako administrazio-konpromisoak erraztea GGKE-ekin, ekintzen jarraitutasuna bermatzeko eta emaitzen araberako kudeaketa indartzeko.

8.1.3 Gure ekintzetan, Hegoaldeko toki-erakundeak indartzeko eta eskubideen ikuspegiko elementuak areagotzea, zenbait urtetarako programetan bereziki.

8.1.4 Proiektu pilotu moduan eta errealistak izanik, Iruñeko Udaleko beste alor batzuetako arduradunak zein teknikariak eta ezohiko beste eragile batzuk (unibertsitatea, mankomunitateak, etab.) inplikatzea zenbait urtetarako programen alderdi zehatzetan.

8.1.5 Hegoaldeko lankidetzako urteko proiektuen babesa mantentzea, era malgu, ireki eta irisgarrian, Iruñeko GGKE guztientzat.

8.1.6 Larrialdiko eta gizaldeko laguntzako esku-hartzeetarako diru-laguntzen tresna berrikustea, orain baino eraginkorragoa izan dadin eta birgaitzeko nahiz garatzeko proiektuekin zerikusia izan dezan.

8.2 GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTZEA, UGLPKO ESTRATEGIA NAGUSI MODUAN.

8.2.1 Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko (GHS) ekintzen pisua handitzea UGLPren esparruan.

8.2.2 GHko ekintzak bultzatzea zenbait urtetarako, eta jarraitutasuna izateko asmoarekin.

8.2.3 GHko ekimenak sustatzea GGKE-en aldetik, partzuergoetan antolatuta.

8.2.4 GGKE-ekin batera, erakundeak eta plataforma sozialak GHko ekintzetan inplikatzea.

8.2.5 Unean uneko sentsibilizazio-jardueren (USJ) eta UGLPk dituen beste ekintza batzuen arteko izaera osagarria indartzea.

8.2.6 GHSko osagaiak txertatzea Hegoaldeko zenbait urtetarako programetan.

8.3 UGLPK BABESTEN DITUEN EKINTZEN KALITATEA HANDITZEA ETA GGKEAK INDARTZEA, ERAGILE GARRANTZITSU DIREN ALDETIK.

8.3.1 UGLPren gaitasunak eta baliabideak indartzea Plan Zuzentzaile honetako erronkei aurre egiteko.

8.3.2 Zenbait urtetarako programen ebaluazioei berriz ekitea, eta UGLPko langileak zein arduradun politikoak inplikatzen saiatzea.

8.3.3 Proiektu pilotu moduan, GHSko ekintzen ebaluazioarekin probak egitea, jardunbide egokiak eta ikasketak sortzeko tartean dauden eragile guztientzat.

8.3.4 Iruñeko GGKE-ek eta Hegoaldeko kideek gaitasunak hobetzen eta baliabideak erraz eskuratzen laguntzea.

8.3.5 NGGKEK babesten jarraitzea, Iruñeko GGKEak ordezkatzeko organo nagusia den neurrian.

8.4 UGLP BESTE ERAKUNDE ETA EKIMEN BATZUEKIN KOORDINA DADIN ETA ELKARREN OSAGARRI IZAN DAITEZEN INDARTZEA.

8.4.1 Erakundeekiko elkarlana eta Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzuarekiko aldian behingo komunikazioa hobetzea.

8.4.2 GHSren esparruan, UGLPren eta Nafarroako Gobernuaren arteko izaera osagarrian sakontzea, bakoitzak dituen abantailak oinarri hartuta.

8.4.3 Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsarekiko (LNTK) eta beste udalerri batzuekiko koordinazioa eta aldian behingo komunikazioa indartzea.

8.4.4 UGLPren zeregina eta bizipenen trukea zein ekarpena areagotzea udalerrien eta probintzien Espainiako federazioko lankidetzaren arloan.

8.5 UGLPREN GAINEKO EZAGUTZA ETA GARDENTASUNA HANDITZEA HERRITARREN ARTEAN ETA IRUÑEKO UDALEKO BESTE ALOR BATZUETAN.

8.5.1 Plan Zuzentzaile hau eta UGLPren zeregina eta lorpenak Iruñeko herritarren artean hedatzea, Udaleko bideak erabiliz (Gardentasuneko eta Partaidetzako alorrak).

8.5.2 UGLPri dagozkion GHSko jarduerak indartzea (hitzaldiak, dibulgaziozko jarduerak, ekitaldiak Hegoaldeko kideen bisitetan, etab.).

8.5.3 Online tresnen (web-orria) eta sare sozialen erabilera maximizatzea, UGLPren zereginaren berri emateko eta horri buruzko baliabideak emateko.

8.5.4 Plan Zuzentzailearen ezagutza eta UGLPren zeregina bultzatzea Udaleko beste alor batzuetan; horretarako, GIHei buruzko bizipenak eta ikuspegiak trukatzea eta GGKE-ek eta Hegoaldeko kideek egiten duten lana azaltzea.

8.5.5 UGLPren babesa orain baino ikusgaiago egitea lankidetzari buruzko NGGKEKren Informazio Bulegoan eta zenbait urtetarako programetan.

8.6 GLUK BERRAKTIBATZEA, IRUÑEKO LANKIDETZAKO ERAGILE NAGUSIEK EZTABAIDATZEKO ETA INFORMAZIOA TRUKATZEKO FORO GARRANTZITSUENA DEN ALDETIK.

8.6.1 GLUKen funtzionamendua eta barne-erregelamendua berrikustea; hartara, lan egitea orain baino dinamikoagoa, partaidetza handiagokoa eta erakargarriagoa izan dadin, eta gaitasuna, motibazioa eta disponibilitatea duten pertsonak joan daitezen lehenestea.

8.6.2 Udaleko talde eta GGKE guztien konpromiso politikoa sustatzea, UGLPko bileretara erregulartasunez joan eta era aktiboan inplika daitezen.

8.6.3 Bileretan, zenbait urtetarako programekin (Hegoaldean eta GH) zerikusia duten kasu zehatz eta benetakoak aurkez daitezen eta horri buruz eztabaidatu dadin sustatzea.

8.6.4 Udaleko beste alor batzuetako arduradunak eta teknikariak aldian behin inplikatzea, eta GLUKeko bileretan parte hartzera gonbidatzea.

8.6.5 GGKEak ez diren Iruñeko beste eragile garrantzitsu batzuk aldian behin inplikatzea, eta GLUKeko bileretan parte hartzera gonbidatzea.





9. HELBURU ESTRATEGIKOAK ZEHAZTEA: JOMUGAK ETA ADIERAZLEAK

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	**2019**	**2020**	**2021**
1 HEGOALDEKO EKINTZAK ORAIN BAINO IRAUNKORTASUN HANDIAGOKOAK ETA KOHERENTEAGOAK IZATEA, ETA ENFASIA TOKIAN TOKIKO LANEAN ETA ESKUBIDEEN IKUSPEGIAN JARTZEA	**1.1 Hegoaldeko lankidetzako zenbait urtetarako programen pisua handitzea UGLPren esparruan**	- Zenbait urtetarako programen aurrekontua (TE) UGLPren aurrekontu osoaren % 9 izatea	- Zenbait urtetarako programen aurrekontua (TE) UGLPren aurrekontu osoaren % 10 izatea	- Zenbait urtetarako programen aurrekontua (TE) UGLPren aurrekontu osoaren % 11 izatea	- Zenbait urtetarako programen aurrekontua (TE) UGLPren aurrekontu osoaren % 12 ingurukoa izatea
	1.2 Zenbait urtetarako administrazio-konpromisoak erraztea GGKE-ekin, ekintzen jarraitutasuna bermatzeko eta emaitzen araberako kudeaketa indartzeko	- Lankidetzaren eta GHSren esparruko diru-laguntzen udal-ordenantza berria aztertzea, eztabaidatzea eta onartzea, orain baino malgutasun handiagoa eta zenbait urtetarako gasturako konpromisoa ematen dituena	- Ordenantza berria aplikatzen hastea, zenbait urtetarako gasturako konpromisoekin - Zenbait urtetarako programen inprimakiak berrikustea, emaitzen araberako kudeaketa nabarmentzeko	- Zenbait urtetarako gasturako konpromisoekin jarraitzea, programetara bideratzeko - GGKE-ek uste izatea ordenantza berriak eta inprimakiek emaitzen araberako kudeaketa hobetu dutela	
	1.3 Gure ekintzetan, Hegoaldeko toki-erakundeak indartzeko eta eskubideen ikuspegiko elementuak areagotzea, zenbait urtetarako programetan bereziki	- Programen zein proiektuen deialdien oinarriak berrikustea, TE indartzeko elementuak eta gobernantza nabarmentzeko, ez partaidetza formala soilik - Programen zein proiektuen deialdien oinarriak berrikustea, eskubideen ikuspegiko alderdiak nabarmentzeko	- Onartutako proiektuen % 20an ongi txertatuta egotea TE eta eskubideen ikuspegia indartzeko elementuak	- Onartutako proiektuen % 30ean ongi txertatuta egotea TE eta eskubideen ikuspegia indartzeko elementuak	- Onartutako proiektuen % 40an ongi txertatuta egotea TE eta eskubideen ikuspegia indartzeko elementuak - Programen ebaluazioetan frogatzea benetan lagungarri izan direla TE-en gobernantza eta gaitasunak indartzeko
			- Onartutako zenbait urtetarako programen % 100ean ongi txertatuta egotea TE eta eskubideen ikuspegia indartzeko elementuak		
	1.4 Proiektu pilotu moduan eta errealistak izanik, Iruñeko Udaleko beste alor batzuetako arduradunak zein teknikariak eta ezohiko beste eragile batzuk (unibertsitatea, mankomunitateak, etab.) inplikatzea zenbait urtetarako programen alderdi zehatzetan	- Ideia eztabaidatzea eta GGKE-ei zein Udaleko beste alor batzuei aurkeztea - Zenbait urtetarako programen oinarriak berrikustea, Udaleko beste alor batzuen eta ezohiko beste eragile batzuen aldian behingo partaidetzaren (zuzenekoa edo zeharkakoa) osagaiak baremoan irizpide moduan txertatzeko, 2019tik aurrera	- Onartutako zenbait urtetarako programen % 66an, gutxienez, ongi txertatuta egotea Udaleko beste alor batzuek aldian behin parte hartzeko ekimenak (zuzenekoak edo zeharkakoak, Hegoaldean edo Iruñean) - Planaren indarraldian onartutako zenbait urtetarako programetako batean, gutxienez, ezohiko eragileak txertatzea (sektore pribatua, kooperatibak, unibertsitateak, hedabideak, etab.) - GGKE-ek eta udal-alorrek uste izatea zenbait urtetarako programak, nahiz eta proiektu pilotuak izan eta zeharka, lagungarri izan direla Iruñeko Udalaren politikak koherenteak izateko eta lankidetzako jardueretan inplikatzen diren eragileen espektroa zabaltzeko		

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	2019	2020	2021
1 HEGOALDEKO EKINTZAK ORAIN BAINO IRAUNKORTASUN HANDIAGOKOAK ETA KOHERENTEAGOAK IZATEA, ETA ENFASIA TOKIAN TOKIKO LANEAN ETA ESKUBIDEEN IKUSPEGIAN JARTZEA	1.5 **Hegoaldeko lankidetzako urteko proiektuen babesa mantentzea, era malgu, ireki eta irisgarrian, Iruñeko GGKE guztientzat**	- Hegoaldeko urteko programen aurrekontua UGLPren aurrekontu osoaren % 55 izatea, gutxienez - GGKE-ek aurkeztutako Hegoaldeko proiektuen artean, UGLPk babesten dituenak horien % 50 inguru izatea - Onartutako urteko proiektuen % 75 GGI txikiko edo oso txikiko eta zaurgarritasun-adierazle handiko komunitate edo eskualdeetan egotea (nahiz eta herrialdeko GGI handia izatea; halakoetan, gizarte zibileko erakundeak eta gobernantza indartzeko lana bultzatuko da) - Deialdi honetan diruz lagundutako proiektuen % 30 herrialde ez hain aurreratuetan edo antzeko eskualdeetan gauzatzea - Onartutako urteko proiektuen ohiko oreka geografikoari eustea (batez ere Hego Amerikan, Erdialdeko Amerikan eta Karibean, eta Afrikan) - Onartutako urteko proiektuen % 70en helburua tokian tokiko oinarrizko behar sozialei erantzutea izatea - Iruñeko GGKE-en % 70ek, gutxienez, oraindik ere iritzi ona izatea Hegoaldeko proiektuetarako tresnaren ikuspegi ireki, malgu eta irisgarriari buruz		
	1.6 **Larrialdiko eta gizaldeko laguntzako eskuhartzeetarako diru-laguntzen tresna berrikustea, orain baino eraginkorragoa izan dadin eta birgaitzeko nahiz garatzeko proiektuekin zerikusia izan dezan**		- LGLko eskuhartzeen deialdien oinarriak berrikustea balio erantsiko, koordinazioko eta izaera osagarriko elementuak indartzeko eta garapen-prozesuekin bat egiteko, 2020tik aurrera	- UGLPk babestutako LGLko ekintzen % 100ek benetan indartu izana balio erantsiko, koordinazioko eta izaera osagarriko elementuak eta garapen-prozesuekin bat egitea	- GGKE-ek uste izatea UGLPko LGLko tresnak koherentzia eta jarduna hobetu dituela - Gehienez, UGLPko aurrekontuaren % 6 bideratzea LGLrako diru-laguntzen tresnara




ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	**2019**	**2020**	**2021**
2 GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTZEA, UGLPKO ESTRATEGIA NAGUSI MODUAN	**2.1 Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko (GHS) ekintzen pisua handitzea UGLPren esparruan**	- GHSrako aurrekontua UGLPren aurrekontu osoaren % 10 izatea, gutxienez	- GHSrako aurrekontua UGLPren aurrekontu osoaren % 11 izatea, gutxienez	- GHSrako aurrekontua UGLPren aurrekontu osoaren % 12 izatea, gutxienez	- GHSrako aurrekontua UGLPren aurrekontu osoaren % 12 izatea, gutxienez
	2.2 GHko ekintzak bultzatzea zenbait urtetarako, eta jarraitutasuna izateko asmoarekin	- Lankidetzaren eta GHSren esparruko diru-laguntzen udal-ordenantza berria aztertzea, eztabaidatzea eta onartzea, orain baino malgutasun handiagoa eta zenbait urtetarako gasturako konpromisoa ematen dituena	- Zenbait urtetarako (gehienez, hiru urte) GHSko ekintzen deialdi berria prestatzea eta abian jartzea - UGLPren aurrekontuaren % 1,1, gutxienez, zenbait urtetarako ekintzei esleitzea	- UGLPren aurrekontuaren % 1,3, gutxienez, zenbait urtetarako ekintzei esleitzea	- UGLPren aurrekontuaren % 1,5, gutxienez, zenbait urtetarako ekintzei esleitzea - GGKE-ek iritzi ona izatea zenbait urtetarako GHSko ekintzen tresna berriari buruz
	2.3 GHko ekimenak sustatzea zenbait GGKEtan edo partzuergoetako erakunde sozialetan	- Zenbait urtetarako GHko ekintzen deialdian, partzuergoan antolatzeko aukera aztertzea, 2019tik aurrera	- Zenbait urtetarako GHSko ekintzen % 100 partzuergo moduan gauzatzea, zenbait GGKE edo erakunde sozialen artean - GGKE-ek uste izatea GHSko lotura eta estrategia egonkorrak sortu direla GGKE-en artean, eta ekintzen inpaktua nahiz iraunkortasuna indartu direla partzuergoan lan egitearen ondorioz		
	2.4 GGKE-ekin batera, erakundeak eta plataforma sozialak GHko ekintzetan inplikatzea	- Plataforma eta erakunde sozialak zenbait urtetarako GHko ekintzen deialdian kontuan hartzeko aukera aztertzea, 2019tik aurrera	- Zenbait urtetarako GHSko ekintzen % 50ean, erakunde eta plataforma sozialak inplikatzea, neurri batean, eta zuzenean edo zeharka - GGKE-ek uste izatea lagungarri izan dela GGKEak eta mugimendu sozialak hurbiltzeko, eta haien arteko loturak sortu direla zenbait urtetarako ekintzen ondorioz		
	2.5 Unean uneko sentsibilizazio-jardueren (USJ) eta UGLPk babesten dituen beste ekintza batzuen arteko izaera osagarria indartzea	- USJko deialdiak UGLPko beste ekintza batzuen osagarri izateko baldintzak indartzea	- USJko ekintzen % 100 UGLPko beste ekintza batzuekin lotuta egotea, zuzenean edo zeharka (UGLPko ekintza propioak, ekintzak Hegoaldean, GHSko beste ekintza batzuk) - UGLPko aurrekontuaren % 0,5 USJra bideratzea, gehienez		
	2.6 GHSko osagaiak txertatzea Hegoaldeko zenbait urtetarako programetan	- Zenbait urtetarako Hegoaldeko programen oinarriak aztertzea eta berrikustea, GHSko osagai bat txertatzeko 2019tik aurrera	- Zenbait urtetarako programen % 75ean, ongi txertatzea Iruñeko GHSko ekintzak - Programen ebaluazioetan frogatzea sinergiak sortu direla Hegoaldeko garapenerako osagaien eta Iruñean GHSren esparruan gauzatzen diren ekintzen artean		

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	**2019**	**2020**	**2021**
3 UGLP-K BABESTEN DITUEN EKINTZEN KALITATEA HANDITZEA ETA GGKE-AK INDARTZEA, ERAGILE GARRANTZITSU DIREN ALDETIK	**3.1 UGLPren gaitasunak eta baliabideak indartzea Plan Zuzentzaile honetako erronkei aurre egiteko**	- UGLPko aurrekontua Iruñeko Udalaren hasierako aurrekontu osoaren % 0,74 izatea, gutxienez	- UGLPko aurrekontua Iruñeko Udalaren hasierako aurrekontu osoaren % 0,76 izatea, gutxienez	- UGLPko aurrekontua Iruñeko Udalaren hasierako aurrekontu osoaren % 0,78 izatea, gutxienez	- UGLPko aurrekontua Iruñeko Udalaren hasierako aurrekontu osoaren % 0,80 izatea, gutxienez
		- Udalak lankidetzako langile teknikoen profil espezifikoa prestatzea eta onartzea, UGLPko lanpostuak betetzeko - Urterik urte, UGLPko kudeaketa-gastuak UGLPri esleitutako aurrekontu osoaren % 8 inguru izatea - UGLPk urteko aurrekontu osoaren % 1, gutxienez, bere jardueretarako izatea - UGLPk, gutxienez, lankidetzan prestakuntza duten bi langile izatea lan teknikoetarako, eta beste langile bat administrazio-lanetarako - Urterik urte, UGLPko langileek trebatzeko, birziklatzeko, trukatzeko edo gaitasunak indartzeko ekimen batean parte hartzea, gutxienez - UGLPko langileek eta Iruñeko GGKE-etako langileek uste izatea Udalak garapenerako lankidetza eta hezkuntzari begira dituen gaitasunak eta baliabideak indartu egin direla Plan Zuzentzailearen indarraldian zehar			
	3.2 Zenbait urtetarako programen ebaluazioei berriz ekitea, eta UGLPko langileak zein arduradun politikoak inplikatzen saiatzea	- Zenbait urtetarako Hegoaldeko programak ebaluatzeko plan bat diseinatzea, eta kanpoko ebaluazioak edo ebaluazio mistoak sustatzea (UGLPko langileek, arduradun politikoek eta TE-ek parte hartuko dute)	- UGLPk babestutako zenbait urtetarako programa baten ebaluazioa egitea eta hedatzea (GLUKen aurkezpena ere bai)		- UGLPk babestutako zenbait urtetarako programa baten ebaluazioa egitea eta hedatzea (GLUKen aurkezpena ere bai) - GGKE-ek, UGLPko taldeak eta GLUKeko kideek uste izatea ebaluazioek ikasketa ekarri dutela
	3.3 Proiektu pilotu moduan, GHSko ekintzen ebaluazioarekin probak egitea, jardunbide egokiak eta ikasketak sortzeko tartean dauden eragile guztientzat			- Erreferentzia-terminoak diseinatzea zenbait urtetarako GHko ekintzen ebaluazioetarako, GHko horrelako esku-hartzeak ebaluatzeko metodologia egokiekin	- UGLPk Plan Zuzentzailearen indarraldian zehar babestutako zenbait urtetarako GHko ekintzaren baten ebaluazio pilotu bat egitea eta hedatzea - Ebaluazioa eta metodologia hedatzeko lantegi bat antolatzea Iruñeko GGKE guztiekin
	3.4 3.4 Iruñeko GGKE-ek eta Hegoaldeko kideek gaitasunak hobetzen eta baliabideak erraz eskuratzen laguntzea	- Iruñeko GGKE-entzako lantegien plana diseinatzea, eta horretarako NGGKEK kontsulta egitea gaiei, ikuspegi, metodologiei eta lehentasunei buruz	- Lehenetsitako gai bati buruzko lantegia egitea Iruñeko GGKE-entzat - Lantegia egin duten erakundeek horri buruzko iritzi ona adieraztea	- Lehenetsitako gai bati buruzko lantegia egitea Iruñeko GGKE-entzat - Lantegia egin duten erakundeek horri buruzko iritzi ona adieraztea	- Lehenetsitako gai bati buruzko lantegia egitea Iruñeko GGKE-entzat - Lantegia egin duten erakundeek horri buruzko iritzi ona adieraztea
	3.5 3.5 NGGKEK babesten jarraitzea, Iruñeko GGKEak ordezkatzeko organo nagusia den neurrian	- NGGKEKrekin batera, Informazio Bulegoaren hitzarmenaren eredua berrikustea, eta beste dohaintza-emaile batzuekiko koordinazioa eta sinergiak bultzatzea	- NGGKEK babesten jarraitzea Informazio Bulegoa sustatzeko urteko hitzarmenaren bitartez - NGGKEKrekiko urteko hitzarmenari esleitutako aurrekontua UGLPren aurrekontu osoaren % 2 inguru izatea - Hala UGLPk nola NGGKEK-k uste izatea Informazio Bulegoa babestea oso garrantzitsua izan dela beren zereginak gauzatzeko - Informazio Bulegoko erabiltzaileen kopurua konstantea izatea Plan Zuzentzailearen indarraldian zehar, eta erabiltzaile horiek zerbitzua kalitatezkotzat jotzea		

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	2019	2020	2021
4 UGLP BESTE ERAKUNDE ETA EKIMEN BATZUEKIN KOORDINA DADIN ETA ELKARREN OSAGARRI IZAN DAITEZEN INDARTZEA	**4.1 Erakundeekiko elkarlana eta Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzuarekiko aldian behingo komunikazioa hobetzea**	- NGko Lankidetza Zerbitzuarekin elkarlanean aritzeko esparru bat eztabaidatu eta adostea hurrengo lau urteetarako, sinergiak zer eremutan sor daitezkeen aztertzea eta sinergiei etekina ateratzeko ekintza zehatzak planteatzea	- Urtean bi bilera egitea, gutxienez, NGko Lankidetza Zerbitzuarekin, elkarlanerako esparruaren jarraipena egiteko - UGLPk, NGko Lankidetza Zerbitzuak eta GGKE-ek uste izatea bi erakunde publiko horiek elkarren osagarri direla lehen baino neurri handiagoan, bai lankidetzaren bai GHSren esparruetan - Aldi honetan, UGLPk eta NGk bi ekimen antolatzea elkarrekin, gutxienez (lantegiak, biek finantzatutako programak Hegoaldean, ebaluazio bateratuak, etab.)		
	4.2 GHSren esparruan, UGLPren eta NGren arteko izaera osagarrian sakontzea, bakoitzak dituen abantailak oinarri hartuta	- UGLPko oinarrietan eta deialdietan GHS dela eta, lehentasuna ematea hezkuntza ez-formaleko eta informaleko ekintzei, Iruñeko Udalaren abantailak baliatuta, eta NGren ekintza formalagoen osagarri izatea	- UGLPk babestutako GHSko bi ekintzetan, gutxienez, sinergiak eta osagarritasunak egotea NGk babestutako beste ekintza batzuekin	- UGLPk babestutako GHSko bi ekintzetan, gutxienez, sinergiak eta osagarritasunak egotea NGk babestutako beste ekintza batzuekin	- UGLPk babestutako zenbait urtetarako GHSko ekintzaren ebaluazioan frogatzea sinergiak daudela NGk babestutako GHSko beste ekintza batzuekin
	4.3 Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsarekiko (LNTK) eta beste udalerri batzuekiko koordinazioa eta aldian behingo komunikazioa indartzea	- LNTKrekin elkarlanean aritzeko esparru bat eztabaidatu eta adostea hurrengo lau urteetarako, sinergiak zer eremutan sor daitezkeen aztertzea eta sinergiei etekina ateratzeko ekintza zehatzak planteatzea	- Urtean bi bilera egitea, gutxienez, LNTKrekin, elkarlanerako esparruaren jarraipena egiteko - UGLPk, LNTKak eta GGKE-ek uste izatea bi erakunde horiek elkarren osagarri direla lehen baino neurri handiagoan, lankidetzaren esparruan - Aldi honetan, UGLPk eta NUKFk bi ekitaldi edo ekimen antolatzea elkarrekin, gutxienez, bakoitzaren ikusgaitasuna eta erakundeetan duten pisua indartze aldera		
	4.4 UGLPren zeregina eta bizipenen trukea zein ekarpena areagotzea Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioko lankidetzaren arloan	- UGLPko langile teknikoak urtean behin joatea, gutxienez, FEMPk lankidetzaren arloan antolatutako ekitaldietara edo lan-jardunaldietara - UGLPk Iruñean Plan Zuzentzailearekin izandako esperientzia, erronkak, diseinua eta estrategia nagusiak aurkeztea FEMPren esparruan			

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	2019	2020	2021
5 UGLPREN GAINEKO EZAGUTZA ETA GARDENTASUNA HANDITZEA HERRITARREN ARTEAN ETA IRUÑEKO UDALEKO BESTE ALOR BATZUETAN IRUÑERRIA	**5.1 Plan Zuzentzaile hau eta UGLPren zeregina eta lorpenak Iruñeko herritarren artean hedatzea, Udaleko bideak erabiliz**	- Bi bilera egitea, gutxienez, Udaleko bi alorrekin, Lankidetzaren Plan Zuzentzailea eta UGLPren zeregina hedatzeko - Plan Zuzentzaile hau herritarren artean interesa izan dezaketen talde espezifikoetan hedatzea, eta Udaleko beste alor batzuekin elkarlanean nola aritu aztertzea		- Plan Zuzentzaile honen erdiko ebaluazioa herritarren artean hedatzea, Udaleko beste alor batzuekin elkarlanean	- Plan Zuzentzaile honen azken ebaluazioa herritarren artean hedatzea, Udaleko beste alor batzuekin elkarlanean - Herritarren % 10ek, gutxienez, zerbait entzun izana UGLPri buruz, eta horrek gauzatutako ekimenen bat ezagutzea
	5.2 UGLPri dagozkion GHSko jarduerak indartzea (hitzaldiak, dibulgaziozko jarduerak, ekitaldiak Hegoaldeko kideen bisitetan, etab.)	- UGLPren GHSko ekintzen plana prestatzea Plan Zuzentzailearen indarraldian zehar, eta horren baitan, lehentasunezko gaiak eta estrategiak jasotzea Iruñeko Udalaren abantailei etekina ateratzeko	- Urterik urte, UGLPren GHSko ekintza bat egitea, gutxienez, lehen urtean prestatutako planaren esparruan eta Udalak horretarako dituen baliabideak maximizatuta - UGLPk eta hartzaile nagusiek iritzi ona izatea UGLPk antolatutako GHSko ekintzei buruz		
	5.3 Online tresnen (web-orria) eta sare sozialen erabilera maximizatzea, UGLPren zereginaren berri emateko eta horri buruzko baliabideak emateko	- UGLPren web-orria berriz diseinatzea, orain baino errazago sartzeko eta erakargarriagoa zein interaktiboagoa izateko - UGLP eta haren lana zeharka hedatzea Iruñeko Udalaren sare sozialetan aipatuz	- UGLPren web-orria eguneratuta mantentzea hiruhileko bakoitzean, azken aldiko informazioarekin eta eskura dauden baliabide garrantzitsuekin - Urterik urte, UGLPrekin zerikusia duen albiste bat agertzea, gutxienez, Iruñeko Udalaren sare sozialetan - Web-orriaren erabiltzaile-kopurua eta sare sozialetako UGLPri buruzko albisteen jarraitzaileak ikusita, tresna horiek ondo samar onartu direla frogatzea		
	5.4 Plan Zuzentzailearen ezagutza eta UGLPren zeregina bultzatzea Udaleko beste alor batzuetan; horretarako, GIHei buruzko bizipenak eta ikuspegiak trukatzea eta GGKE-ek eta Hegoaldeko kideek egiten duten lana azaltzea	- Lan-saio bat antolatzea Iruñeko Udalaren barruan, eta Udaleko gainerako alorrak joatea, Plan Zuzentzailea aurkeztu eta hedatzeko, baita UGLPk udal-alor bakoitzarekin izan ditzakeen sinergiak ere, GIHen esparruan	- Gutxienez, bi lan-saio antolatzea Iruñeko Udalaren baitan, eta Udaleko gainerako alorrak joatea, Plan Zuzentzailearen erdiko eta azken ebaluazioak aurkezteko, baita beste alor batzuek eginiko ekarpenak eta GIHekiko loturak ere - UGLPk eta Iruñeko Udaleko beste alor batzuek bi ekimen antolatzea elkarrekin, gutxienez, edo denetan ezaugarri berak dituzten ekintzak sortzea		
	5.5 UGLPren babesa orain baino ikusgaiago egitea lankidetzari buruzko NGGKEKren Informazio Bulegoan eta zenbait urtetarako programetan	- NGGKEKrekin batera, Informazio Bulegoaren hitzarmenaren eredua berrikustea, eta UGLPk emandako babesaren ikusgaitasuna indartzea - UGLPk emandako babesaren ikusgaitasuna indartzea zenbait urtetarako programen oinarrietan (Hegoaldean eta GHSko ekintzak)	- NGGKEKren Informazio Bulegoko ekintzen % 100ean aipatzea (era grafikoan izan daiteke, edo hitzez agerraldi publikoetan) Iruñeko Udalaren babesa duela - Zenbait urtetarako Hegoaldeko programen eta Iruñean egiten diren zenbait urtetarako GHko ekintzen % 100ean aipatzea (era grafikoan izan daiteke, edo hitzez agerraldi publikoetan) Iruñeko Udalaren babesa dutela - Zenbait urtetarako programetan (Iruñean eta Hegoaldean) dabiltzan pertsona eta erakunde garrantzitsu gehienek jakitea UGLPren babesa dutela		

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2018	**2019**	**2020**	**2021**
6 GLUK BERRAKTIBATZEA, IRUÑEKO LANKIDETZAKO ERAGILE NAGUSIEK EZTABAIDATZEKO ETA INFORMAZIOA TRUKATZEKO FORO GARRANTZITSUENA DEN ALDETIK	**6.1 GLUKen funtzionamendua eta barne-erregelamendua berrikustea; hartara, lan egitea orain baino dinamikoagoa, partaidetza handiagokoa eta erakargarriagoa izan dadin, eta gaitasuna, motibazioa eta disponibilitatea duten pertsonak joan daitezen lehenestea**	- GLUKen erregelamendua berrikustea, orain baino zehatzagoa izateko eta udal-taldeen zein Iruñean intzidentzia aktiboa duten GGKE-en partaidetza erreala eta eraginkorra sustatzeko	- Plan Zuzentzailearen erdiko ebaluazioan, GLUKen funtzionamenduaren berrikuspena eta adostutako neurrien eraginkortasuna jasotzea, eta beharrezkoa izanez gero, beste batzuk proposatzea		- Plan Zuzentzailearen azken ebaluazioan GLUKen funtzionamendua jasotzea, eta frogatzea GLUKeko kideen % 75ek, gutxienez, uste dutela funtzionamenduak eta eraginkortasunak hobera egin dutela
	6.2 Udaleko talde eta GGKE guztien konpromiso politikoa sustatzea, UGLPko bileretara erregularitasunez joan eta era aktiboan inplika daitezen	- Plan Zuzentzailea, helburuak, eta erdiko nahiz azken ebaluazioak GLUKen aurkeztea, eta udal-taldeek eta GGKE-ek ekarpenak egin ditzaten eskatzea - Plan Zuzentzailearen indarraldia amaitutakoan, talde politikoen ordezkarien % 75 eta GGKE-en ordezkarien % 100, gutxienez, erregularitasunez joan izana GLUKen bileretara			
	6.3 Bileretan, zenbait urtetarako programekin (Hegoaldean eta GH) zerikusia duten kasu zehatz eta benetakoak aurkez daitezen eta horri buruz eztabaidatu dadin sustatzea	- UGLPk jorratu beharreko kasuei buruzko dokumentazioa bidaltzea bilera baino lehen, eta eztabaidarako eskatzen diren ekarpenak nabarmentzea - Bi urtean behin, zenbait urtetarako programa baten ebaluazioa aurkeztea GLUKen, eta horren aurkikuntzak eztabaidatzea, batik bat Udaleko beste alor batzuk inplikatzea dakartenak - Azken urtean, zenbait urtetarako GHko ekintza baten ebaluazioa aurkeztea GLUKen, eta horren aurkikuntzak eztabaidatzea			
	6.4 Udaleko beste alor batzuetako arduradunak eta teknikariak aldian behin inplikatzea, eta GLUKeko bileretan parte hartzera gonbidatzea	- GLUKen erregelamendua berrikustea, Udaleko beste alor batzuetako arduradunek eta teknikariek parte hartu ahal izateko	- Udaleko beste alor batzuetako edo LNTK-ko arduradunak edo teknikariak GLUKen bileretara joatea haientzat garrantzitsuak diren gaiak jorratzen direnean (esate baterako, zenbait urtetarako Hegoaldeko programen ebaluazioa, beste alor batzuek ekarpenak egin badituzte edo UGLP eta LNTK koordinatu badira, etab.)		
	6.5 GGKEak ez diren Iruñeko beste eragile garrantzitsu batzuk aldian behin inplikatzea, eta GLUKeko bileretan parte hartzera gonbidatzea	- GLUKen erregelamendua berrikustea, Iruñeko beste eragile garrantzitsu batzuek parte hartu ahal izateko	- Iruñeko beste eragile garrantzitsu batzuen (mugimendu soziala, NGko Lankidetza Zerbitzua, toki-erakundeak, etab.) ordezkariak GLUKen bileretara joatea haientzat garrantzitsuak diren gaiak jorratzen direnean (adibidez, GHSren esparruko aurrerapenak edo Iruñean egiten diren zenbait urtetarako GHko ekintzen ebaluazioak)		




TURF TOUR

10. PLANA EGIA BIHURTZEN: MODALITATEAK ETA TRESNAK

10.1 URTEKO PLAN OPERATIBOAK

Plan Zuzentzaile hau, plan estrategiko gehienak bezala, esparrua finkatzeko tresna bat da, zeinean Iruñeko udal-politika gauzatzeko ildo nagusiak jasotzen baitira hurrengo lau urteetarako, garapenerako lankidetza eta hezkuntzaren arloan. Horri begira, aurreko bi ataletan helburu eta adierazle zehatzak finkatzen saiatu gara urteen arabera banatuta, UGLPko taldearentzat aginte-koadroa izan dadin urterik urte ahaleginak zer ekintzatara bideratu erabaki behar dutenean.

Alabaina, Plan Zuzentzaile batean ezinezkoa da (eta ez da aproposa) urterik urte egin beharreko ekintzen xehetasun operatibo guztiak jasotzea. Aitzitik, behar bezain malguak izan behar dugu, xehetasun horiek UGLPk Plan Zuzentzaile hau garatzeko prestatzen dituen urteko plan operatiboen (UPO) bitartez zehaztu ahal izateko. UPO horietan, unean uneko baldintza zehatzak, testuinguruaren aldaketak, baliabideak eta benetako aukerak hartuko dira kontuan; hartara, Plan honetan aurreikusitako adierazleak ere egokitu daitezke, aurreko urteetako berrikuspenaren eta betetze-mailaren arabera.

Oro har, horra hor zer jasoko den UPOetan: aldi bakoitzerako finkatutako emaitzak lortzeko beharrezkoak diren **ekintza zehatzak** (aldi bakoitzean abiarazi beharreko deialdiei eta ildo nagusiei buruzko xehetasunak barne), **era labur, erraz, zehatz eta sistematikoan**; kasuan kasu inplikatuta dauden arduradunak eta eragileak; agindu diren **baliabide zehatzak**; eta jarraitu beharreko **urteko egutegi xehatua**[10].

Egokiena izango litzateke urte bakoitzeko UPO eta aurreko urteko memoria[11] aldi berean prestatzea urtarriletik otsailera bitarte, memoriaren ondorioak erabili ahal izateko eta urtea hasitakoan erabat operatibo egoteko. UPO horiek UGLPko talde teknikoak prestatuko ditu, eta GLUKen aurkeztuko dira organo horrek urterik urte egiten duen lehen bileran, otsail amaieran ahal dela. Horren ostean, hedatzeko lana (bai Udalean bai herritarren artean) egingo da, eta finkatutakoa aplikatuko.

10.2 MODALITATEAK

Oro har, UGLPk Plan Zuzentzaile honen indarraldian **garatuko dituen modalitateak ez dira aldatuko aurreko urteetakoekin alderatuta**. Hala, berretsi egiten da Plan honetan aurretik egindakoarekin jarraitu nahi dela, eta GGKE-ei zein Iruñeko beste eragileei segurtasuna eta ziurtasuna transmititu nahi zaizkiela, hori baita GGKE-ei eginiko inkestetan ikusitako UGLPren indargune nagusietako bat. Jarraian, modalitateak deskribatuko dira, baita bakoitzaren ezaugarri nagusietako batzuk ere.

10.2.1 LANKIDETZA HEGOALDEAN

UGLPren historian zehar, jarduera handiena modalitate honetan kontzentratu da (urteko aurrekontu osoaren % 80-85), eta batik bat horren eraginez da ezaguna, hala GGKE-en nola herritarren eta Udaleko beste alor batzuen artean. Pisu eta garrantzi horiek berak izango ditu Plan Zuzentzaile hau gauzatu bitartean, gure jardunaren berezko ezaugarri bat da eta.

UGLPren barruan, iruditzen zaigu lankidetza hori ez dela Hegoaldean behar handiena duten komunitateekiko elkartasunaren adierazpen soila, baizik eta haiekin dugun erantzunkidetasuna, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren arteko mendekotasuna gero eta handiagoa dela; izan ere, mundu honetan gorantz doaz Ipar eta Hegoaldearen arteko desberdintasunak, pobrezia-mailak ere gora egiten ari dira, eta kolektiboetan oinarrizko gabeziak daude, tentsio sozialak sortzen dira eta epe luzerako pobretzen gara. Ildo horretan, uste dugu modalitate honen bidez lagungarri garela, ahal dugun neurrian, oraingoa baino gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko, herri guztien garapena sustatzeko oinarri moduan, errespetuaren, elkarrizketaren eta lankidetzaren bidez, eta ehun soziala indartuz.

Plan Zuzentzaile honen indarraldian zehar, **malguak izaten jarraituko dugu Hegoaldean babesten ditugun lankidetzako ekintzen herrialdeei eta eremu geografikoei begira**; alegia, ez dugu zerrenda zorrotz eta baztertzaile bat egingo, beste dohaintza-emaile batzuekiko izaera osagarria bultzatzeko eta gure GGKE-ek abian dituzten askotariko ekintzak gauzatu ahal izateko. Edonola ere, **GGI baxuko edo oso baxuko komunitateak eta udalerriak** artatuko ditugu beti, nahiz eta horiek kokatuta dauden herrialdeko GGI handiagoa izan horiena baino, horren ondorioz tokian tokiko pobrezia-multzo eta desberdintasun sozial handiak ezkutatzen baitira.

Jarduteko sektoreen harira, lankidetzako modalitate honetan herritarrengandik gertuen dagoen mailako oinarrizko behar sozialei lehentasuna ematen jarraituko dugu, eskuarki tokian tokiko agintarien eskumenak baitira (oinarrizko hezkuntza, oinarrizko osasungintza, biztanleria, ura eta saneamendua, eta etxebizitza); gure ustez, ezinbesteko baldintza dira gaitasunak garatzeko, gizartea ahalduntzeko eta beste eskubide batzuk gauzatzeko.

Orobat, aurreko urteetako ahaleginekin jarraitze aldera, modalitate honetan arreta berezia jarriko dugu tokian tokiko gobernuak eta gizarte zibila indartzeko, oso garrantzitsua baita, besteak beste, oinarrizko premia horiek benetako eskubidetzat har daitezen eta tokian tokiko agintariek

10. UPOen edukiari, egiturari eta ereduzko formatuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo H eranskinera.

11. Ikusi urteko memorien kontzeptua, edukia, helburuak eta irismena Plan honetako 11.1 atalean.

eraginkortasunez, gardentasunez, partaidetzaren bidez eta iraunkortasunez berma ditzaten.

Funtsean, modalitate hau GGKE-ei diru-laguntzak emanez gauzatuko dugu, modalitate guztietan (urtekoak eta zenbait urtetarakoak); dena den, baliteke zuzeneko hitzarmenen bidez, funtsei ekarpenak eginez eta UGLPren beste jarduera batzuen bitartez ere gauzatzea. Nolanahi ere, modalitate honetako lehentasunezko solaskide eta kideak Hegoaldeko tokian tokiko agintariak eta gizarte zibileko erakundeak izango dira.

10.2.2 GARAPENAREN ALDEKO SENTSIBILIZAZIOA ETA HEZKUNTZA

UGLPk modalitate hau babestu du ia hasieratik, nahiz eta bideratu diren zenbatekoak txikiagoak izan diren Hegoaldeko lankidetzara bideratutakoak baino (gutxi gorabehera, UGLPren aurrekontu osoaren % 10).

Badakigu herrietan abantaila handiak ditugula GHSren esparruan lan egiteko eta laguntzeko, aurreko zenbait ataletan adierazi den bezala. Hori dela eta, Plan Zuzentzaile honetako ildo estrategiko nagusietako bat modalitate hau indartzea da, bai baliabideei bai modalitatearen sakontasunari begira, gure ahalmen eta balio erantsi guztiari etekina ateratzeko.

GHSren kontzeptua, edukia, irismena eta ikuspegia aldatuz joan dira abian jarri zenetik; garai hartan, ikuspegiek karitatearekin eta asistentziarekin, eta garapenarekin edo elkartasunarekin zuten zerikusia. Azken urteotan, berriz, giza garapen iraunkorra azpimarratu da, eta, gaur egun, azkenik, GHS **herritartasun globala eraikitzeko tresna** baten moduan ulertzen da. Abiapuntua da garapen-krisia ez dela Hegoaldeko herrialdeei soilik eragiten dien arazo bat, planeta osoari eragiten diola baizik, globalizazioaren fenomenoaren ondorioz.

Ikuspegi hori oinarri, UGLPren barruan uste dugu GHS prozesu jarraitu bat dela, eraldatzailea, eta ikuspegi kritiko, konprometitu eta plurala duela; Iruñean eta elkarlanean jarduten dugun Hegoaldeko herrialdeetan gauzatzen da, eta heziketa-maila guztiak hartzen ditu bere gain (formala, ez-formala eta informala). Alabaina, Iruñeko Udalaren abantailak eta beste dohaintza-emaile batzuekiko (bereziki Nafarroako Gobernua, hezkuntza formalerako abantailak dituena) izaera osagarria kontuan hartuta, UGLPk, Plan Zuzentzaile honen indarraldian zehar, **hezkuntza informal eta ez-formalean** ipini nahi du arreta bereziki.

GHSren barruan jorratu beharreko gaiei buruz, nahiago dugu hemen ere malguak izan, eta gaiak ez gehiegi mugatu; hartara, GGKE-ak eta mugimendu sozialak berez gauzatzen ari direnak babestuko ditugu batez ere. Alabaina, barneko koherentzia eta osagarritasuna direla medio, Hegoaldeko lankidetzaren modalitatean lantzen ari diren alderdiei eragiten saiatuko gara batez ere (oinarrizko behar sozialak, herrietan nagusiki, eta tokian tokiko gobernuak zein gizarte zibileko erakundeak indartzea). Halaber, Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH), bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuarekin lotutako gaiak ere nabarmenduko ditugu ekimen horiek gure udalerrian duten pisua ikusita, dokumentu honetako 5. atalean adierazi den bezala.

Modalitate hau jorratzeko, GGKE-ei diru-laguntzak emango zaizkie (unean uneko ekintzak, urtekoak eta zenbait urtetarakoak), zuzeneko hitzarmenak sinatuko dira (NGGKEKrekin batez ere), eta UGLPk berak ekintzak gauzatuko ditu. Horrez gain, planteatu dugu beste eragile eta mugimendu sozial batzuk GHSko ekintzetan inplikatzea aldi honetan, babesa, inpaktua eta eragina areagotu daitezen.

10.2.3 LARRIALDIETARAKO ETA GIZALDEKO LAGUNTZA (LGL)

Modalitate honen barruan, batetik, honako jarduera hauek sartzen dira: laguntza, babesa eta berreraikitzea, giza eskubideak defendatzea, lekukotasuna eta salaketa hondamendietan, biktimen zaurgarritasuna txikiagotzeko. Bestetik, berehalako eta premiazko elkarlana dago, biktimek bizirik iraun dezaten hondamendi naturaletan, gatazka armatuetan eta beste egoera batzuetan.

Aintzat harturik ere larrialdietan edo premia humanitario handien aurrean toki-erakunde batek **erantzuteko gaitasuna mugatua** duela, Iruñeko Udalak **garrantzitsu deritzo alor honetan sortzen diren ekimenetan laguntzeari.** Horrela, 1999az geroztik, larrialdi humanitarioko jarduketak laguntzen dira diruz, Iruñean diharduten hainbat erakundek garaturik; lehenbizi, GGKE-en unean uneko eskariei erantzuteko, eta 2003tik hona, diru-laguntzen berariazko deialdi baten bidez. Gaur egun, UGLPren urteko aurrekontuaren % 5 inguru bideratzen da modalitate honetara.

Babes hori ematen jarraituko dugu Plan Zuzentzaile honen esparruan, eta saiatuko gara eraginkortasuna, arintasuna, malgutasuna, koordinazioa eta osagarritasuna indartzen. Bereziki sustatuko da gure GGKEak eta tokian tokiko kideak jada dauden Hegoaldeko eremuetako herrietan jardutea, larrialdien ondorengo birgaitzearen eta garapenaren arteko jarraitutasuna bermatze aldera. Orobat, gutxieneko presentzia eta egitura ziurtatu behar dira, beste eragile eta dohaintza-emaile batzuekin koordinatu ahal izateko.

Bestalde, LGL eta GHSko modalitatea elkarren osagarri izan daitezen bultzatuko da, funtsean, hondamendien kausak (naturalak, eta batez ere, gizakiek ekarritakoak) Iruñean ezagutzera eman eta lekukotasuna adierazteari begira; orobat, garrantzitsua izango da errefuxiatuei zein asilo-eskatzaileei harrera egiteari buruz hartutako konpromisoak betetzea (nazioartean, Europan, estatuan eta herrietan).

Ahal dela, modalitate hau GGKE-ei diru-laguntzak emanez gauzatuko da, haiek guk baino abantaila gehiago, baliabideak eta egitura dituzte-eta lan egiten den eremuetan, eta hori ezinbestekoa da LGL jorratzeko.

10.2.4 BESTE BATZUK

Azkenik, modalitate honen barruan oso ekintza heterogeneoak daude, aurrekoen osagarri direnak; eskuarki, UGLPk gauzatzen ditu zuzenean, baina gerta daiteke beste eragile batzuekin elkarlanean egitea ere.

Zehazki, lankidetzari, boluntariotzari eta beste gai batzuei buruzko **informazioa eta orientabideak herritarrei** emateko ekintzak dira. Normalean, ekintza horiek NGGKEK-k kudeatzen duen Informazio Bulegoaren bidez gauzatzen dira (UGLPk hitzarmen baten bitartez babesten du), baita UGLPren zereginaren bidez ere, zuzenean.

Halaber, UGLPk babesten dituen GGKE-ekin koordinatzeko eta haiek indartzeko ekimenak ere jasoko dira; hartara, ezagutzaren eta esperientzien trukea sustatuko da (deialdi bakoitzean finantzatu direnen artean, nagusiki), GGKE-ek oso iritzi ona dute-eta horri buruz. Era berean, **GGKE-en gaitasunak indartzeko** ekimenak ere hemen sartzen dira (kanpoko ebaluazioak, ikastaroak, lantegiak, etab.), ekintzen kalitatea hobetze aldera; jarraipena eta ebaluazioa ere hemen jasoko dira.

Amaitzeko, modalitate honen azken osagaia dira UGLPren eta lankidetzako beste eragile garrantzitsu batzuen arteko komunikazioa, informazio-trukea eta erakundeen arteko harremanak[12]. Eragile horiek Iruñeko Udaleko beste alor batzuk izango lirateke, Hegoaldeko toki-erakundeak eta kideak, udalerriko eta estatuko lankidetzako beste eragile batzuk (Nafarroako Gobernua, beste udal batzuk, AECID), tokiko (LNTK) zein estatuko (FEMP) lankidetzaren aldeko funtsak.

Jarduketa horiek guztiak ez dira aurrekoak bezain ikusgaiak, baina garrantzitsuak dira horiek gauzatu ahal izateko; horrenbestez, bere horretan jarraituko dute Plan Zuzentzaile honen indarraldian zehar. Zehatz-mehatz, dokumentu honetako aurreko ataletan aipatu den diagnostikoaren ondorioz, UGLPk bere jarduna biziagotuko du jarduketa horietako batzuetan; adibidez, **Udaleko beste alor batzuekiko komunikazioa**, politiken koherentzia areagotzeko, edo babesten diren GGKE-en gaitasunak ebaluatzea edo indartzea.

10.3 TRESNAK

10.3.1 DIRU-LAGUNTZAK GGKE-EI

GGKE-ek, lankidetzako eragile diren aldetik, Iruñean duten pisu, balio erantsi eta garrantziarekin bat etorriz, eta UGLPren azken urteotako lan-ildoarekin jarraitzeko, GGKE-ei diru-laguntzak emateko tresnak jarraituko du gure Plan Zuzentzailean pisurik handiena izaten hurrengo lau urteetan, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.

GGKE-ei deialdi publiko, ireki eta irizpide argikoen bitartez laguntzak ematea lagungarri da UGLPren gardentasuna eta kontuak ematea areagotzeko. Edozein kasutan ere, tresna honen erronka oreka egokia lortzea izango da. Izan ere, batetik, proposamenak aurkeztu eta justifikatzen direnean, administrazioan behar den zorroztasunez jokatu behar da eta araudian (eta Udaleko kontu-hartzailetzan) eskatzen diren baldintzak bete behar dira; eta bestetik, ezinbestekoa da malguak izatea lankidetzako eta GHSko ekintzekin, batik bat Hegoaldean egiten direnekin, testuingurua konplexua da eta. Horretarako, UGLPk bultzatu egingo ditu araudiak onartzen dituen behar beste neurri edo interpretazio alternatibo, ez dadin gehiegi nabarmendu diruz lagundutako proposamenen administrazio-alderdien berrikuspena soilik, eta beraz, ez dezan eragotzi beste alderdi tekniko garrantzitsu batzuetan behar adina arreta ipintzea, funtsean, proposamenen kalitateari, inpaktuari eta iraunkortasunari begira.

Hasiera batean, UGLPk eutsi egingo die GGKEak diruz laguntzeko deialdi publikoei, nahiz eta balitekeen horietako batzuk berrikustea edo aldatzea, Plan Zuzentzaile honetako helburu estrategikoak lortzeko beharrezkoak diren alderdiak txertatze aldera. Jarraian, hurrengo aldian GGKE-ei diru-laguntzak emateko deialdi nagusien berri emango da labur, ezaugarri nagusiak eta guzti:

- **Diru-laguntzak Hegoaldean egiten diren lankidetzako urteko proiektuetarako**

  Orain arte bezala, tresna honek izango ditu UGLPko aurrekontu osoko baliabide gehien. Hala, tresna honen bidez, Iruñeko GGKE-ei eta tokian tokiko kideei laguntzen jarraituko dugu, Hegoaldean abian dituzten garapenaren aldeko ekimenetan. Tresna hau malgua eta irekia da, ez da mugatu zer herrialdetan gauzatu, baina pobretuta dauden eremuak bereziki azpimarratu behar dira; dena den, zaurgarritasuna behar bezala justifikatu beharko da. Ildo horretan, arreta berezia ipiniko da prekarietate handieneko herrialdeetan (herrialde ez hain aurreratuak) egingo diren proiektuetan. Nola herrialde horietan hala Hegoaldeko beste eremu jakin batzuetan, oinarrizko behar sozialei erantzuteko ekintzak sustatuko dira. Era berean, tokian tokiko gobernu-egitura sendoak eta neurri batean egonkorrak dituzten herrialdeetan, gizartea ahalduntzeko eta eskubideak bermatzeko ikuspegi sendoarekin lan egingo da. Proiektu horiek 24 hilabete iraungo dute, gehienez.

- **Diru-laguntzak Hegoaldean egiten diren lankidetzako zenbait urtetarako proiektuetarako**

  UGLP 2006an hasi zen tresna hau erabiltzen, ohi baino asmo handiagoko egiturazko esku-hartzeek jarraitutasuna izan

12. Beste eragile horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi dokumentu honetako 6. atala.

zezaten; horietan, tokian tokiko agintarien zeregina eta erakundeak indartzea funtsezkoa da. Jorratu nahi ditugun herrialdeek eta sektoreek bat etorri beharko dute UGLPk deialdi bakoitzean zehazten dituen lehentasunekin, eta aurretiko esperientzia zein tokian tokiko abantailak baliatuko dira.

Plan Zuzentzaile honetan, tokian tokiko iraunkortasunaren, koherentziaren eta inpaktuaren alde egiten da; horrenbestez, tresna hau sustatu egingo da hurrengo urteetan, baliabideak emateari eta kalitateari zein irismenari begira, nagusiki. Zehazki, tresna zehatza izatea nahi dugu, Hegoaldeko ekintzak ez ezik, politiken koherentziarekin eta Iruñeko GHSrekin zerikusia duten elementuak ere bere gain hartzen dituena (unean-unean, eta proba pilotu moduan), horiek Hegoaldeko ekintzekin lotuta daude eta. Horretarako, tresna honen emaitzei begirako kudeaketan arretan handiagoa jartzea bultzatuko dugu; hartara, urteko planen aurkezpenarekin eta justifikazioarekin malgu jokatuko dugu ahal den neurrian, eta UGLPk hasieratik diruz lagundutako GGKE-ekin zenbait urtetarako dituen konpromisoak indartuko ditugu. Tresna honek hiru urte iraungo du, gehienez.

- **Diru-laguntzak Unean uneko Sentsibilizazio-Jardueretarako (USJ)**

Deialdiaren araubidea banakako ebaluaziokoa da, eta haren bidez, GGKE-en babes-eskaerei erantzuten saiatuko gara era bereizi eta arinean; hots, laguntza eskatzea unean uneko sentsibilizazio-jardueretarako Iruñean, horien ezaugarriengatik erraz kudeatzen eta azkar ebazten badira, eta gastu-zenbateko txikiagoa eragiten badute. Tresna honi esleitutako baliabideak mugatuak izango dira, eta beti emango zaie lehentasuna UGLPk babestutako beste ekintza batzuen oso osagarri direla frogatzen dutenei. Zehatz-mehatz, sinergiak bultzatuko dira Hegoaldean gauzatzen diren lankidetzako proiektuekin edo eskala handiagoko GHSko beste ekimen batzuekin, ekintza eskatzen duten GGKE-en eskutik; era berean, sinergia horiek UGLPk berak edo Udaleko beste alor batzuek antolatutako beste ekintza batzuekin sor daitezke, sustatu nahi diren gaiak jorratzen badira. Hasiera batean, USJ bakoitzak hiru hilabete baino gutxiago iraun behar du. Tresna honen funtsak bukatzen ez badira, UGLPren beste tresna batzuetara pasatuko lirateke, eta halakoetan, GHS da lehentasuna.

- **Diru-laguntzak GHSko urteko proiektuetarako**

Deialdi honen xedea da Iruñean egin beharreko garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak beste hainbatekin finantzatzea, biztanle orori zein talde jakin batzuei zuzenduak. Talde horien artean, sentsibilizatzeko ekintzak gazteei bereziki hurbiltzen saiatuko gara, etorkizunean Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruzko pentsamoldea eta jarrera aldatzea sendotzeko. Deialdi honen helburu orokorra da sentsibilizatzea edo trebakuntza ematea Hegoaldeko herrialdeen egoerari, egoera horren kausei, eta egoera horretan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginei buruz. Konpromiso solidarioko jarrerak sustatu nahi dira, Iruñeko herritarren artean Ipar-Hego harreman bidezkoagoen eta berdintasunezkoagoen alde, oraingoekin alderatuta. Horrezaz landa, tresna honen bitartez sustatuko da herritarrek GIHak ezagutzea eta Udalak horiek benetan aplikatzea Iruñean.

Iruñeko Udalaren abantailak aintzat harturik, lehentasuna emango zaie hezkuntza ez-formalean gauzatzen diren ekintzei, eta ahal den neurrian, Iruñeko beste plataforma, talde eta mugimendu sozial batzuk inplikatuko dira.

Plan Zuzentzailearen indarraldian zehar, tresna honetara bideratutako baliabideen proportzioa orain artekoa izango da; xedea GHSko ekintza zehatzak egitea izango da, gai, hartzaile eta helburu ongi definitu eta mugatuekin, Iruñean ekintza errealista eta bideragarriak lehenesteko. Ildo horretan, tresna honen barruan, Iruñeko GGKE-ei emango zaie lehentasuna; alegia, egoitza gure udalerrian izateaz gain, aktibismo- eta inplikazio-maila handiak izan beharko dituzte, eta loturak Iruñeko beste eragile batzuekin.

- **Diru-laguntzak garapenerako hezkuntzako zenbait urtetarako proiektuetarako**

Tresna hau I. Plan Zuzentzailearen bidez txertatutako berritasun bat da. Honen bitartez, Iruñean egingo diren garapenerako hezkuntzako (GH) ekintza sakonagoak, asmo handiagokoak eta zehatzagoak babesten saiatuko gara; zehazki, helburua jarrerak eta jokabideak aldatzea izango da zuzenean, eta horretarako, askotariko eragileak inplikatuko ditugu, modalitate honetan herrietan ditugun abantailak ahalik eta gehien indartzeko.

Tresna honek hiru urte iraungo du gehienez; hartara, Hegoaldeko zenbait urtetarako lankidetzako proiektuekin gertatzen den bezala, emaitzen araberako kudeaketa erraztuko da. Ildo horretan, urteko aurkezpenarekin eta justifikazioarekin malgu jokatuko dugu ahal den neurrian, eta UGLPk hasieratik diruz lagundutako GGKE-ekin zenbait urtetarako dituen konpromisoak indartuko ditugu.

Zenbait urtetarako GHko proiektuen baitan, Iruñeko beste eragile batzuk inplikatu beharko dira gauzatuko diren jardueretan, batik bat erakunde eta mugimendu sozialak (eragin biderkatzailea eta emaitzak nork bere egitea bermatzeko) eta Udaleko beste alor batzuk (politiken koherentzia indartzeko). Gainera, proiektuak udalerrian diharduten zenbait GGKEren arteko partzuergoan aurkeztu beharko dira. Azkenik, gaietan GIHei buruzko alderdiak txertatu beharko dira, eta UGLPk deialdi bakoitzerako finkatzen dituen lehentasunen barruan egon beharko dute.

- **Diru-laguntzak Larrialdietarako eta Gizaldeko Laguntzarako (LGL)**

  Deialdia banakako ebaluazio-araubidekoa denez, eskariak aurkeztu baino lehen, GGKE bakoitzak zuzeneko harremana izango du UGLPrekin, dirua eskura dagoela baieztatzeko, eta era berean, aurkeztu beharreko proiektuak deialdiaren ezaugarrietara egokitzeko. Deialdi honen ezaugarri bereziak direla eta (baliabide mugatuak, malgutasuna, bizkor erantzuteko beharra, koordinazio egokiaren garrantzia), helburua da eginiko eskaintza publikoa eta finantzazioa lortu duten jarduketak bat etortzea.

  Tresna honek pisu erlatibo bera izango du UGLPko aurrekontuaren barruan; nolanahi ere, oinarriak berrikusi egingo dira eraginkorragoa izan dadin (batez ere, izaera irekia duelako urte osoan), Hegoaldeko lankidetzako beste ekintza batzuen osagarri izan dadin indartzeko. Edonola ere, balio erantsia eta larrialdien ondorengo birgaitzearen eta garapenaren arteko jarraitutasuna sustatuko dira, eta horretarako, babesa eskatzen duten GGKE-en edo tokian tokiko kideen presentzia erregularra eta egonkorra izango da.

10.3.2 LANKIDETZA-HITZARMENAK UGLP-REN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEN ARTEAN

Tresna honen barruan, UGLPren eta beste eragile batzuen arteko zuzeneko elkarlana sartzen da; eragile horiek zuzeneko edo zeharkako lotura izan dezakete garapenerako lankidetza eta hezkuntzarekin, publikoak edo pribatuak izan daitezke (GGKEak barne), eta Udalaren edo eragile horien ekimenez sor daiteke hitzarmena. Eskuarki, hitzarmenak urtekoak izango dira, eta urte bakoitza bukatzean berritu ahal izango dira.

Tresna hau **UGLPren eta NGGKEKren arteko elkarlana** bideratzeko erabili ohi da, **Informazio Bulegoa** eta GGKE-en lan koordinatua **babesteko**. Hurrengo urteetan, asmoa da ekimenarekin jarraitzea, hura indartzea eta Plan honen diagnostikoan identifikatutako erronkei heltzea; funtsean, Bulegoa eta NGGKEK babesten dituzten beste dohaintza-emaile batzuekiko koordinazioa hobetzea, UGLPren babesaren ikusgaitasuna indartzea, eta teknologia berriak estrategia moduan bultzatzea.

Halaber, nahiz eta ez den formalizatu hitzarmenaren tresnaren baitan zehatz-mehatz, **UGLPk Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsari urtero egiten dion funtsen ekarpena ere hemen sar daiteke (aurrekontuko laguntza gisa)**. Ekarpen hori egiten jarraituko dugu etorkizunean, eta horrez gain, saiatuko gara Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsak babesten dituen ekintzak eta UGLPk bultzatu ditzakeen antzeko ekintzak neurri handiagoan koordinatzen eta elkarren osagarri izaten.

Bukatzeko, Plan Zuzentzaile honen esparruan, UGLPren beste hitzarmen batzuk ere finka litezke (mugatua beti, eta oso kasu garrantzitsuetan), UGLPk balio erantsia duen ekimenak bultzatzeko, baldin eta horien helburu nagusia lankidetzako beste eragile batzuekiko (adibidez, Nafarroako Gobernua edo Iruñeko Udaleko beste alor batzuk) koordinazioa, osagarritasuna eta politiken koherentzia indartzea bada. Hasiera batean, ez dira Plan Zuzentzaile honen esparruaren baitan sartzen UGLPren eta Hegoaldeko toki-erakundeen arteko zuzeneko hitzarmenak lankidetzako ekintzetarako, baliabide gutxi eta balio erantsi txikia baitago horretarako.

10.3.3 UGLP-REN EKINTZAK

Tresna honen baitan daude UGLPk zuzenean gauzatzen edo sustatzen dituen jarduera guztiak, izan bere bitartekoak erabilita izan kanpoko laguntza teknikoa kontratatuta.

Bistan denez, taldearen zeregin nagusia **arestian aipatutako ekintza guztiak kudeatzea da, bereziki GGKE-ek diru-laguntzak jaso badituzte** horietarako, bai Hegoaldeko lankidetzakoak bai GHSkoak. Horrenbestez, honako hauek guztiak izan daitezke: deialdien oinarriak diseinatzea eta idaztea, aurkeztutako proposamenak aztertzea eta baremoa ezartzea, jarraipena, eta justifikazio tekniko eta finantzarioak berrikustea. Zeregin hau UGLPko taldearen lan-zamaren zatirik handiena da, eta hala izango da etorkizunean ere; hartara, proiektuen administrazio-alderdietan ez ezik, saiatuko gara alderdi teknikoetan ere ekarpenak egiten.

Halaber, aurreko ekintzaren osagarri gisa, UGLPk sustatu egiten du diru-laguntzen deialdietan babestutako GGKE guztien artean **koordinatzea, informazioa ematea eta esperientziak trukatzea**. GGKE-ek oso iritzi ona dute zeregin horren gainean, eta UGLPko taldeak balio erantsi handia eman dezake hartan, babesten dituen ekintza guztiak ezagutzen baititu eta legitimitatea baitu koordinazio eraginkorra bultzatzeko GGKE-en artean. Hori dela bide, horrekin jarraitu da eta sustatu ere egingo da Plan Zuzentzailearen indarraldian zehar.

Horrekin lotuta, Plan Zuzentzailea gauzatu bitartean, UGLPk indartu egingo du **GGKE-ei finantzatutako ekimenetako batzuen ebaluazioa** egitea. Horrela jokatuz, babesten diren ekintzen kalitatea areagotu eta GGKE-en gaitasunak indartu nahi dira. Zehazki, Hegoaldeko zenbait urtetarako lankidetzako proiektu batzuen eta zenbait urtetarako GHko proiektu berrien ebaluazioak egin nahi dira. Mistoak izango lirateke; alegia, kanpoko erakunde batek bideratuko lituzke eta UGLPk, GGKE-ek eta kideek ere parte hartuko lukete. Ebaluazio horiekin zuzenean edo zeharka lotuta, Iruñeko GGKE-en artean **prestakuntzako edo emaitzak hedatzeko ekimenak** antolatu ahal izango dira.

UGLPren ekintzen artean, beste osagai bat UGLPren esparruko erakundeen arteko harremanak, koordinazioa eta lana hedatzea da. Horra hor zer ekintza diren horiek: arreta Hegoaldeko erakunde publiko eta pribatuen bisitetan, Iruñeko Udaleko beste alor batzuekiko komunikazioa (formala eta


informala), esperientziak trukatzea beste toki-erakunde batzuekin (Nafarroakoak zein estatukoak), eta arreta hedabideei.

Orobat, hurrengo urteetan **UGLPren ekintzak sustatu nahi dira GHSren esparruan**, Udalak lehentasunezkotzat jotzen dituen gaien gainekoak, nagusiki, baldin eta hori dela-eta zuzenean bultzatu nahi badira. Horretarako, eremu publikoaren abantailak baliatuko dira: esperientzia propioa, udal-baliabideak eskura izatea, beste erakunde batzuek baino inpaktu handiagoa izatea hedabideetan, eta sinergiak Udaleko beste alor batzuekin.

Amaitzeko, UGLPk zeregin propioak gauzatzen ditu **GLUK bultzatzearekin eta idazkaritza-lanak egitearekin** lotuta, oso foro garrantzitsua baita Iruñean lankidetzan diharduten hainbat eragilek (funtsean, talde politikoak, GGKEak eta UGLPko talde teknikoa) informazio trukatzeko, eztabaidatzeko eta koordinatzeko. Hurrengo urteei begira, erronka organo hori dinamizatzea eta ematen dituen aukera guztiei etekina ateratzea izango da, diru-laguntzen urteko deialdiak eta horien emaitzak era formalean aurkezteaz gain.

Ekintza horiek guztiak ongi eta zorroztasunez egin ahal izateko, eta Plan Zuzentzaile honetan finkatutako erronkei aurre egiteko, ezinbestekoa izango da **UGLPk behar beste baliabide eta gaitasun izatea**, balio erantsia ahalik eta neurririk handienean baliatze aldera.


IVECO
GEXIMA



11. EGINDAKOA BERRIKUSTEN: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

11.1 PLAN ZUZENTZAILEAREN JARRAIPENA

Asmoa da Plan Zuzentzaile hau erreferentzia-esparru bat izatea Iruñeko Udaleko lankidetzaren ildoei eta oinarrizko printzipioei buruz, baina baita tresna operatibo bat ere, UGLPk helburuen, jomugen eta adierazleen jarraipena egiteko aukera ematen duena. Horretarako, aginte-koadro batzuk finkatu dira dokumentu honetako 9. atalean, zeinetan jomuga zehatzak finkatu baitira urterik urte.

Bestalde, 10. atalean UGLPk urte bakoitzaren hasieran prestatzen dituen **urteko plan operatiboak (UPO)** aipatu dira, ekintza, egutegi eta jomuga zehatzagoak izateko Plan Zuzentzaile honetan finkatu diren helburu orokorragoen barnean.

Hortaz, jarraipenaren barruan, UGLPk aldian behin eta modu jarraituan aztertuko du UPO horiek zer neurritan betetzen ari diren. Jarraipen hori jasotzeko, UGLPk urteko memoria prestatuko du urte bakoitza bukatzen denean, orain arte bezala; dena den, edukiak I. eranskineko egiturari jarraituko dio.

UGLPk urtarriletik otsailera bitarte prestatuko du **urteko memoria**. Memoria hori eta hurrengo urteko UPO GLUKi aurkeztuko zaizkio, aztertzeko eta iritzia adierazteko. Ondoren, jakitera emango da eta GGKE-en, herritarren eta Udaleko beste alorren artean hedatuko da.

11.2 PLAN ZUZENTZAILEAREN EBALUAZIOA

Nahiz eta ezaugarri batzuk berberak diren, Plan Zuzentzailearen ebaluazioa eta aurreko atalean deskribatutako jarraipena ezberdinak dira. Jarraipena etengabea da, jarraitua; urte bakoitzerako aurreikusitako jarduerekin zerikusia du, UGLPk berak egiten du, eta urteko memorian jasotzen da. Ebaluazioa, aldiz, kanpoko begiratu bat da Plan Zuzentzaileko helburu guztiei, une jakin batzuetan egiten da, eta ebaluazio-txostenean jasotzen.

Plan Zuzentzaile honetarako, zehazki, **bi ebaluazio aurreikusi dira**: bat erdikoa izango da, indarraldiko bigarren urtea amaitutakoan; eta bestea azkena, indarraldiko laugarren urtea amaitutakoan. Bietan, UGLPk eta kanpoko bideratzaileek zuzenean parte hartuko dute, eta prozesua bideratu eta dinamizatuko duten adituak kontratatuko dira horretarako.

Bietan, ebaluaziorako ikuspegia parte hartzekoa izango da, eta tresna kualitatiboak zein kuantitatiboak erabiliko dira. Horra hor kualitatiboak: UGLPko erregistro eta estatistiken analisia, finantzatutako proiektu eta hitzarmenen analisia, testuinguruari buruzko dokumentazioa aztertzea, galdetegi masiboak, etab.; eta kuantitatiboak: elkarrizketak UGLPko taldearekin eta GLUKeko kideekin, elkarrizketak eta lantegiak GGKE-ekin, Udaleko beste alor batzuetako arduradunekin eta Iruñeko lankidetzako beste eragile garrantzitsu batzuekin. Aztertu beharreko adierazle nagusiak Plan Zuzentzailean proposatutakoak izango dira; hala ere, taldeak dokumentu honetan jaso ez diren beste adierazle edo alderdi batzuk aintzat hartu ahal izango ditu, baldin eta ebaluaziorako garrantzitsuak direla frogatzen bada.

Erdiko ebaluazioan, Plan Zuzentzailearen egokitasuna eta diseinua nabarmenduko dira; hartara, horren adierazpena egokia izan ote den aztertuko da, ea alderdi guztiak kontuan hartu dituen, eta ea finkatutako helburuak garrantzitsuak, argiak eta neurgarriak izan diren. Halaber, Plan Zuzentzailearen efizientziari ere erreparatuko dio; beraz, aztertuko da ea erabili diren bitartekoak (proposatutako modalitateak eta tresnak barne) eta baliabideak (giza baliabideak eta baliabide materialak) aproposak izan diren. Amaitzeko, eraginkortasunaren aurretiko analisia egingo da, proposatu diren helburuak espero zen neurrian bete ote diren jakiteko. Horrekin guztiarekin, ondorioak, ikasbideak eta gomendioak jasoko dira, Plana berrikusteko oinarri izango direnak, eta behar izanez gero, gelditzen den aldian beteko direla ziurtatzeko neurri zuzentzaileak txertatze aldera.

Bestalde, **azken ebaluazioan**, honako alderdi hauetan jarriko da arreta osoa: Plan Zuzentzailean aurreikusitako helburuen betetze-maila; inpaktua UGLP barruan, GGKE-etan eta tartean dauden gainerako eragile garrantzitsuetan; eta iraunkortasuna, Planeko lorpenetako batzuei denboran zehar eusteko gaitasun moduan ulertuta. Horren guztiaren ondorioz, ondorioak, ikasbideak eta gomendioak jasoko dira bi helbururekin: batetik, UGLPk egindakoaren kontuak emate gisa balio izatea GGKE-en, Udaleko gainerako alorren eta herritarren aurrean; eta bestetik, hurrengo Plan Zuzentzailea prestatzeko oinarria izatea, oraingoa amaitutakoan.

Bi kasuetan, hala erdiko nola azken ebaluazioa GLUKen aurrean aurkeztuko lirateke, aztertzeko eta eztabaidatzeko; ondoren, UGLPren ohiko bideetan argitaratu eta hedatuko lirateke: web-orria, hedabideak, lantegiak...



A PLAN ZUZENTZAILEA EGITEKO METODOLOGIA


FASEA	JARDUERAK	EMATEKO PRODUKTUAK	TRESNAK ITURRIAK	EPEAK
A.1 Prestaketa	- Administrazio-dokumentu osagarriak aurkeztea (bermea, etab.) - Prozedura edo administrazio-baldintzak argitzea eta kontratua sinatzea - UGLPrekin batera, zerbitzuaren testuingurua, ikuspegia, printzipioak eta irismena argitzea - Koordinazio Batzordea, harremanetan egoteko bideak eta UGLPren dokumentazio garrantzitsua eskuratzeko aukera ezartzea	- Kontratua izenpetuta eta garaiz emandako administrazio-dokumentazio guztia - Harremanetan jartzeko pertsonen zerrenda, bi aldeetakoa, xehetasun guztiekin - UGLPren zer dokumentazio eman den jasotzen duen zerrenda, eta konfidentzialtasun-konpromisoa izenpetuta - UGLPrekin egindako hasierako bilerako akta	- Dokumentuen analisia - Lehen harremana UGLPrekin, e-postaz, telefonoz edo Skype bidez - Dokumentazioa trukatzeko online plataforma (Dropbox) - **Lehen bilera aurrez aurre UGLPrekin**	**15 egun** esleipena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita
A.2 Kabinetea eta Diseinua	- UGLPn eskura dauden dokumentu guztiak aztertzea - Beste dokumentu garrantzitsu batzuk bilatzea eta aztertzea (lankidetzako beste plan batzuk, etab.) - Eskaintzan aurkeztutako proposamen metodologikoa berrikustea, eguneratzea eta xehetasunak ematea, informazioa biltzeko tresnak barne - Plan Zuzentzaileko lehen hipotesi eta ideia nagusiak zehaztea, eta barne-eztabaida UGLPn	- Aztertu diren eta Dropboxen eskuragarri dauden dokumentuen zerrenda - UGLPrekin adostutako behin betiko proposamen metodologiko xehea, informazioa biltzeko tresnak barne - Plan Zuzentzailearen egituraren lehen zirriborroa, ildo nagusiak, hipotesiak eta atal bakoitzeko alderdiak jasota - UGLPrekin egindako bigarren bilerako akta	- Dokumentuen analisia - Dokumentazioa trukatzeko online plataforma (Dropbox) - **Bigarren bilera aurrez aurre UGLPrekin**	**30 egun** UGLPrekin egiten den lehen bileratik aurrera zenbatzen hasita
A.3 Partaidetza-Diagnostikoa	- Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesuaren aurkezpen ofiziala Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan (GLUK) - Kontsultak Iruñeko eragile garrantzitsuei, udal-lankidetzaren diagnostikoaren, printzipioen, balio erantsiaren eta helburu handien gainean (eragileei eta erabilitako tresnei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo hurrengo eranskinetara) - Kontsulten emaitzak sistematizatzea eta UGLPrekin eztabaidatzea	- PPTa prestatzea GLUKekin egingo den bilerarako - GLUKekin egindako bilerako akta - Kontsulta-jarduera guztietarako behar diren agendak, egutegiak, tresnak, aktak eta bestelako materialak (kanpoko taldeak hartu zuen lidergoa bere gain, baina UGLPk ahal izan zuen babesa eman zuen, prozesua errazteko) - Kontsulten faseko emaitzak sistematizatzeari buruzko txostena - UGLPrekin egindako hirugarren bilerako akta	- GLUKen bilera - Informazioa biltzeko tresnak kontsulten fasean (ikusi erabilitako tresnen xehetasunak hurrengo eranskinetan) - Dokumentuen analisia - **Hirugarren bilera aurrez aurre UGLPrekin**	**60 egun** UGLPrekin egiten den bigarren bileratik aurrera zenbatzen hasita
A.4 Zirriborroak eta Eztabaida	- Plan Zuzentzailearen lehen zirriborroa idaztea (barnekoa) - Lehen zirriborroari buruzko barne-eztabaida UGLPrekin - Plan Zuzentzailearen bigarren zirriborroa idaztea - Plan Zuzentzailearen bigarren zirriborroa sozializatzea, eztabaidatzea eta Iruñeko eragile garrantzitsuek ekarpenak egitea (eragileei eta tresnei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo hurrengo eranskinetara) - Plan Zuzentzailearen hirugarren zirriborroa idaztea, eragile garrantzitsuen ekarpenak txertatuta - Hirugarren zirriborroari buruzko barne-eztabaida UGLPrekin	- Plan Zuzentzailearen zirriborroak (3), eragile bakoitzak egindako berrikuspenak eta ekarpenak adierazita - UGLPrekin egindako laugarren bilerako akta - Plan Zuzentzailearen zirriborroaren sozializazio- eta eztabaida-jardueretarako (eragile nagusiekin) behar diren agendak, egutegiak, tresnak, aktak eta bestelako materialak (kanpoko taldeak hartu zuen lidergoa bere gain, baina UGLPk ahal izan zuen babesa eman zuen, prozesua errazteko) - UGLPrekin egindako bosgarren bilerako akta	- Laugarren bilera aurrez aurre UGLPrekin - Parte hartzeko tresnak zirriborroak eztabaidatzeko fasean (ikusi erabilitako tresnen xehetasunak hurrengo eranskinetan) - Dokumentuen analisia - **Bosgarren bilera aurrez aurre UGLPrekin**	**60 egun** UGLPrekin egiten den hirugarren bileratik aurrera zenbatzen hasita
A.5 Behin betikoa eta hedatzea	- Plan Zuzentzailearen behin betiko dokumentua idaztea, diseinatzea eta maketatzea - Plan Zuzentzailearen aurkezpen ofiziala Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan (GLUK) - Plan Zuzentzailea Iruñeko eragile nagusien artean hedatzea (eragileei eta hedatzeko bideei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo hurrengo eranskinetara)	- Plan Zuzentzailearen hiru ale koadernatuta eta bi ale formatu elektronikoan - Plan Zuzentzailearen laburpen exekutiboa - Plan Zuzentzailearen PPTa - GLUKekin egindako bilerako akta	- GLUKen saioa - Plan Zuzentzailea eragile garrantzitsuen artean hedatzeko tresnak (ikusi erabilitako tresnen xehetasunak hurrengo eranskinetan) - **Seigarren bilera aurrez aurre UGLPrekin**	**45 egun** UGLPrekin egiten den bosgarren bileratik aurrera zenbatzen hasita

B INFORMAZIOA EMAN DUTEN PERTSONA ETA ERAKUNDEEN ZERRENDA


ERAKUNDEA	PERTSONA/JARDUERA
UGLP	Javier Gaztelu (teknikaria) Jaime Sarrasqueta (teknikaria) Manuel Goñi (teknikaria)
GLUK	Edurne Eguino (kontseiluburua) Marisol de la Nava (zuzendaria) Esther Cremaes (Geroa Bai) David Ziganda (OCSI) María Martín (SETEM) Jesús Blanco (PROCLADE) Montxo Oroz (MMNAM) Mª Angeles Ausejo (Acción Verapaz) Izaskun Lara (UNRWA) Maider Gabilondo (UNICEF) Diana Lazkano (F. Rinaldi)
NGGKEK	Maite Ruiz Informazio Bulegoa Laura Irurzun (Zuzendaritza Batzordea) Juan Mari Erice (Zuzendaritza Batzordea) Julia Urtasun (Intzidentzia Politikoa) María Álvarez (Intzidentzia Politikoa) Argia Aldaya (Hezkuntza) Montxo Oroz (Hezkuntza) Marian Pascual (idazkari teknikoa, Hezkuntza) Maite Ruiz (idazkari teknikoa, Informazio Bulegoa) Mariaje Huici (idazkari teknikoa, Lankidetza Deszentralizatua)
GGKE	52 GGKEk inkesta bete zuten (% 73)
Hegoaldeko kideak eta TE	Hegoaldeko 10 kidek eta TEk (% 50)
Kultura eta Hezkuntzako Alorra	María Arratibel (Joaquín Maya Musika Eskolako zuzendaria) Alfredo Hoyuelos (Udaleko Haur Eskolen gerentea)
Komunitate Garapeneko Alorra	Ana Goia (Alorreko Zuzendaria)
Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorra	Gerardo Hurtado (Ogasun eta Ekonomia Sozialeko Alorreko zuzendaria)
Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizarte Ahalduntzeko Alorra	Vanesa Eguiluz (Berdintasunerako teknikaria) María Díaz de Rada (Gazteriako teknikaria) Floren Luqui (Partaidetzako teknikaria)
Gardentasuneko Alorra	Alberto Gil (Komunikazio Zerbitzuko zuzendaria)
Nafarroako Gobernua	Andrés Carbonero (Diru-sarrerak Bermatzeko eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Zerbitzuko zuzendaria)
Iruñea Harrera Hiria	Peio Goiatxe (Iruñea Harrera Hiria)
UPNA	Susana Irasarri (Garapenaren aldeko Lankidetzako arduraduna)
NUKF	Juan Jesús Echaide (NUKFko funtsaren arduraduna)

C UGLPKO ERREGISTRO HISTORIKOEN ANALISI KUANTITATIBOA


Lankindetza-deialdiak: Proiektuen eta GGKEen bilakaera




GHSko deialdiak: Proiektuen eta GGKEen bilakaera




Lankidetza eta GHSko proiektuak: batezbesteko diru-laguntzak




Diruz lagundutako funtsak herrialdeka (1996-2017)




Diruz lagundutako GGKEak herrialdeka (1996-2017)




UGLPk babestutako proiektuak eskualdeka (1996-2017)




UGLPk babestutako proiektuak jarduera-esparruka (1996-2017)



Iruñeko Udalaren garapenarako aurrekontua: bilakaera



UGLParen aurrekontu-banaketa



(*) Grafiko honetan jaso diren datuetako batzuk, 1996-1999 aldikoak, UGLParen barne-erregistro atera dira, ez baitago memoria ofizialik, berez (2000tik aurrerakoak dira).

D GGKE ETA KIDEENTZAKO GALDETEGIEN EREDUAK

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA GGKE-ENTZAKO GALDETEGIA

Adierazi erantzunak X ikurrarekin edo idatzi laukitxo zurietan, mesedez. Gehienez ere, 15 minutu eman beharko zenituzke galdetegi hau betetzen.

ESKERRIK ASKO!

	Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia
1. Zure ustez, zenbaterainoko garrantzia edo lehentasuna du Iruñeko Udaleko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2017an egiteak?					
2. Nahi baduzu, erantzuna azaldu dezakezu (HAUTAZKOA).					
	Oso txarra	Txarra	Normala	Ona	Oso ona
3. Oro har, nolako iritzia duzu UGLPk orain arte izandako jardunari eta lorpenei buruz?					

4. Adierazi UGLPk orain arte erakutsitako alde onak edo indarguneak, eta alde txarrak edo ahulguneak, mesedez.

UGLPren alde onak edo indarguneak	
UGLPren alde txarrak edo ahulguneak	

5. Adierazi, zure iritzi, zenbateraino den garrantzitsua beheko plan, adierazpen, konpromiso edo politikekin bat etortzea Iruñeko Udaleko lankidetza etorkizunari begira definitzean eta esparru batean kokatzean.

	Oso garrantzi txikia du	Garrantzi txikia du	Garrantzi ertaina du	Garrantzi handia du	Oso garrantzi handia du
Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)					
Giza eskubideen aldarrikapena					
Generoarekin eta emakumeak ahalduntzearekin lotutako konpromisoak (Beijing+20, etab.)					
Laguntzaren eraginkortasunari buruzko adierazpenak (Paris, Akkra, Busan, etab.)					
Aldaketarako agenda (EB)					
AECIDen plan zuzentzaileak, estrategia sektorialak eta herrialdeetako esparru-hitzarmenak					
Nafarroako Gobernuko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea					
Berdintasunerako Iruñeko Plana					
Beste batzuk (idatzi hemen, mesedez)					

6. Zure ustez, zenbaterainoko garrantzia edo pisua izan behar dute beheko eragileek Iruñeko lankidetzako estrategia definitzean eta abiaraztean?

	Oso txikia	Txikia	Pixka bat	Handi samarra	Handia
Iruñeko GGKEak					
NGGKEK					
Lankidetzako Udal Kontseilua					
Lankidetzari buruzko Udaleko Informazio Bulegoa					
Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsa					
Hegoaldeko herrialdeetako toki-erakundeak					
Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Udal Alorra					
Hiri Bizigarri eta Etxebizitzako Udal Alorra					
Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Udal Alorra					
Hiri Ekologia eta Mugikortasuneko Udal Alorra					
Gobernuko Gardentasuneko Udal Alorra					
Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduntzeko Udal Alorra					
Herritarren Segurtasun eta Elkarbizitzako Udal Alorra					
Nafarroako Gobernuko Lankidetza Zerbitzua					
Iruñeko beste erakunde sozial batzuk (feministak, ekologistak, etab.)					
Etorkinen Iruñeko elkarteak					
Gizarte Erakundeen Plataforma (GEP)					
Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS)					
Iruñea Harrera Hiria plataforma					
Iruñeko unibertsitateak					
Enpresak eta sektore pribatua					
Hedabideak					
Unibertsitateak ez diren ikastetxeak					
Beste batzuk (idatzi hemen, mesedez)					

7. Zure aburuz, beheko printzipio edo balioek zenbaterainoko garrantzia izan behar dute Iruñeko Udaleko garapenaren aldeko lankidetzan?

	Oso txikia	Txikia	Pixka bat	Handi samarra	Handia
Elkartasuna					
Bakoitzak bere egitea eta bidelagun izatea					
Malgutasuna					
Hurbiltasuna					
Koordinazioa eta osagarritasuna					
Eskubideen ikuspegia					
Genero-berdintasuna					
Ingurumenaren iraunkortasuna					
Erantzunkidetasuna					
Kalitatea					
Eraginkortasuna					
Gardentasuna					
Partaidetza					
Egiturazko izaera eta iraunkortasuna					
Independentzia					
Berrikuntza					
Koherentzia					
Beste batzuk (idatzi hemen, mesedez)					

8. Zure ustez, Iruñeko Udaleko lankidetzak herrialde- eta sektore-kopuru mugatu batean kontzentratzera jo beharko luke?	Bai	Ez

9. BAI erantzun baduzu, idatzi zeini eman behar zaion lehentasuna, mesedez.

Lehentasunezko eskualdeak, eremuak edo herrialdeak	
Lehentasunezko sektoreak	

10. Adierazi, mesedez, zenbateraino zauden ados UGLPren beheko helburu estrategiko posibleekin, hurrengo urteei begira.

	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Berdin zait	Ados nago neurri batean	Erabat ados nago
GHS bultzatzea, herrien abantaila bat den aldetik					
Lehentasuna ematea Iruñeko GGKE-ei, zaila baita beste funts batzuk eskuratzea					
Kalitatea eta ikaskuntza hobetzea (prestakuntza, ebaluazioak, ikastaroak, ekitaldiak, etab.)					
Epe luzerako ekintzak sustatzea, inpaktua eta iraunkortasuna handitzeko					
UGLPrako funtsak areagotzea					
UGLPren gardentasuna eta kontuak ematea handitzea					
UGLPren eta Hegoaldeko erakundeen arteko zuzeneko lankidetza indartzea					
Politikak orain baino koherenteagoak izatea (lankidetza Udaleko beste alor batzuekin ere bai)					
UGLPren eta tokiko zein estatuko beste eragile batzuen arteko koordinazioa indartzea					
Udaleko lankidetza Europako plataforma eta ekimenekin lotzea					
Zenbait GGKEk partzuergoan bultzatutako ekintzen babesa sustatzea					
UGLPren eredua, printzipioak eta ezaugarriak orain baino argiago zehaztea					
Proiektuak aurkezteko, jarraipena egiteko eta justifikatzeko inprimakiak edo izapideak sinplifikatzea					
UGLPko udal-taldearen baliabideak, langileak eta tresnak indartzea					
Lankidetzako tresnak berrikustea (laguntzen deialdiak)					
Beste batzuk (idatzi hemen, mesedez)					

11. Etorkizunean, zure ustez, zenbateko pisua edo garrantzia izan behar dute beheko tresnek UGLPn?


	Oso txikia	Txikia	Normala	Handia	Oso handia
GGKE-entzako diru-laguntzak, epe ertainerako proiektuak egiteko TE-ekin, Hegoaldean					
GGKE-entzako diru-laguntzak, lankidetzako proiektuak egiteko Hegoaldean					
GGKE-entzako diru-laguntzak, unean uneko sentsibilizazio-jarduerak egiteko					
GGKE-entzako diru-laguntzak, GHSko proiektuak egiteko					
UGLPren eta Iruñeko erakundeen arteko zuzeneko hitzarmenak					
UGLPren eta Hegoaldeko erakundeen arteko zuzeneko hitzarmenak					
Ekarpenak Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsari					
Larrialdietarako eta gizaldeko laguntza					
Aipatu ez diren beste tresna batzuk (idatzi hemen, mesedez)					

12. Iruzkin kritiko edo hobetzeko iradokizunen bat badaukazu aurreko galderako tresnen harira, adierazi, mesedez (HAUTAZKOA).	


	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte
13. Zure iritziz, zenbait iraun beharko luke Iruñeko Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak?					
14. Eskerrik asko laguntzeagatik! Plan Zuzentzailea prestatzeari buruzko ideia, iradokizun edo iruzkinen bat adierazi nahi baduzu, hemen idatz dezakezu (HAUTAZKOA).					

E GGKE ETA KIDEENTZAKO GALDETEGIAREN SISTEMATIZAZIOA


PZ: Garrantzia




UGLP: Balorazioa




Esparru-planak eta Politikak: garrantzia




Printzipioak / Balioak




Kontzentrazio Geografikoa eta Sektoriala




PZ: Iraupena



Baliozko Helburu Estrategikoak



Tresnak: Garrantzia / Pisua



F DIAGNOSTIKOA EGITEKO ELKARRIZKETA ETA LANTEGIEN GIDOIAK

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA LANTEGIA NGGKEK-KO ORDEZKARIEKIN

- **HELBURUAK**: GGKE-entzako galdetegiaren emaitzei buruz eztabaidatzea era ireki eta malguan, eta horiei buruzko ideia eta interpretazio kualitatiboak adieraztea.

- **GARRANTZITSUA**: xedea ez da zertan izan jorratu beharreko gaiei buruz NGGKEK-k duen iritzi ofiziala jasotzea. Iritzi ofizialik badu zerbaiti buruz, lantegian zehar argitu ahal izango da, baina asmoa, berez, egun NGGKEK-ko kide diren norbanakoen iritzi eta uste kualifikatuak jasotzea da proposatutako gaien gainean, Iruñeko GGKE askoren iritzien adierazgarri direlakoan. Ez da ezinbestezkoa bertaratu guztiak beti egotea ados gai guztietan.

- **PROPOSATUTAKO DINAMIKA**: 1) aholkularitzako taldeak GGKE-ei eta tokian tokiko kideei eginiko inkestaren emaitza sistematizatuak aurkeztea (asmoa da emaitzen sistematizazioa lantegia baino lehen bidaltzea parte-hartzaileei); 2) bertaratuen iruzkinak eta eztabaida irekia taldean, proposatutako gai bakoitzari buruz.

- **BERTARATUAK**: lantegiaren ezaugarriak direla eta (dinamikoa eta parte hartzekoa), 10-12 lagun izango dira, gehienez. Pentsatu dugu bi lagun bertaratzea NGGKEK-ko lan-arlo bakoitzeko, bost dira eta.

- **IRAUPENA**: 4 ordu (erdian, 20-30 minutuko atsedenaldia)

JORRATU BEHARREKO GAIEN ZERRENDA:

1. Orain arte egindakoaren sarrera, aurkezpena eta sintesia; zailtasunak, etab. (bereziki, GGKE-ei eta tokian tokiko kideei eginiko inkestaren harira). (Aholkularitzako taldea)

2. Zenbaterainoko garrantzia edo lehentasuna du Iruñeko Udaleko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2017an egiteak. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

3. UGLPk orain arte erakutsitako alde onak edo indarguneak, eta alde txarrak edo ahulguneak. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

4. Zenbateraino da garrantzitsua plan, adierazpen, konpromiso edo politikekin bat etortzea Iruñeko Udaleko lankidetza etorkizunari begira definitzean eta esparru batean kokatzean. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

5. Zenbaterainoko garrantzia edo pisua izan behar dute eragileek Iruñeko lankidetzako estrategia definitzean eta abiaraztean. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

6. Iruñeko Udaleko lankidetzak izan beharreko balioak, printzipioak edo ezaugarri bereizgarriak. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

7. Kontzentrazioa (geografikoa eta sektoriala) vs malgutasuna Iruñeko Udaleko lankidetzan. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

8. UGLPren ildo eta helburu estrategiko nagusiak hurrengo urteetarako. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

9. UGLPren tresnen pisua edo garrantzia, eta bakoitza zertan hobetu daitekeen. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

10. Bereziki, NGGKEKrekiko hitzarmen erregularrari buruzko iritzi kritikoa, eta zertan hobetu daitekeen. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

11. Iruñeko Garapenaren Aldeko Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailearen iraupena. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

12. Eztabaida irekia NGGKEK-k adierazitako beste gai garrantzitsu batzuei buruz. (Emaitzak aurkeztea. Bertaratuen iritziak eta eztabaida irekia)

13. ONDORIOAK, hurrengo urratsetarako egutegia eta lantegia ixtea. (Aholkularitzako taldea)

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA GLUK-EKO KIDEEN ELKARRIZKETA EDO GALDETEGIAREN GIDOIA

Elkarrizketa edo galdetegiaren gutxi gorabeherako iraupena: 45-60 minutu

1. Elkarrizketatzaileak, Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesua eta GLUKen funtzionamenduari buruz hausnartzearen garrantzia aurkeztu.

2. Adierazi zenbat urte izan zara GLUKeko kide edo noiztik zara kide, mesedez. Zer erakunde edo udal-talderen ordezkari zara?

3. Zure iritziz eta zure esperientziari jarraikiz, zein dira, gaur egun eta praktikan, GLUKen misioa, helburu edo zeregin nagusiak (erregelamenduan jasotakoa alde batera utzita)?

4. Zure aburuz, GLUKek bere misioa, helburuak edo zereginak berrikusi behar al lituzke hurrengo urteei begira? Baietz erantzun baduzu, adierazi zer helburu edo zeregin gehitu edo berrikusi beharko liratekeen, eta zergatik.

5. Zure ustez, GLUKen osaera orekatua da eta alde guztiak behar beste ordezkatzen ditu? Ezetz erantzun baduzu, adierazi nola iruditzen zaizun hobetu litekeela osaera edo ordezkaritza, mesedez.

6. Zer iruditzen zaizu GLUKen barne-funtzionamendua (denborak, bileren maiztasuna, organoak eta lantaldeak, zereginen barne-banaketa, lankarga, tresnak eta eskura dauden baliabideak, etab.)? Funtzionamendua hobetzeko iradokizunik baduzu, idatzi hemen, mesedez.

7. Oro har, nolako iritzia duzu GLUKek orain arte egindako lanari buruz? Zure ustez, zein izan dira haren lorpen nagusiak orain arte? Eta etorkizunean heldu beharreko erronkak, ahulgunean edo mugak?

8. GLUKen zeregina alde batera utzita, nolakoa nahi zenuke izatea Iruñeko garapenaren aldeko lankidetza etorkizunean (helburuak, balioak, lehentasunak, tresnak, baliabideak, etab.)?

9. Eskerrik asko laguntzeagatik! Iruzkinik edo iradokizunik baduzu GLUKi edo UGLPri buruz, oro har, hemen idatz dezakezu.

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA UDALEKO BESTE ALOR BATZUEKIN EGINIKO ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUAREN GIDOIA

Elkarrizketaren gutxi gorabeherako iraupena: 45-60 minutu

1. Elkarrizketatzaileak, Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesua eta Udaleko beste alor batzuen iritzia izatearen garrantzia aurkeztu.

2. Zein dira zure alor edo saileko jarduketa-ildo eta programa nagusiak? Ba al dago plan zuzentzailerik? Ba al dago zuzeneko edo zeharkako harremanik Hegoaldeko herrialdeetako eragileekin?

3. Orain arte, harremanik, elkarlanean aritzeko saiorik edo benetako elkarlanik egon al da UGLPrekin, izan formala edo informala? Baietz erantzun baduzu, azaldu nolakoa izan den eta adierazi horri buruz duzun iritzia, mesedez.

4. Zer irudituko litzaizuke zure alorra edo saila garapenaren aldeko lankidetzako edo GHSko ekimenetan inplikatzea etorkizunean? Interesgarria deritzozu?

5. Baietz erantzun baduzu, zer ekimen edo eremutan izango litzateke posible elkarlanean jardutea?

6. Eta zein izango lirateke zailtasun edo erronka nagusiak (teknikoak, erakundearenak, aurrekontua, legeak, politika, etab.)?

7. Zure alorraren eta UGLPren arteko elkarlan posibleak alde batera utzita, nolakoa nahi zenuke izatea Iruñeko garapenaren aldeko lankidetza etorkizunean (helburuak, balioak, lehentasunak, tresnak, baliabideak, etab.)?

8. Eskerrik asko laguntzeagatik! Beste edozein iruzkin edo iradokizun adierazi nahi baduzu, hemen idatz dezakezu.

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA LANKIDETZARAKO NAFARROAKO TOKI FUNTSEKO ARDURADUNAREKIN EGINIKO ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUAREN GIDOIA

Elkarrizketaren gutxi gorabeherako iraupena: 45-60 minutu

1. Elkarrizketatzaileak, Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesua eta Funtsaren iritzia izatearen garrantzia aurkeztu.

2. Lankidetzaren esparruan, zein dira Funtsaren jarduketa-ildo nagusiak, balioak, lehentasun geografiko eta sektorialak, eta tresnak? Idatziz jasota al daude estrategia edo planen batean? Zer giza bitarteko eta bitarteko material daude horretarako, lankidetzarako urteko aurrekontua barne? Funtsak zer eragile jotzen ditu lehentasunezkotzat, edo zeinekin egiten da lan gehien?

3. Zehazki, nola erabakitzen da eta nola hautatzen dira Funtsak babestuko dituen lankidetzako proposamenak? Eta horien jarraipena edo ebaluazioa?

4. Orain arte, zein izan dira Funtsaren eta UGLPren arteko harreman eta elkarlan nagusiak, edozein motatakoak eta formal edo informalak? Azaldu itzazu eta adierazi horiei buruz duzun iritzia, mesedez.

5. Zer irudituko litzaizuke Funtsak eta UGLPk orain baino estuago elkarlanean jardutea etorkizunean? Zer ekimen edo eremutan izango litzateke posible elkarlanean jardutea, ekarpen ekonomikoez gain?

6. Eta zein izango lirateke zailtasun edo erronka nagusiak (teknikoak, erakundearenak, aurrekontua, legeak, politika, etab.)?

7. Funtsaren eta UGLPren arteko elkarlan posibleak alde batera utzita, zer ezaugarri bereizgarri eta balio erantsi izan beharko lituzke Iruñeko garapenaren aldeko lankidetzak? Zer ildotan indartu liteke, garapenaren aldeko lankidetzan, Funtsaren eta Iruñeko Udalaren zereginen arteko izaera osagarria?

8. Eskerrik asko laguntzeagatik! Beste edozein iruzkin edo iradokizun adierazi nahi baduzu, hemen idatz dezakezu.

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA NAFARROAKO GOBERNUKO LANKIDETZA ZERBITZUAREKIN EGINIKO ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUAREN GIDOIA

Inkesta betetzeko denbora, gutxi gorabehera: 45-60 minutu

1. Elkarrizketatzaileak, Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesua eta NGren iritzia izatearen garrantzia aurkeztu.

2. Lankidetzaren esparruan, zein dira NGren jarduketa-ildo nagusiak, balioak, lehentasun geografiko eta sektorialak, eta tresnak? Zer giza bitarteko eta bitarteko material daude horretarako, lankidetzarako urteko aurrekontua barne? NGk zer eragile jotzen ditu lehentasunezkotzat, edo zeinekin egiten da lan gehien?

3. Zer egoeratan dago bidean den NGren Lankidetzaren Plan Zuzentzailea egiteko prozesua? Nola prestatuko da (ikuspegia, irismena, epeak, erronkak, etab.)? Interesgarria irudituko litzaizueke UGLPrekin trukerik egotea bi planak prestatu bitartean? Zer ildotan?

4. Orain arte, zein izan dira NGko Lankidetza Zerbitzuaren eta UGLPren arteko harreman eta elkarlan nagusiak, edozein motatakoak eta formal edo informalak? Azaldu itzazu eta adierazi horiei buruz duzun iritzia, mesedez.

5. Zer irudituko litzaizuke NGk eta UGLPk orain baino estuago elkarlanean jardutea etorkizunean? Zer ekimen edo eremutan izango litzateke posible elkarlanean jardutea?

6. Eta zein izango lirateke zailtasun edo erronka nagusiak (teknikoak, erakundearenak, aurrekontua, legeak, politika, etab.)?

7. NGren eta UGLPren arteko elkarlan posibleak alde batera utzita, zer ezaugarri bereizgarri eta balio erantsi izan beharko lituzke Iruñeko garapenaren aldeko lankidetzak? Zer ildotan indartu liteke, garapenaren aldeko lankidetzan, NGren eta Iruñeko Udalaren zereginen arteko izaera osagarria?

8. Eskerrik asko laguntzeagatik! Beste edozein iruzkin edo iradokizun adierazi nahi baduzu, hemen idatz dezakezu.

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA
INKESTA UPNA-KO LANKIDETZAREKIN ARDURADUNARI

Inkesta betetzeko denbora, gutxi gorabehera: 45-60 minutu

1. Zein dira UPNAren jarduketa-ildo eta programa nagusiak lankidetzaren eta GHSren esparruan? Zer giza bitarteko eta bitarteko material daude horretarako, lankidetzarako urteko aurrekontua barne? Ba al dago plan edo estrategiaren bat finkatuta? Ba al dago zuzeneko edo zeharkako harremanik Hegoaldeko herrialdeetako eragileekin?

2. Orain arte, UPNAk harremanik, elkarlanean aritzeko saiorik edo benetako elkarlanik izan al du UGLPrekin, izan formala edo informala? Baietz erantzun baduzu, azaldu nolakoa izan den eta adierazi horri buruz duzun iritzia, mesedez.

3. Zer irudituko litzaizuke UPNAk eta UGLPk orain baino estuago elkarlanean jardutea etorkizunean? Interesgarria deritzozu?

4. Baietz erantzun baduzu, zer ekimen edo eremutan izango litzateke posible elkarlanean jardutea?

5. Eta zein izango lirateke zailtasun edo erronka nagusiak (teknikoak, erakundearenak, aurrekontua, etab.)?

6. UPNAren eta UGLPren arteko elkarlan posibleak alde batera utzita, nolakoa nahi zenuke izatea Iruñeko garapenaren aldeko lankidetza etorkizunean (helburuak, balioak, lehentasunak, tresnak, etab.)?

7. Eskerrik asko laguntzeagatik! Beste edozein iruzkin edo iradokizun adierazi nahi baduzu, hemen idatz dezakezu.

IRUÑEKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENTZAILEA DISEINATZEA ETA PRESTATZEA IRUÑEA HARRERA HIRIA PLATAFORMAKO ORDEZKARIEKIN EGINIKO ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUAREN GIDOIA

Inkesta betetzeko denbora, gutxi gorabehera: 45-60 minutu

1. Elkarrizketatzaileak, Plan Zuzentzailea prestatzeko prozesua eta plataforma sozialen iritzia izatearen garrantzia aurkeztu.

2. Zer misio, helburu eta lan-ildo ditu plataformak? Noiz sortu zen? Zenbat erakunde sozialek osatzen dute eta zer profil dute? Nolakoak dira barne-egitura eta besteak ordezkatzeko edo parte hartzeko bideak?

3. Plataformak ba al du ekimenik garapenaren aldeko lankidetzaren eta GHSren esparruan? Zer giza bitarteko eta bitarteko material daude horretarako? Ba al dago plan edo estrategiaren bat finkatuta? Ba al dago zuzeneko edo zeharkako harremanik Iruñeko GGKE-ekin? Eta Hegoaldeko herrialdeetako eragileekin zuzenean?

4. Orain arte, plataformak harremanik, elkarlanean aritzeko saiorik edo benetako elkarlanik izan al du UGLPrekin, izan formala edo informala? Baietz erantzun baduzu, azaldu nolakoa izan den eta adierazi horri buruz duzun iritzia, mesedez.

5. Zer irudituko litzaizuke UGLPrekin edo Iruñeko GGKE-ekin orain baino estuago elkarlanean jardutea etorkizunean? Interesgarria deritzozu?

6. Baietz erantzun baduzu, zer ekimen edo eremutan izango litzateke posible elkarlanean jardutea?

7. Eta zein izango lirateke zailtasun edo erronka nagusiak (teknikoak, erakundearenak, aurrekontua, etab.)?

8. Plataformaren eta UGLPren arteko elkarlan posibleak alde batera utzita, nolakoa nahi zenuke izatea Iruñeko garapenaren aldeko lankidetza etorkizunean (helburuak, balioak, lehentasunak, tresnak, etab.)?

9. Eskerrik asko laguntzeagatik! Beste edozein iruzkin edo iradokizun adierazi nahi baduzu, hemen idatz dezakezu.

G KONTSULTATU DIREN DOKUMENTUAK

A. **UGLP-RI BURUZ**	• Onartutako proiektuen estatistikak eta erregistroak, 1996tik 2017ra • Urteko planak, 1999tik 2016ra • Urteko memoriak, 2000tik 2016ra • Azken urteotako oinarriak eta deialdiak • Azken urteotako hitzarmenak NGGKEKrekin • Proiektuen ebaluazioak
B. **IRUÑEKO GLUK-I BURUZ**	• GLUKen erregelamendua • 2000tik 2016ra bitarteko aktak
C. **UDALEKO BESTE ALORREI BURUZ**	• Iruñeko Udalaren Berdintasunerako Plana 2016-2022 • Azken urteotako Iruñeko immigrazioari buruzko txostenak
D. **NAFARROAKO GOBERNUARI BURUZ**	• Nafarroako Gobernuko Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailea • Nafarroako Gobernuko Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea
E. **BESTE ESPARRU-DOKUMENTU GARRANTZITSU BATZUK**	• La cooperación descentralizada española: apuntes para un cambio de modelo (Ignacio Martínez, 2012) • La cooperación autonómica y local desde las ONGD (NGGKEK, 2012) • Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2015) • Guía de orientaciones para la cooperación municipal al desarrollo: el papel de las ciudades (Proyecto Local Barcelona, 2010) • La Cooperación al Desarrollo Descentralizada: una propuesta metodológica para su análisis y evaluación (Hegoa, 2010) • Informe sobre la política de cooperación al desarrollo de las comunidades autónomas (NGGKEK, 2012) • ODS: lo que los gobiernos locales deben saber (CGLU, 2016) • Eficacia de la ayuda y división del trabajo: retos para la cooperación descentralizada española (CEIPAZ, 2012) • Los nuevos retos de la cooperación descentralizada (lankidetza deszentralizatuaren behatokia, 2014) • Manual de Gestión de la Cooperación para el Desarrollo de los Gobiernos Locales (FEMP, 2011) • Manual de Educación para el Desarrollo y Ciudadanía Global (Intered) • Un nuevo acuerdo global: erradicar la pobreza y transformar las economías a través del desarrollo sostenible (NBE, 2013) • Garapen Iraunkorrerako NBEren 2030 Agenda • Aldaketarako EBko Agenda (2011) • Capacitación de las autoridades locales en los países socios en aras de la mejora de la gobernanza y la eficacia de los resultados del desarrollo (EBko Batzordea, 2013) • Cooperación al Desarrollo, evaluación de pares: España (ELGA, 2016) • Evaluación de la Cooperación Local por medio de Hermanamientos (AECID, 2011)
F. **LANKIDETZAREN BESTE PLAN ZUZENTZAILE BATZUK**	• AECIDen Plan Zuzentzailea 2014-2017 • Nafarroako Plan Zuzentzailea 2011-2014 • EAEko Plan Zuzentzailea 2014-2017 • Bizkaiko Plan Zuzentzailea 2013-2015 • Galiziako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2014-2017 • Kataluniako Plan Zuzentzailea 2015-2018 • Gaztela eta Leongo Plan Zuzentzailea 2013-2016 • Gipuzkoako Plan Zuzentzailea 2013-2016 • Bilboko Plan Zuzentzailea 2016-2019 • Donostiako Plan Zuzentzailea 2012-2015 • Gasteizko Plan Zuzentzailea 2016-2019 • Bartzelonako Plan Zuzentzailea 2013-2016 • Andaluziako Plan Zuzentzailea 2015-2018 • Valentziako Plan Zuzentzailea 2014-2017 • Valladolideko Plan Zuzentzailea 2011-2014 • Hospitaleteko Plan Zuzentzailea 2016-2019 • Terrassako Plan Zuzentzailea 2014-2020

H UPOEN EGITURA ETA EDUKIA

1. Sarrera edo aurkezpen laburra

2. Aurreko urteko memoriako ondorio eta ikasbide nagusiak

3. Aldaketak Plan Zuzentzailerako hasieran zehaztu zen testuinguruan (hala badagokio)
   a. Barnekoa
   b. Kanpokoa

4. Dagokion urtean, garapenerako lankidetza eta hezkuntzarako dagoen aurrekontu osoa, eta Udalaren aurrekontuaren gaineko ehunekoa

5. Dagokion urterako Plan Zuzentzailean aurreikusi ziren helburuen deskribapen sistematiko laburra
   a. Ildo estrategikoak
   b. Helburuak
   c. Jomugak eta adierazleak

6. Helburu, jomuga eta adierazle horien aldaketa posibleak, arrazoiak adierazita eta berriak zehaztuta (hala badagokio)

7. Dagokion urtean, UGLPk babestu beharreko modalitateak, eta aurrekontuak zein bakoitzaren berritasun nagusiak labur deskribatzea
   a. Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa
   b. Proiektuak Hegoaldean
   c. Larrialdietarako eta gizaldeko laguntza
   d. Beste batzuk

8. Dagokion aldian abiarazi beharreko tresna zehatzak, eta bakoitzaren aurrekontua, ezaugarri nagusiak eta berritasunak deskribatzea
   a. Urteko eta zenbait urtetarako proiektuak diruz laguntzeko deialdiak
   b. Unean uneko, urteko eta zenbait urtetarako GHSko ekintzak diruz laguntzeko deialdiak
   c. Lankidetza-hitzarmenak
   d. Ekintza propioak

9. Urteko ekintza propio eta deialdietarako aurreikusi den egutegia

I URTEKO MEMORIEN EGITURA ETA EDUKIA

1. Sarrera edo aurkezpen laburra

2. Dagokion urterako UPOn aurreikusi diren helburu, jomuga eta ekintzen deskribapena

3. UPOko helburu, jomuga eta ekintzen betetze-mailaren analisia, eta desbideratze posibleak nahiz kausak azaltzea

4. Aurreikusitako kronograma eta benetan gauzatu dena, eta aldaketak azaltzea

5. Jarduketen deskribapen laburra, modalitate- edo tresna-mota bakoitzeko
a. Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa
b. Proiektuak Hegoaldean
c. Larrialdietarako eta gizaldeko laguntza
d. Beste batzuk

6. Aurrekontua zer mailatan bete den, osorik eta modalitate edo tresnaren arabera, eta desbideratze posibleak nahiz kausak azaltzea

7. Ondorio orokorrak eta ikasbideak hurrengo UPOrako

J. ARGAZKIEN ITURRIAK

8. or.: Pablo Tosco. OXFAM-Intermón. Nigeria.

10. or.: Madre Coraje. "Lurralde-garapen integratuko programa Angaraesen". Peru.

12. or.: Ekologistak Martxan. "Hirira migratzen duten landa-eremuko emakume indigenen garapen osoa". Chiapas, Mexiko.

16. or.: Pablo Lasaosa. Vicente Ferrer fundazioa. "Heziketa-gaitasunak eta elkarte-sarea indartzea. Bost ikastetxe eraikitzea Anantapurren". India.

18. or.: Compartir Navarra. "Caña Flecha (Gynerium sagittatum) materialeko artisau-lanen inguruko prestakuntza eta ekoizpenerako sei Landa Zentro eraikitzea, eta zentro kultural eta etno-heziketakoa, Zenu populazio indigenarentzat". Kolonbia.

20. or.: Garapenaren aldeko Lankidetza Programa. "Garapenerako hezkuntza proiektuetarako ebaluazio-lantegiak eta sentsibilizazio-jarduketak". Iruña.

30. or.: IPES elkartea. "Neuquén-eko komunitate maputxeek beren eskubideak erabiltzea bultzatuz". Argentina.

34. or.: Felix Baltistan Fundazioa. "Hushé bailarako biztanleen oinarrizko osasun-egoera hobetzeko jardueren sustapena". Pakistan

36. or.: Organización de Cooperación y Solidaridad Internacional - OCSI AMS. "SolidarizARTE IV". Iruña.

38-39. or.: Vita et Pax. "Nutrizio-prebentzioa eta -errehabilitazioa Bilyogoko (Kygali, Rwanda) osasun- eta gizarte-gizarte etxean". Ruanda.

41. or.: Felipe Rinaldi Fundazioa. "Begetalak aztertzeko, ekoizteko eta merkaturatzeko mikroenpresen sarea Salinaseko parrokian". Ekuador.

47. or.: Munduko Medikuak. "Argazkigintza humanitarioaren Luis Valtueña nazioarteko saria". Iruña.

48. or.: UNRWAko Espainiako Komitea. "Larrialdi humanitarioari erantzuna emateko plana Sirian: arreta errefuxiaturiko palestinarrei". Siria.

55. or.: ANARASD. "Elikadura-laguntza larrialdi egoeran dauden saharar errefuxiatuentzat". Saharar errefuxiatuen kanpamenduak.

56. or.: AMBALA. "Arta obstetriko-ginekologikoaren hobekuntza Ebomé hiriko ospitalean". Kamerun.

58. or.: Itaka fundazioa. Santivañezeko (Bolivia) haur indigenei oinarrizko hezkuntzarako eta hezkuntza teknikorako sarrera erraztea eta kalitatea bermatzea.

85. or.: ALBOAN. "Komunitatearen parte-hartzea toki-garapenean". Guelendeng-eko suprefetura (Txad).

